

Goienkaria

2008ko otsailaren 8a > Egubakoitza > VIII. urtea > 319. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Inoiz baino garrantzi handiagoa du independentziaren aldeko botoa lortzeak"

Agurne Barruso
Bergarako alkatea > 09



G2a

Amodiozko gutunek badituzte irabazleak > 43-44

BERGARA
Artabila aldea urbanizatzeko lanak egiten dihardute > 25

ESKORIATZA
XVIII. mendeko iturria berritu egingo dute, gal ez dadin > 35

KIROLA
Mikel Gonzalez: "Motibatu egiten nau igoeran pentsatzeak" > 40

EUSKARA > BEHATOKIA

Erregistratu jaioberriak euskaraz

Behatokiak kanpaina jarri du abian eta zelan egin azaltzen du > 07

EUSKARA > ARGITALPENAK

Euskarazko kantu eta jolasak

DVD eta liburu sorta banatuko die Mankomunitateak 4 urteko umei > 04

IRAKASKUNTZA > GREBA

Gimnasiako irakasleen greba

SOHAT, Soin Heziketaren Aldeko Taldeak, greba deitu du astelehenerako eta bailarako heziketa fisikoko hainbat irakaslek bat egingo dute grebarekin. Jaurlaritzak datorren ikasturterako ezarri nahi duen heziketa fisikoko orduen murrizketa dela eta ari dira protesta egiten. > 04

MANKOMUNITATEA > TURISMO SAILA

Bergaran izango da aurten Mundumira ekainaren 6tik 8ra

BERTAKO TALDEAK Bailarako artistei aukera eman nahi diete, eta jaialdian bertako taldeen presentzia areagotu

HELBURUA Debagoieneko baliabide kultural eta turistikoak ezagutzera ematea da helburu nagusia

OHIKO ATALAK Aurreko edizioetako egitura izango du: mundu osoko musikak, azokak, ibilaldiak, boulder sariketa... > 06



MAKINERIA BERRIA Arrasateko Herriko Plazan erakutsi du asteon Cespa makineria: ura botatzen duten kamioiak, hostoak kentzekoak...

U.M.

Arrasateko kaleak garbitzeko makina berriak aurkeztu dituzte

Makina guztiak berritu eta zerbitzua mekanizatu egin du Cespa garbiketa enpresak. Modu horretan, "orain, Debagoienean, puntako zerbitzua" dagoela azpimarratu dute enpresako arduradunek asteon, Arrasateko plazan egindako aurkezpenean.

Makineria berriari errendimendu handiagoa ateratzeaz gain, bestelako onurak ere baditu: esaterako, orain artekoa baino isilagoa da, eta ez dago zalantzarik herri-tarek eskertu egingo dutela hori. Bestetik, ekologikoagoa ere bada. > 18

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55



SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Eguaztenetik zapatura gaez zabalik, zapatu eguerdietan ere bai
www.iparragirre.com

GIZARTEA > EMAKUNDEK 20 URTE

Emakume taldeak, laguntza eta lekuko premian

INPLIKAZIO FALTA Bailarako taldeetan diharduten emakumeek erakundeen, gizonezkoen eta jende gaztearen inplikazioa jo dute beharrezkotzat euren lanean

DIRULAGUNTZAK Ibarreko emakumeen elkarteek Emakunderekin duten lotura da, batik bat, dirulaguntzak eta informazioa jasotzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Martitzenean, otsailaren 5ean, 20 urte bete zituen Emakundek. Emakumearen Euskal Erakundeak sortu zenetik ahalegin handia egin da berdintasunaren alde.

Emakunderen helburuetako bat da sareak eraikitzea eta berdintasunaren alde lan egiten duten taldeekin elkarlanean jardutea. "Giza mugimenduen eta gure lana osagarri dira eta beharrezkoa da indarrak batzea", dio Emakundeko zuzendari Izaskun Moyuak.

HERRI TXIKIEKIN LAN HANDIAGOA

Ibarreko emakume talde eta elkarreetara jo dugu Emakunderen jardunaren gaineko iritzia jasotzeko.

Gatzagako taldea Sorginak da eta Amaia Olabe kideak esan digu apenas dutela harremanik Emakunderekin: "Modu independentean jarduten dugu. Saharara egin genuen bidaia bat, jardunaldi batzuetara, Emakunderen laguntzaz, baina gainontzean ezer askorik ez. Nik neuk uste dut Emakundek egin duen lanak zerbaiterako balio duela. Hala ere, herri txikietan lan handiagoa egin beharko lukete; emakumeen talde txikiak laguntza eta erraztasun gehiago eman, eta ez trabak ipini".

ERAKUNDEEN INPLIKAZIOA

Bergaran, Beke elkarteko Koro Irategi, Maria Jesus Ferreiro eta Mari Carmen Odriozolarekin izan gara.

Emakunderen lanari esker aldaketak sumatu dituzte, baina, euren esanetan, "berdintasunera iritsiko garen zalantza daukagu. Gauzak nola dauden erreparatuta, lanean ongi dihardutela uste dugu. Hizkuntzari dagokionez, esaterako, gero eta gehiago egiten da genero bereizketa, neurri batean, Emakunderi esker".

Emakundek dirulaguntza ematen die euren jardueretarako. Horretaz gain, ekintzen eta jardueren informazioa ere helarazten die. Eskulanak dira Bekeren jarduerak nagusia, baina ikastaroak, erakusketak eta hitzaldiak ere antolatzen dituzte. "Ez daukagu dirulaguntza askorik; hortaz, zaila da gauzak antolatzea".

Euren aldarrikapena, ordea, jendearen eta erakundeen inplikazioa da. "Gizonen eta gazteen parte-hartzea falta da. Bestalde, Udalean Emakume Saila nahi genuke. Badira urteak eskatzen ari garela, baina ez da ezer lortu. Taldean zenbat eta emakume gehiago elkartu, orduan eta indar handiagoa egin daiteke".

"Hasieran emakume taldeen sorrera bultzatu zuen Emakundek, baina egun, emakume mugimendua eta mugimendu feminista ahulduta daude"

EKINTZA PLANETAN PARTE HARTU

Arrasateko Ekin emakume taldeko presidente Leire Aperribaik, Emakundek taldeari, herriari eta emakumei oro har zertan lagundu dien azaltzeaz gain, kritika txikia ere egin dio.

"Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bidezkoa eta beharrezkoa dela ohartarazteko bidea eman digu; eta etxe-



EKITALDIAK Goian: Emakunderen 20 urteurren jai. Behean, ezkerrean: Sorginak taldekoak os

an, enpresetan, hezkuntzan, aisialdian... ezberdintasunak zein diren ikusten lagundu digu; inguruko zaintzaren kostua zenbatekoa den erakutsi digu; publizitatearen eragina ezagutarazi digu; bultzatu du emakumeak taldeetan elkartu eta erakundeak sortzea, besteak beste dirulaguntzak emanez", esan digu Aperribaik.

Bestalde, Emakunderen Ekintza Positiboko Planaren harira, Arrasateko Udalean Emakume Saila sortzea eta planak eratzea herriarendako ez ezik Ekinendako ere positiboa dela esan digu; eurek ere hartu dutelako parte, esaterako, Emakumeen Euskal Kontseilurako proiektuan eta Emaweb programan.

Kritikak ere egin dituzte Ekinetik. Leire Aperribaik dio elkarre bateko kide izan ezean zaila dela Emakundera iristea. Bestalde, hasieran emakume taldeen sorrera bultzatu bazuen ere, "gerora ez du jakin izan indartzen, eta bai emakume mugimendua eta bai mugimendu feminista ahulduta daude", esan digu.

Gainera, salatu dute euskaraz bizi garen emakumeok jasaten dugun diskriminazio bikoitza, emakume izateagatik eta euskalduna izateagatik. "Eguneroko harremanak, jardunaldiak eta hitzaldiak gaztelaniaz dira. Bestalde, ez da politika zehatzik egin emakume erdaldunek euskara ikasteko eta erabiltzeko".

GOBE

ETXE-ALDAKETAK

Etxe-aldaketa osoak

Altzariak eta materiala igotzeko karga-jasogailu alokairua gidariarekin.

Enpresa eta partikularrentzat

Tel.: 695 71 05 61
www.gorabera.com

SSANGYONG KYRON 4x4 BERRIA

Mercedes-Benz Motorrekin:
200 Xdi 141 ZP
270 Xdi 165 ZP

27.900 €-tik
aurrera

**SSANGYONG****VERTIZ MOTOR**

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99



Emakundeko zuzendaria. Behean, eskuman: Beke elkarteak martxoaren 8ko bilkuran. GOIENKARIA

Eskariak eskari, Ekinekin egungo ekintzekin jarraituko du: emakume euskaldunendako kultura eta aisialdi ekintzak; talde eta erakundeetan parte-hartzea; eta emakume etorkinekin lanean.

GAZTEEN BEHARRA

Eskoriatzako Amuska elkarteak harreman ona du Emakunderekin: "Gurekiko harremanean lan ona egin du, batik bat dirulaguntzak emanez. Horri esker, ikastaroak eta bestelako jarduerak egin ditugu, hori delako emakumeek eskatzen dutena. Emakundekoak hasi zirenean etortzen ziren hitzaldiak egitera; orain, ez etorri arren, ikastaroen eta jardunaldien informazioa bidaltzen digute. Tratua, gainera, oso zuzena da, sekulako harrera egiten digute", esan digute Amuskako Leonor Herrerok, Marilu Arandok eta Dorleta Urrutiak.

Amuskakoek argi dute ez garela oraindik berdintasunera iritsi. "Emakundekoek lanean dihardute gizonen ere bat egin dezaten emakumeen eskubide-

en aldeko lanean. Zaila da jaso duten heziketa moduarengatik orain aldatzea, baina borrokari eutsi behar diogu. Goian, erakundeetan egin behar dute lan, baina baita nor bere etxetik hasita ere", diote.

Emakundetik laguntza jaso arren, esan digute elkarrekin bera dela gainbehera doana. "Jende gazterik ez dago eta ikastaroak eta irteerak baino ez ditugu egiten. Hasi ginenean emakumeek ez zuten apenas etxetik kanpo lan egiten eta elkarrekin ekintzak aitzakia ziren etxetik irteteko, orain, ordea, jende gaztea ez da elkartera etortzen".

Sorginak, Beke, Ekin eta Amuska. Horiak ibarreko emakume taldeak, eta Arrasaten Emakume Saila ere badute Udalean. Gehienek emakumeen aisialdi ekintzak dituzte ardatz; noizean behineko jarduerak. Erakundeetan laguntzarekin edo herritarren bultzadaz, berdintasunera bidean emakume izaera ardatz hartuta pausoak ematen jarraitzea da euren nahia.

Izaskun Moyua > Emakundeko zuzendaria

"Ezinbestekoa da gizartean modu aktiboan lan egitea emakumeen diskriminazioaren aurka"

I.A. > BERGARA

Emakundeko idazkari nagusi hasi eta gaur egun erakundeko zuzendari da Izaskun Moyua oñatiarra. 20. urteurrenean, Emakunderen ibilbidea eta etorkizuneko erronkak izan ditu berbagai.

Nola baloratuko zenuke Emakunderen 20 urteotako ibilbidea?

Sorreratik pauso guztiek xede bat dute: gizarteko eta bizitzako arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea, berdintasunera iristeko bideak bultzatzea eta emakumeen diskriminazioa ezabatzeke neurriak hartzea. Ahalegin handia egin da administrazio publikoetan berdintasunaren aldeko egiturak sortzen, administrazioen arteko sareak eraikitzen eta arlo pribatuan berdintasunaren alde lan egin dezaketean erakundeak eta taldeak bultzatzen eta laguntzen. Administrazioan berdintasunaren aldeko sareak eta egiturak sortzea eta sendotzea da zeregin garrantzitsua. Baita administrazioetan berdintasun politikak bultzatzeko pertsonak trebatzea ere. Horren adibide dira Ekintza Positiborako Planak eta erakundeen arteko elkarlana. Lorpen handiena da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea, Emakunde landu eta Eusko Legebiltzarrek 2005ean onartua.

Emakunderen 20 urteotan zein izan dira lorpen handienak?

Handiena, Berdintasunerako Legearen onarpena. Legeari esker aurrerapen garrantzitsuak egin dira, eta egingo dira. Hainbatetan aldarrikatu den emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortu da Legebiltzarrean eta Gobernu Kontseiluan, eta gobernuak zigortu egin ahal izan du enpresa bat publikitate sexistak egiteagatik. Ekintza aitzindariak egin dira administrazioaren barne egiturak eta tresnak egokitzeko eta interbentzio publiko indartsuagoa eta zeharkakoagoa lortzeko.

Gaur egun, Berdintasun Legeak markatzen du Emakunderen jarduna?

Guztiz. Legea onartu ondoren eratu den Ekintza Positiborako Planaren helburuak dira Berdintasun Legearen artikulua betetzea, garatzea eta ezartzea eta aurrerapausoa ematea politiken lehentasunak zehazteko.

Nola ikusten duzue berdintasuna gizarteko gainontzeko arloetan?

Esparru guztietan lan egin behar da. Ekintza Positiborako IV. planean lau ardatz estrategiko finkatu dira arlo guztietarako: kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna, hirigintza eta ingurumena. Administrazioei 600 ekintza konkretu proposatzen zaizkie berdintasunaren alde ekiteko.

Berdintasunaz gain, zein dira Emakunderen beste lanildoak?

Berdintasuna da helburua, eta hori lortzeko, planak markatzen dituen lau ardatz estrategikoetan lan egiten dugu: berdintasun politikaren zeharkakotasuna. Hau da, esku-hartze publikoan kontuan hartzea modu sistematikoan emakumeen eta gizonen egoera, baldintza,



GOIENKARIA

"Genero indarkeriaren biktimen atentzioarekin batera prebentzio lana ere oso garrantzitsua da"

"Epe laburrean gizonak berdintasunaren aldeko lanean inplikatzeko da Emakunderen erronka"

ixtaropen eta premiak; emakumeen ahalduz. Alegia, indartzea emakumeen egoera gizartean, ekonomian eta politikan; bizitza pribatua eta lana batez beste eragilei berdintasunaren alde nola egin behar duten aholkatzea eta horretarako tresnak jartzea.

Aholkularitzan ere badiharduzue.

Hori da Emakunderen lan garrantzitsuenetakoa: administrazioari eta gizarteko beste eragilei berdintasunaren alde nola egin behar duten aholkatzea eta horretarako tresnak jartzea.

Genero indarkeriaren arloan aurreratu da ezer 20 urteotan?

Aurrerapausoak eman dira, nahiz eta arazoa oso larria izan oraindik. Duela urte batzuk indarkeria kasuak arazo pertsonalak ziren, eta gaur egun onartzen dira arazo sozial bezala. Eta onartzen da indarkeria horren azpian emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna dagoela. Orduan ez geneukan indarkeria kasuen daturik, eta

orain bai. Bestetik, aurreratu da biktimen atentzioan, koordinazio handiagoa dago erakundeen artean eta gizarteko arlo ezberdinen artean: osasun arloa, polizia, epaitegiak... Mugarri garrantzitsua izan zen 2001. urtean EAEko agintariek tratatu txarrak jasaten dituzten emakumei arreta hobea eskaintzeko sinatu zuten akordioa. Koordinazioari dagokionez, oso garrantzitsua izan zen Berdintasunaren sorrera: udalerrien sarea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko eta genero biolentziaren aurka neurriak koordinatzen eta martxan jartzen dituenak. Biktimen atentzioarekin batera prebentzio lana ere oso garrantzitsua da. Horren adibide da eskolatan abiartzeko tratatu txarrak prebenitzeko Nahiko programa.

Zein dira epe labur eta luzera dituzten erronkak?

Epe laburrean, gizonak berdintasunaren aldeko lanean inplikatzeko. Horretarako, lehendakariarekin batera aurkeztu dugu Gizonduz programa. Lortu nahi da gizonak inplikatzeko berdintasunaren aldeko lanean, eta neurri zehatzak jarriko dira abian.

Bestalde, IV. planean zehaztutakoa garatzen jarraituko dugu eta Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseilua sortzeko pausoak emango ditugu, aurreproiektua onartuz. Erakunde berriak bidea irekiko du emakumeek eta hauen elkarteek politika publikoetako erabakietan parte-hartze zuzena izan dezaten. Pauso handia emango da parte-hartze demokratikoan oinarritutako kultura ezartzearen alde eta herritar aktiboaren parte-hartzea ahalbidetzen duten elkarten alde.

IRAKASKUNTZA > GREBA

Heziketa fisikoko eskolak etenda egon dira azken egunotan

Heziketa fisikoko irakasleek alde teorikoa landu dute azkeneko bi asteotan

Jaurlaritzak onartutako ordu murrizketagatik dihardute protestan gimnasia irakasleak

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Gorputz heziketako eskolak oso bestelakoak izan dira azken bi asteotan. Bai, behintzat, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez onartutako ordu murrizketaren aurrean protesta egiten dabilen irakasleen eskolak. "Klase praktikokoak alde batera utzi ditugu eta azken bi asteotan gela barruan eman ditugu heziketa fisikoko bi orduak; besteak beste, heziketa fisikokoak dituen onurak azaldu dizkiegu. Era berean, ikasleei arazoaren berri eman diegu", azaldu digu ordu murrizketaren aurka dagoen Oñatiko Errealde Herri Eskolako irakasle Borja Moiuak. "Heziketa fisikoa ezinbestekoa da haurren heziketa integralerako", dio.



GELAN Gimnasiako klaseak gelan eman dituzte Oñatiko Herri Eskolan. B. MOIUA

ORDU MURRIZKETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak datorren ikasturterako onartu duen curriculumaren zirriborran, heziketa fisikoko orduetan murrizketa egitea aurreikusten du: Lehen Hezkuntzan %40 eta Bigarren Hezkuntzan % 37. "Egun, bi orduko klaseak ematen

ditugu eta dekretu berriarekin ordu eta erdira murriztu gura dute", azaldu digu Borja Moiuak.

Bestalde, heziketa fisikoki kentzen dioten ordu erdia matematikari eta hizkuntzari eman gura die Eusko Jaurlaritzak. "Erabaki horrek aurrera egiten badu, garai batean musika ordukin gertatu zena pasako da; hau

da, heziketa fisikoa eskoletatik kanpo geratuko dela. Hala, heziketa fisikoa egin gura duenak elkarte pribatueta joan beharko du".

SOHATEK GREBA DEITU DU

Dekretua zela-eta, heziketa fisikoko irakasleek SOHAT (Soin Heziketaren Aldeko Taldea) sortu zuten. Era berean, haien aldarrikapenak jasotzen zituen manifestua egin zuten, eta, besteak beste, hainbat kirolari ezagunen atxikimendua lortu zuten.

Hala, SOHAT taldeak greba eguna deitu du astelehenerako. Eusko Jaurlaritzan ordu murrizketaren gaia aztertzen duten bitartean, kale bilkura egingo dute Gasteizen, Jaurlaritzaren kanpoaldean. Era berean, manifestuarekin bat egin zuten 75.000 sinadurak eroango dituzte.

Debagoieneko eskola batzuetako heziketa fisikoko irakasleek ere bat egingo dute greba deialdiarekin; besteak beste, Oñatiko Herri Eskolakoek, Bergarako San Martin eskolakoek, Antzuolako Herri Eskolakoak, Elgetako eskolakoak, Aretxabaleako Kurtzebarri eskolakoek eta Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolakoek. Astelehenean, goizeko bederatzietan elkartuko dira Gasteizen.

Mankomunitateak eta udaletako euskara zerbitzuek 350 sorta banatuko dituzte 4 urteko umeen artean

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Umeen hizkuntzaren ikasketak eta familia transmisioak duten garrantzia aintzat hartuta, Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek eta Mankomunitateak gurasoendako aholkuen liburuxka eta kantu eta jolasen 350 DVD kaleratu dituzte, 4 urteko umeendako eta haien gurasoendako.

EUSKARA > LIBURUA ETA DVD-A

Euskarazko jolasak ikasteko DVDa 4 urteko umeendako

EUSKARAZKO JOLASAK

Euskara zerbitzuek eta Mankomunitateak kaleratu duten DVDaren helburua gurasoei umeekin euskaraz jolasteko aukera eskaintzea da. Normalean, gaur egun, adin horretako umeak dituzten gurasoek, euskaldunak izan arren, jolasak eta abestiak gaztelaniaz ezagutzen

dituzte. Hortaz, gabezia horri aurre egiteko aukera eskaintzen du DVDak. Era berean, abestiak laburrak direnez, guraso erdaldunek ez dute zailtasunik izango ikasteko. Kaxa barruan, DVDaz gain, bi liburuxka daude. Liburuxka bat grabazioan bildu diren jolas eta kantuen gaineko informazioarekin osatu da.

Bestea, aldiz, *Biharko euskara gaur- Su futuro euskara desde hoy* izeneko liburuxka da. Gurasoendako liburuxka horretan, hizkuntzarekin lotutako aholkuak bildu dira.

Ekimena 2006an martxan jarri zenetik hona, 400 sorta banatu dira ikastetxeetan eta herrietako aisialdi taldeetan.

> ERREPIDEA

AP-1 autobideko Arabako zatia ia bukatuta dago

Eibar eta Gasteiz lotuko dituen autobideko lanak ia bukatuta daude Arabako zatian. Errepidearen zati txiki batean geruzatza bat botatzea falta da. Hortaz, lanak bukatzeko atzerapena oso txikia izango dela esan du Arabako ahalzun nagusi-ordeko Claudio Rodriguezek. Gaineratu du AP-1 autobideko Arabako zatia apirilean zabalitzea aurreikusten dutela.

Bestalde, Gipuzkoako zati-ko lanak urte amaierarako egongo dira gertu.

> OSAKIDETZA

Sindikatuekin hartu-emanetan jarriko da Osasun Saila

Osakidetza lan gatazka konpontze aldera beste eskaintza bat egingo dutela esan du Jaurlaritzako Osasun sailburu Gabriel Inclanek. Haren helburua da gatazka bideratzea eta mahaia sektoriala berriro abian jartzea.

Urtarrilaren 29rako greba deitu zuten zortzi sindikatu-tako ordezkariak "gustura" hartu dute Inclanen iragarpena, eta negoziatzeko prest daudela esan dute.

> ATXILOKETA

Gizon bat atxilotu dute Oñatin, ustezko eraso batengatik

Begarako ertzain-etxe-ko agenteek CC.M.F 18 urteko gaztea atxilotu zuten eguazten goizaldean, ustez labana batekin beste gazte bati eraso egiteagatik.

Erasoa Kale Zaharreko taberna batean gertatu zen. Sorbaldan ebakiak zituen laguna taberna kanpoaldean atenditu zuen anbulantziak, eta ondoren ospitalera eroan. Erasoren inguruko informazioa jaso ondoren, Ertzaintza ustezko erasotzailearen bila irten zen. Arrasateko ospitalean atxilotu zuten, borrokan zauritu zuten bere senitarteko bati laguntzera joan zenean.

CLINICA DENTAL BERGARA

12 hilabete arteko finantzaketa
eta 5 urtekoa ere bai.

Hirugarren adinakoentzat deskontuak

Odontologia orokorra
Implanteak
Protesiak
Hortz-estetika
Periodontzia
Endodontzia

Mutuak
Sanitas
DKV/Previa
Asisa
Azkaran
Previsora Bilbaina
Aegón
Adeslas
Allianz
Mapfre

PADI



Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

HAUTESKUNDEAK 08 > ESPAINIAKO KONGRESU ETA SENATURAKO

Ibarreko hamasei hautagai martxoko hauteskundeetan

EA da ibarreko hautagai gehien dituen, bost; eta EAJko Lore Leanizbarrutia aretxabaletarra da Kongresurako Gipuzkoako zerrenda-burua

I.B./A.B. > ARRASATE

Urtarrilaren 20an bukatu zen hauteskundeetarako koalizioek hautagaien zerrendak aurkezteko epea Hauteskunde batzordearen aurrean. Eta otsailaren 4a, berriz, alderdiek hautagaien zerrendak aurkezteko azken eguna izan zen.

HAUTAGAI GUZTIEN IZENAK

Astelehenean Hauteskunde batzordeak hautagai guztiak jakinarazi zituen. Zerrendetan, 17 debagoiendar daude.

Debagoieneko alderdiek hautagai kopuru bera aurkeztu dute Espainiako Senatura eta Kongresura: zortzi bakoitzera.

EA da Debagoieneko hautagai gehien dituen. Kongresurako hiru ordezkari aurkeztu ditu: Arrasateko Udalean zinegotzi izandako Amaia Larrañaga hirugarren joango da Gipuzkoako zerrendan; Eskoriatzako alkate ohi Juan Carlos Bengoa laugarren, Larrañagaren atzean; eta Aretxabaletako alkate ohi Pedro Mendieta, bigarren ordezkari.

Senaturako zerrendetan, berriz, honako hauek daude: Lore Martinez Aretxabaletako zinegotzia, bigarren, eta Pello Urizar Arrasateko zinegotzia, hirugarren.

EAE-K DEBAGOIENDAR BAKARRA

EAE-ANVk debagoiendar bakarra aurkeztu du: Bergarako alkate Agurne Barruso Kongresurako Gipuzkoako zerrendan hirugarrena da. Senaturako, berriz, ez dago debagoiendarririk.

EAJn Kongresurako zerrendan laugarren doa Jose Luis Garitano. Eta Senaturako: Lore Leanizbarrutia aretxabaletarra da Gipuzkoako zerrenda-burua; Juan Luis Bikuña bergararra, berriz, bigarrenaren ordezkari.

Aralarrek bi debagoiendar aukeratu ditu Kongresurako: Arrasateko Josu Zugasti bosgarren postuan; eta Felis Beltran de Heredia aretxabaletarra bigarrenaren ordezkari.

Senaturako, berriz, debagoiendar bakarra aukeratu dute: Oñatiko Miren Arregi zinegotzia, zerrendaburuaren ordezkari izango da.

PSE-EE ETA PP-K, BAKARRA

Ezker Batutik, Isabel Salud bergararra bosgarren doa kongresurako.

Senaturako, berriz, Oñatiko zinegotzi Karmelo Perez zerrendako hirugarren doa; Arrasateko zinegotzi Joseba Ugalde,

Alderdi Popularrak ez du Senaturako ibarreko ordezkariarik aukeratu; bai, ordea, Kongresurako: Arrasateko zinegotzi Itziar Lamarain ordezkaren artean lehenengoa da zerrendan.

Alderdi Sozialistatik ere ibarreko politikari bakarra dago zerrendetan: Arrasateko zinegotzi Karmen Atxutegiren hirugarren doa Kongresurako. Senaturako, berriz, ez dago ibar honetako beste inor.

Kongresurako zerrendak itxiak dira, baina Senaturako ez, eta horretan ez dago ordenarik. Gainera, Senaturako, hautesleek gura dituzten hautagaiak aukera ditzakete, alderdi desberdinetakoak izan arren.

zerrendaburuaren ordezkari da eta Andres Diez bergararra, bigarrenaren ordezkari.

DEBAGOIENEN HAUTAGAIAK

KONGRESURAKO

> ARALAR

Josu Zugasti (Arrasate).
Felis Beltran de Heredia (Aretxabaleta).

> EA

Amaia Larrañaga (Arrasate).
Juan Carlos Bengoa (Eskoriatza).
Pedro Mendieta (Aretxabaleta).

> EAE-ANV

Agurne Barruso (Bergara).

> EZKER BATUA

Isabel Salud (Bergara).

> PP

Itziar Lamarain (Arrasate).

> PSOE

Karmen Atxutegi (Arrasate).

SENATURAKO

> ARALAR

Miren Arregi (Oñati).

> EA

Lore Martinez (Aretxabaleta).
Pello Urizar (Arrasate).

> EAJ

Lore Leanizbarrutia (Aretxab.).
Jose Luis Bikuña (Bergara).

> EZKER BATUA

Karmelo Perez (Oñati).
Joseba Ugalde (Arrasate).
Andres Diez (Bergara).

HAUTESKUNDEAK 08 > ALDERDIEN LEGEA

Itxialdia egingo dute Arrasateko udaletxean

EAE eta EHAK legez kanpo uzteko prozeduraz protesta egin nahi dute horrela

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Audientzia Nazionalak EAE-ANV eta EHAK legez kanpo uzteko abian duten prozedura dela-eta, protesta ekintzak eta mobilizazioak egin dituzte aste osoan zehar Arrasaten.

Arrasateko Ezker Abertzaleak herritarrei kalera irteteko deia egin die, talde horiek legez kanpo uzteko asmoa salatzen.

ASTE OSOAN MOBILIZAZIOAK
Mobilizazio horien helburua da legez kanporatzeak salatzea eta herritarrei horren berri ematea.

Hala, astelehenean elkarretaratzea egin zuten Arrasateko PSE-EEren egoitzaren aurrean. Horren ostean, 15 bat lagunek, egoitzaren atzealdean, Otolara kaleko errepidea moztu zuten 10-15 bat minutuz. *Independentziaren bidean, lotu borrokari* leloa zuen pankarta izan zuten aldean.

Martitzenean, berriz, batzarra egin zuten Herriko Plazan, eta ordura arte ilegalizazio prozeduraren gainean zituzten berriak jakinarazi zituzten. EAEko presidentea eta talde bereko beste bi kide inputatu zituztela izan zuten berbagai, besteak beste. Horren ostean, kalejira egin zuten Arrasateko alde zaharrea barrena.

EGUBAKOITZEAN ITXIALDIA

Aste bukaeran ere izango dira bestelako mobilizazioak. Hain zuzen ere, aspaldiko partez itxialdia egingo dute Arrasateko udaletxean, osoko bilkuren aretoan. Gaur 20:00etarako egin dute hitzordua eta EAEko zinegotzietz gain, gura duten herritar guztiek pasa ahal izango dute gaua udaletxean, elkartasuna adierazteko eta prozesu hori salatzeko.

Bihar, zapatua, berriz, prentsaurrekoa egingo dute Herriko Plazan, 13:00etan. Eta, horren ostean, giza katea egingo dute.

Arrasateko Eusko Abertzale Ekintzako ordezkariak jakinarazi dute alderdiaren jardura debekatuz gero, bestelako dinamikak eta mobilizazioak antolatuko dituztela.

aulas kutxa 2008

Elkarlanean NEGU-UDABERRIKO IKASTAROAK (bete gabekoak)



| JARDUERA | TOKIA | IRAUPENA | ORDUTEGIA | DATA |
|--|--|----------|---------------------------|-------|
| BERGARA | | | | |
| Literatur ipuina: narrazio-era berri bat? GAZTELANIA | UHUN (UNED)- San Martin Agirre Plaza, 4 | 15 or. | 16:45-19:45 | 02/12 |
| Ikasi zure bizkarra zaintzen GAZTELANIA | Bolu Gimnasioa Harane Erreka, 9 | 16 or. | 11:00-13:00 | 02/23 |
| Estresari aurre egiteko tailerra GAZTELANIA | Bolu Gimnasioa Harane Erreka, 9 | 24 or. | 09:00-11:00 | 02/23 |
| Word-Excel (Ofimatika: hastapenak) GAZTELANIA | Informatika Bergara XXI. Ikasgela-Mintegi, 5 behea (Toki Eder) | 30 or. | 18:00-20:00 | 04/07 |
| OÑATI | | | | |
| Pintura apaingarriari buruzko tailerra GAZTELANIA | Eskulanak Jasone-Uitzegin, 4 behea | 48 or. | 09:00-11:00 | 02/18 |
| Nire lehen urratsak ordenagailuarekin GAZTELANIA | Ikas Hiru-Maiatzak Bata plaza, 4 | 20 or. | 18:00-20:00 | 04/02 |
| ANTZUOLA | | | | |
| Eguzki-energia, etxebizitzetan, enpresetan eta eraikin publikoetan EUSKARA | Olaran Etxea-Herriko plaza, 3 | 12 or. | 18:30-20:30 | 04/07 |
| ARETXABALETA | | | | |
| Soinketa, Pilates metodoaren bitartez GAZTELANIA | Zainduz Osasun eta Fitness Zentroa-Ilargi plaza, 6 behea | 24 or. | 20:30-21:30 | 02/18 |
| Sabelaren dantza GAZTELANIA | Zainduz Osasun eta Fitness Zentroa-Ilargi plaza, 6 behea | 10,5 or. | 11:30-13:00 | 02/23 |
| ARRASATE | | | | |
| GPS: mendi-ibilaldietarako orientazioa GAZTELANIA | Kultur Etxea-Azoka Kalea | 15 or. | Asz. eta ost. 18:30-21:30 | 05/07 |
| Argazkigintza digitala eta irudiaren tratamendua, Photoshop bidez GAZTELANIA | Bastida Academia-Araba etorbidea, 3 | 30 or. | Lar. 09:00-18:00 | 05/10 |
| | | | 18:00-20:00 | 04/07 |
| | | | Astelehenerik ostegunera | 04/30 |

Izena emateko eskakizunak:

*16 urte baino gehiago izatea.

* Gutxienez kutxako kontu baten titular izatea.

Izen-ematea eta informazio gehiagorako:

Telefonoz: 902 540 040 (astelehenerik ostiralera, 8:00etatik 14:30etara)

Internetez: www.kutxasocial.net

TURISMOA > MANKOMUNITATEKO TURISMO SAILA

"Bailarako osoko ibilbideak jasotzen ditu kaleratuko dugun turismo gidak"

Mankomunitateko Turismo Sailak berrikuntzak gehitu nahi dizkio Mundumirari: ibarreko artista eta taldeek parte hartzea nahi du

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Aurtengo urteari begira, Debagoieneko Mankomunitateak turismo gida berri bat atera gura du. Hala azaldu digu Oxel Erostarbe Mankomunitateko Turismo arduradunak: "Debagoieneko informazio gida izango da". Gidak, besteak beste, herri guztietako ibilbideak jasoko ditu. Ibilbide hauek adierazita daude eta Gipuzkoako Mendi Federazioak homologatuak.

Gainera, atera behar duten gidak berrikuntzak ere izango ditu: "Gidaren amaieran Debagoieneko ibilbide kulturalak proposatzen ditugu: Erdi Aroa, XVII. mendea, dorretxeak eta jauregiak...". Datorren astean egingo dute gidaren aurkezpena.

Herri bakoitzak eskainiko duenari buruz galdetuta, honako hau erantzun du Oxel Erostarbek: "Herri guztietako ibilbideak jasotzen dira gidan. Gehiengan bi ibilbide daude adierazita, eta horien ezaugarriak daude: iraupena, ibilbidea, interesguneak... Horrez guztiaz gain, herri bakoitzean gara daitezken ibilbideak lantzen ari gara. Adibidez, 36ko gerran Intxortan (Elgeta) gertatutakoak ulertzeko ibilbidea jarri nahi dugu martxan".



MUNDUMIRA Aurreko edizioetako atal nagusiek jarraituko dute aurtengo azokan ere izango dira.

GOIENKARIA

MUNDUMIRA EKAINEAN BERGARAN

Bestalde, aurtengo Mundumira festa ekainaren 6an, 7an eta 8an izango dela aurreratu digu Erostarbek: "Helburu nagusia Debagoiena ezagutzera ematea da. Jendea erakartzeko derrigorrezkoa da kontzertuetan izena duten artistak ekartzea. Baina asmoa da Debagoieneko artistei eta artista euskaldunei ere aukera ematea. Aurtengo, lehenengo pausoa ematea da asmoa eta aurrerago, hobeto finkatzea", jarri ditu helburutzat Mankomunitateko arduradunak.

Eskualdeko baliabide kulturalak eta turistikoak ezagutzera ematea da Mundumira festaren helburu nagusia. "Baita Debagoienetik kanpo gure eskualdean daudenak eta egiten ditugunak ezagutzera ematea ere", gaineratu du Erostarbek.

Aurreko edizioetan Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan egin zuten moduan, atal nagusiek jarraitu egingo dute Bergaran ere. Jaialdiak etorkizuneko gizar-tearen isla izan gura du; bizirik dagoen lurralde batean sor daitezkeenaren adierazle. Betiere,

norberaren kulturaren ezaugarriak mantenduz eta beste kulturen ezaugarriak ezagutuz. Antolatzaileak Mankomunitatea eta *Euskal Herria* aldizkaria dira.

FITURREKO BALORAZIOA

Urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra egindako Fiturreko azokan izan ziren, Gipuzkoako ordezkarien artean, ibarrekoak. Ana Heriz Mankomunitateko turismo teknikariaren esanetan, "gustura geratu gara azokak izan duen erantzunarekin". Fitur oso azoka handia izaten da; horregatik,

halako azoketan egotea beti izaten dela interesgarria gaineratu digu: "Egunean zehar, jende asko ezagutzeko aukera ematen du azokak; eta, harremanak egiteko ere leku egokia izaten da Fitur".

Azokak iraun duen bost egunetan, jende asko ibili da: guztira, 249.260. Horietatik, 97.482 aste bukaerako bisitariak izan dira. Gainera, azokak iraun duen bost egunetatik bitan bakarrik egon dira atek zabalik: aste bukaeran, hain zuzen.

BI PROIEKTU NAGUSI

"Aurreko batean esan bezala, Debagoieneko eskaintzaren ardatz nagusia bi proiektu izan dira: bate-tik, beste lurralde batzuekin batera dugun proiektua dago, Ignazio-tar Lurraldea; eta, bestetik, Arrikrutzeko kobak. Kontuan hartu behar da gure ibarrean daukagun berrikuntza handiena direla Arrikrutzeko kobak. Hortaz, horiek izan dira gure eskaintzaren ardatz nagusiak", azaldu digu Herizek.

Orokorrean, Debagoieneko mahaira hurbildu den jendeak bi proiektu horien gainean galdetu du. Baina bestelako interesa agertu duenik ere izan dela esan du Herizek: "Ibilbide naturalen gainean galdetu digute, eta artearen inguruan baita ere. Ibarrean zer egin daitezkeen galdetu digute orokorrean", gaineratu digu Mankomunitateko Turismo teknikariak.

Baina, Fitur azokan ibili denak zer daki Debagoienari buruz? "Egia esatearren, ez gaituzte ezagutzen; hori eskatzea, Madril batean, gehiegi da", dio Herizek. "Jendea, orokorrean, Gipuzkoan zer dagoen ikustera hurbiltzen da mahaira; barnealdeko eta kostaldeko eskaintzak ezagutu gura dituzte".



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

EUSKARA > JAIOPERRIAK EUSKARAZ ERREGISTRATZEKO KANPAINA

Badago aukera jaioperriak euskaraz erregistratzeko

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eskuragarri jarri ditu jaioperria euskaraz erregistratu ahal izateko txostenak

JASONE ZABALA > BERGARA

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak haurrak euskaraz erregistratzeko kanpaina jarri du abian. Etxahun Iturriotz Arando aretxabaletarra izan zen euskaraz erregistratu zen lehen umea, 2007ko abenduaren 19an.

Ordutik hona asko izan dira Behatokira jo dutenak euren umeak euskaraz inskribatzeko helburuarekin, eta Bilbon, adibidez, lortu da. Debagoienari dagokionez, Etxahun aretxabaletarraz gain, badira Aretxabaletan bertan egin diren beste bi eskari ere, eta ikusi beharko da zer gertatzen den. Hori guztia kontuan izanda, haur jaioperria euskaraz inskribatzeko jarraitu beharreko prozedura azaltzen duen dokumentua prestatu du Behatokiak, eta beharrezkoak diren formularioak ere eskuragarri ditu. "Seguru aski, oztoporen bat jartzen saiatuko dira, eta horrexegatik denboraz egiteko eskatu nahi diegu hala egin nahi duten gurasoei. Prozedura oso sinplea da, baina gainean egin beharko dugu, ondo egiten diren ikusteko. Bide beretik, esan behar da umea behin besterik ezin dela erregistratu eta horretarako epea dagoela jaiotzen denetik aurrera; beraz, komenigarria da jaio aurretik guztia lotuta izatea", esan digu Paul Bilbaok, Behatokiko zuzendariak.

BIDE LUZEA

Etxahunen gurasoek, Unai Iturriotzek eta Saioa Arandok, bide luzea egin behar izan zuten hori lortzeko, eta hainbat oztopo burokratiko gainditu behar izan dira. Hartara, umea jaio baino bost hilabete lehenago ekin zioten prozedurari.

Izan ere, 2005eko ekainaren 22ko 12/2005 Legeak inskripzioak euskaraz egiteko eskubidea aitortu arren, eskubide hori gauzatu eta bermatzeko mekanismorik ez dute abian jarri administrazioek. Are gehiago, argudio onartezinak erabili izan dituzte, Bilbaoren esanetan: legea garatu beharra dagoela, egokitzeko denbora behar dela, Euskararen Legea bera aldatu behar dela...

BESTE OZTOPO BAT

Erregistro liburu ofizialak katalanez eta galegoz ere badaude, eta, ondorioz, inskripzioak hizkuntza horietan ere egin daitezke; aldiz, erregistro zibiletako liburu ofizialak oraindik ez daude euska-

raz. Hortaz, beste behin, itxaroteko eta pazientzia izateko esan diete Behatokiko arduradunei administrazioetatik.

PROZEDURA

Ondorengo pausoak jarraitu behar dira:

1. *Eskaera* izeneko dokumentua ireki eta bete. Bertan, umearen gurasoen datuak eta umea noizko espero den idatzi behar da.
2. Dokumentuaren goialdean eskaera zein erregistrori zuzentzen zaion bete beharko da: haurraren jaiotza inskribatuko den erregistro zibila.
3. Dokumentu horretan euskaraz erregistratzeko eskaera egiten da.
4. *Eskaera* delako dokumentua bete ostean, bi kopia atera eta aitak eta amak sinatu behar dute.
5. Eskaeraren bi kopiei Bergarako erregistro zibileko epaileak emandako autoak erantsi: *Autoa* izeneko dokumentua.
6. Inskripzioa egiteko asmoa dagoen erregistro zibilera eraman eta sarrera emateko eskatu.
7. Erantzunaren zain egon. Erantzuna jaso bezain laster, harremanetan jarri Behatokiarekin eta bidali erantzuna faxez edo posta elektronikoz. Erantzunaren arabera erabakiko da zer egin.
8. Erantzunik jaso ezean, Behatokiarekin harremanetan jarri.

Hala ere, Behatokiak 2007ko abuztuan abian jarri zuen espedienteak ez zuten itxaroterik: "Izan ere, Etxahun abenduan jaiotzea espero zen eta eskubidea bermatzeko eskatu zuten gurasoek. Alegia, umeari ezin esan ziezaioken ez jaiotzeko, harik eta liburu berriak euskaraz egon arte", esan du Bilbaok.

Horrenbestez, eta hamaika alternatiba eta eskari aurkeztu ostean, lortu egin zuten umea euskaraz erregistratzea, eta horrek hurrengo umeak inskribatzeko aukerari ateak zabaltu dizkio, dagoeneko aurrekaria ezarrita dagoelako Etxahunekin.

Hala eta guztiz ere, Behatokiak dio argitu beharra dagoela inskripzioa erregistro zibileko liburu berezi batean egin dela. Liburu berezi horrek ofizialaren balio eta eraginkortasun juridiko bera dauka, erregistro zibileko arduradunak agindu baitu liburu egitea eta zabaltzea, haren baimen eta oniritziarekin egin baita inskripzioa euskaraz, eta erregistro zibileko legeak eta erregelamenduak babesten duelako inskripzioa modu horretan egitea.

Informazio gehiago lortu nahi duenak telefono zenbaki honetara dei dezake: 948 14 61 72. Gurasoei sor dakieken zalantzak argitzeko. Posta elektronikoz bidez ere: behatokia@behatokia.org. Behatokiak haurra izango duten gurasoak animatu nahi ditu seme edo alaben erregistroa euskaraz egiten dezan.

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

kontsumoa



Emantzipatzeak pobrezia dakar gazteentzako.

GOIENKARIA

26 eta 35 urte arteko gazteen erdiak pobre lirateke emantzipatuz gero

GOIENKARIA > BERGARA

Kataluniako Caixak egindako ikerketek ondorioztatu dute gurasoengandik emantzipatzeak 26 eta 35 urte bitarteko gazteen artean pobrezia ekar dezakeela. Horrek lau aldiz biderkatuko luke gaur egun adin tarte honetan dagoen pobrezia tasa. Espainiako Estatuan, hamarretik bat pobrea da. Neurritzko pobrezia batez ere nagusiengan du eragina (%31); pobrezia gogorragoak, berriz, gazteengan (%5,4). Gizarte bazterketa 16 urtez azpikoaren artean eta 65 urtetik gorakoen artean gertatzen da.

Emantzipatuei dagokienez, pobrea izateko arriskua %12,5 da. Baina 26 eta 35 urte bitarteko gazteak emantzipatuko balira, gizarte-bazterketa tasak %45era arte igoko lirateke. Horrez gain, alokairu edo hipoteka bat izanez gero portzentaje hori %57ra igoko litzateke, eta %81era igoko litzateke baldin eta bikotekidearekin bizi, seme bat izan eta batek bakarrik lan egingo balu.



Etxebizitzaren batez besteko hipoteka %2,5 jaitsi da

Etxebizitzentzat sortutako hipotekak jaisten jarraitzen dute. 2007ko azaroan 147.000 euro arte jaitsi zen, Estadistikako Institutu Nazionalaren (EIN) arabera. Halako hipotekentzat mailegatutako ondasuna pasa den azaroan 13.802 milioi euro izan zen. Bestalde, hipotekatutako etxebizitzaren kopuruak %14,96 egin zuen behera, 93.885 etxebizitzaraino. Aurrezki kutzak izan ziren hipotekazko mailegu gehien eskaini zituzten entitateak, guztiaren %58,5. Ondoren bankuak, %32.



Langabezia gastua azken 10 urteetako handiena da

Langabeen nominak ordaintzeko 1.408 milioi euro behar izan ziren joan den abenduan, azken hamar urteetako gastu handiena. Hilabete hartan 1.538.480 langabe zeuden Espainiako Estatuan. Gastua 2006ko abenduan baino %16,5 handiagoa izan zen. Gainera, urtarritako langabezia tasaren igoerak adierazten du langabeen laguntza ekonomikorako erabiltzen den diruak gora egingo duela 2008ko lehen hilabeteetan. Langabezia laguntza emateko epea orain sei eguneko da.

gure artekoak

SEAT LEON > Badira hiru urte Seat etxeak Leon berria merkaturatu zuela, eta, ordutik, oso ondo saldu da. Diseinu aldetik, asko gustatu den autoa da eta, batez ere gazteek -baina baita ez hain gazteek ere- erosi dute autoa.

Inma Gomez > Aseginolaza etxeko saltzailea

"Segurtasun sistema osoak egonkortasuna bermatzen du"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Seat Leon autoa samur saltzen den autoa dela esan digu Inma Gomez Aseginolazako saltzaileak: "Diseinu aldetik asko gustatu den autoa da. Gainera, segurtasun sistema guztiak ditu eta horrek izugarritzko bermea ematen du. Segurtasun sistema guzti horien ondorioz, egonkortasun handiko autoa da".

Diseinu erakargarria du autoak eta batez ere, gazteei zuzendutako autoa da. "Hala ere, hain gazte ez diren askok erosi dute", gaineratu du Gomezek.

MOTOR AUKERA ZABALA

Seat Leon Open-a dieselezko motor aukera bakarrarekin dator: 2.0 140 ZP. Baina modelo berak beste aukera batzuk eskaintzen ditu: Reference, Sport Limited, Stylance, Sport-Up, FR eta Cupra. Hauek motor aukera zabalak dute: gasolinazko sei motor (1.6 102 ZP, 2.0 FSI 150 ZP, 2.0 FSI 150 ZP Tiptronic, 2.0 TFSI 200 ZP, 2.0 TFSI 240 ZP DGS, 2.0 TFSI 240 ZP) eta dieselezko bi.

2.0 motordun autoek sei martxatatako kaxa dute eta, 1.9 eta 1.6 motordunek, berriz, bost martxetako kaxa.

Bost ate ditu autoak, "baina atzeko ateak bereziak dira: atea zabaltzeko heldulekua ez da ikus-



Inma Gomez, Seat Leon autoarekin.

A.E.

Seat Leon Open 2.0 TDI 140 ZP

| | |
|---------------|----------------------------------|
| Prezioa | 21.800 euro |
| Luzera | 4,31 metro |
| Zabalera | 1,76 metro |
| Maletategia | 341 litro ⁽¹⁾ |
| Kontsumoa | 5,7 litro /100 km ⁽²⁾ |
| Abiadura | 205 km/h ⁽³⁾ |
| Otik 100era | 9,3 seg. |
| CO2 isurketak | 154 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

ten, leihoko markoan sartuta dauka-eta. Horrek, itxura deportiboagoa ematen dio autoari", azaldu du Gomezek.

KRISTALEZKO SABAIA

Segurtasun sistemaz gain, beste hainbat ekipamendu ere badauka autoak: jarleku deportiboak, USB soinu sistema, 17 hazbeteko hagnak, kristal tindatuak eta kristalezko sabaia.

Ezaugarri horiek guztiak berezkoak ditu autoak, "bakarrik autoaren kolorea aukeratu behar du erosiak. Beste guztia prezioaren barruan dago", dio Gomezek.

etxeko leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Goienako kultura arduraduna

Kanpokoak izanda ere, bertakoen janzkerek

Aste bukaeran Eskoriatzara jende asko hurbilduko da. Arrazoia, Latzen, Governors eta Aby-Kem taldeen kontzertua. Orain eta lehen bat markatuko duen ekitaldia dela esatera ausartuko naiz; batetik, bakoitzaren gustu musikalak alde batera utzita, goi mailako ibarreko hiru musika talde izango direlako taularen gainean; bestetik, zapatu arrunt batean, lineako autobusak ibarrean gora eta behera goizaldera arte ibiliko direlako.

Autobusak beteko diren ez dakit, baina kontzertura doazenak autobusak erabiltzera bultzatu nahi nituzke, arrakasta izanez gero, zerbitzu puntual hori ohiko bihurtzeko erabakia har dezakete-eta.

Zerbitzu hori izatea, baina, nire ustez, ez da bakarrik gaurtxoriendako ona; etxean dauden guraso askok ere eskertuko dutelakoan nago, ez daude eta seme-alaben bila joatera behartuta.

Era berean, kursi samarra dirudien arren, gauetako autobus zerbitzuak *debapolis* sentimendua areagotzeko balio dezakeela uste dut; hirietako biztanleak ez al dira gauetan ere auzo batetik bestera ibiltzen?

"Arrakasta izanez gero, zerbitzu puntual hori ohiko bihur daiteke"

> **Euro bat eta erdi bidaiako Akaso garesti samar? Egia esan, sekula ez dut kalkulatu Eskoriatzatik Oñatira edo Eskoriatzatik Bergarara bitarteko gasolinaren kostua. Harritu egingo ginatekelakoan nago!**

> **Garai baten Oñatiko Udalak dirulaguntzak ematen zituen, besteak beste, Donostian ziren kontzertu erraldoietarako herriatik antolatzen ziren autobusak ordaintzeko. Gaur egun ez dakit aukerarik badagoen.**

begi-bistan



Labegaraietako biribilgunea (Bergara) 2008/02/05


Argazkia: Mireia Bikuña.
Testua: Mireia Bikuña.

Elorregitik Bergara aldera eginez gero, autobiderako lehen sarre-rako biribilgunean eskultura bat jarri dute. Labegaraieta parean egonda, burdinarekin zerikusia duen irudia aukeratu dute.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Jon Urtzelai

FUTBOL JOKALARIA



Fran Iturbe

MUSIKARIA



Gerardo Markuleta

IDAZLEA

Eibar futbol taldeko jokalarri oñatiarrak min hartu zuen Anoetako derbian, Diaz de Zerioekin izandako kolpe baten ondorioz. Hasiera batean larriagoa zela zirudien arren, badirudi aste bukaerako partidua jokatzeke moduan egongo dela.

Mikel Erentxunek Victoria Eugenia antzokian emandako kontzertuetan parte hartu zuen Bergarako gitarristak. Enrique Bunburyk, Amaia Monterok, Ivan Ferreirok eta Pereza taldeko Leivak parte hartu zuten Erentxunen agurreko emanaldietan.

Oñatiko idazlearen Asier eta egia gurutzatuen liburua izeneko argitalpena Zarauzko Udalak kaleratutako bi liburuetako batean argitaratu da.

1982tik 2005era Xabier Lizardi sari-keta irabazi duten narrazio guztien jatorrizko argitalpenak bildu dituzte.

Garzon epaileak oraindik ez du azken erabakia hartu EHAK eta EAE legez kanporatzeko prozesuan. Baina astea nahiko korapilatsua izan da bi alderdiotako kideendako: hiruna buruzagi inputatu ditu talde terroristari laguntza ematea leporatuta. Epaia zain, Bergarako alkate Agurne Barrusorekin berba egin dugu. Martitzenean Espainiako Azitegi Nazionalean izan zen.

Agurne Barruso > Bergarako alkatea eta EAeko hautagaia Espainiako kongresurako

"Inoiz baino garrantzitsuagoa da independentziaren aldeko botoa lortzea"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Aste erabakigarria da EHAK eta EAE hauteskundeetan egongo diren jakiteko. Martitzenean Garzon epailearen aurrean deklaratu zuten Madril. Han egon zen Bergarako alkate Agurne Barruso.

Madril, Auzitegi Nazionalean izan zineten martitzenean. Zer esan zenioten epaileari?

Iñigo Iruin abokatuak egin zuen EAEn defentsa, eta harekin batera Garzonen bulegora sartu zen Kepa Bereziartua, alderdiko presidentea. Hiru ordu iraun zuen saioak.

Hainbat arrazoi eman zituen Iruin abokatuak, EAEn kontrako neurririk ez dela hartu behar argudiatzeko. Alde batetik, EAEn eta Batasunaren arteko harreman politiko-instituzionala frogatu gabe dagoela azaldu zuen. Iruinek dio fiskalak bi ordainketa motari buruz hitz egiten duela: alde batetik, kreditu txartelen bidez egindako ordainketak; eta beste alde batetik, eskuz egindakoak. Txartelarekin egindako ordainketak Arnaldo Otegiaren, Fernando Barrenaren eta Joseba Permacharen txarteekin eginak direla argitu du defentsak. Hiru ere euren txartel pertsonalak erabili zituztela, eta inondik inora ez dela frogatu dirua EAEn jatorrikoa denik. Era berean, eskuz ordaindutako faktoretako diruaren jatorria ez dela argitu nabarmendu zuen. Hortaz, dirua EAEn dela esateko ez dagoela frogarik azpimarratu zuen.

Eta epaileak zer esan zuen?

Garzon epaileak talde terroristari laguntzea egotzita hiru lagun inputatu zituen: Kepa Bereziartua, Alazne Arotzena eta Antton Gomez. Batasunaren eta haren arduradunen alde dirua jarri dutela egotzi die hirurei, eta, gainera, aurrerago zehaztuko dituen beste egozpen gehiago egon daitezkeela esan zuen.

Aste honetan bertan Fernando Barrena atxilotu dute. Zer balorazio egiten duzu?

Fernando Barrena eta Patxi Urrutiaren atxilotetak Loiolako elkarrizketetako edukia zabaldu ostean etorri dira, eta hori ez da kasualitatea. Horrek garbi erakusten du PSOEren gobernuak izugarrizko beldurra diola Loiolan gertatu zena euskal herritarrok ezagutzeari. Hain zuzen, ezker abertzalearen eskaintza politikoa isilarazi eta baldintzatu nahi dute.



Argazkian, Agurne Barruso.

MIREIA BIKUÑA

Guk gauza bat garbi dugu: guretzat fase politiko berri honen helburua izan behar da egun bizi dugun zatiketa eta ukazioa gainditzea. Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideak bermatuko dituen marko demokratikoa eraiki behar dugu proiektu politiko guztiak, independentziarena barne, gauzagarri egingo dituen. Eta hain zuzen, helburu hori lortzeko xedez landu du ezker abertzaleak Marko Demokratikorako Proposamena.

Proposamena nazionala, erreala eta demokratikoa da, egungo egoeratik abiatuta gauza daitezke eta. Baina bide hori modu adostuan egiteko aukera izan bada ere, PSOEek eta EAJk ezezkia esan diote euskal herritarren eskubideak aitortu eta bermatuko dituen marko demokratikoa eraikitzeko aukera historikoari, gatazka behin betiko konpontzeko aukera historikoa zapuztuz.

Hau da, ezker abertzalea paretik kendu nahi dute, eta horregatik kolpatzen gaituzte, eta legez kanporatu nahi gaituzte. Azterketa politiko hori kontuan hartu behar da, egoera ulertzeko.

LEGEZ KANPORATZEA

"Ezker abertzalea paretik kendu nahi dute, eta horregatik kolpatzen gaituzte behin eta berriz"

Legez kanporatu edo ez, ezker abertzalea hauteskundeetan egongo dela aipatu duzue. Hala da?

Ezker abertzalea inoiz baino presenteago egongo da hauteskunde hauetan, eta herri honi independentziaren aldeko bozka bermatuko dio. Egundak, ez EAJk, ez NaBaik, ez besteek ez dute independentziaren proiektu politikoa defendatzen eta ordezkatzeko. Horregatik, iruzurrei aurre egiteko, benetako orube demokratikoa eraikitzeko, Euskal Herria badela esateko, independentziaren aldeko bozka beharrezkoa izango da.

Ze mezu zabaldu nahi diezue hautesleei?

Uste dugu inoiz baino arrazoi gehiago dituela herri honek independentziaren aldeko hautua egiteko. Azken erasoek garbi erakusten dute Espainiak, edo PSOEek eta PPK, herri honetazko ze eskaintza duten: Espainiako Konstituzioa eta errepresioa. Kateak hausteko ordua iritsi da, eta euskaldunok zer izan nahi dugun garbi adierazteko. Horregatik guztiagatik, inoiz baino beharrezkoagoa da independentziaren aldeko botoa ematea, hori baita herri honek duen boto baliagarri bakarra.

EHAK eta EAE legez kanporatzaren aurrean isilik egotea oso larria dela esan zuen Nekane Erauskin EHAKko legebiltzarkideak. Ibarretxe lehendakariarekin elkartu da, baina ez zen gustura irten bileratik.

Prentsan horixe irakurri dut, eta ez ninduen harritu Ibarretxek konpromisorik hartu nahi ez izateak. Eraso hauek guztiak ezin ditugu ulertu EAJ eta NaBairen laguntza eta babesik gabe. Beraiek ere nahikoa da esango balute, PSOEek ez luke bidea hain libre edukiko egiten ari den guztia egi-

teko. EAJk ez du ezer egingo gure legez kanporatzea saihesteko; azken egunetan horixe entzuten ari gara Andoni Ortuzar eta Iñigo Urkulluren ahotik. Haiek dagoeneko mozorro guztiak kendu dituzte, eta legez kanporatu gura gaituztenekin elkartu dira. Gainera, ezin dugu ahaztu herri honetan legez kanporatze asko egon direla, eta beste alderdi guztiak, Alderdi Politikoen Legeaz baliatu, eta herritarren borondatearen aurka ari direla instituzioak kudeatzen.

EAE legez kanporatzen badute, zer gertatuko da agintean zaudeten udaletan? Eta zuen karguekin?

Printzipioz, badirudi gu talde mistora pasako ginatkeela eta legez kanporatzeak ez lukeela gure karguetan eragingo, karguak pertsonalak dira eta. Hortaz, guk berdin-berdin jarraituko genuke udaletan lanean, baina, besteak beste, alderdi politikoez jasotzen dituzten asignazioak jaso gabe. Baina oraindik agian goizegi da halako zerbait esateko, ikusita nolako erabaki politikoa hartzen dabilzan.

Zer balorazio egiten duzu orain arte ibarreko EAeko alkateek egindako lanaz?

Herriak esan behar du nola baloratzen duen egiten ari garen lana. Agindutakoaren arabera lanean ari garela esango nuke, udalak herritarrengana ireki ditugula eta haiekin elkarlanean ari garela. Dena den, herritarrek zera jakin behar dute: egun bizi dugun egoera ez demokratiko hau oztopo dela gure lanean. Baina, oztopoak oztopo, lanean segitzeko borondate osoa daukagu.

18/98 epaiaren moduan aurretik hartutako erabakia dela uste duzu? Erabaki politikoa izan da?

Duda barik, bai. Gobernuak kosta ahala kosta bukatu nahi du ezker abertzalearekin eta sumarioak eta epaiak eraikitzen ari dira gure kontra. Askotan esan dugu alderdiak legez kanpo utz daitezkeela, pertsonak kartzelara daitetzkeela, baina proiektuak eta ideiak ezin direla espetxeratu. Badakigu milaka eta milaka herritar daudela lekukoa hartzeko prest, gure proiektu politikoa herri honetan oso sustraituta dago eta. Garbi dago herri honen oso konprometituta gauden sektorea garela.



zabalik

Maite Aristegi

Elkarlanaren indarra

Euskal Herriaren askatasun gose ere etsi nahixan egunotan inoiz baino bortitzago eta suntsitzailago datorren zehar haize illegalizatzaile petralaz bigundu, beste haize emankor eta erakitzaile baten lastana dakarkiguten baserri munduko bi kontutxo aittatu nahi dotzuet.

Iparraldeko laborarixak ereitten diharduten elkartasun hazia batetik: baserri bakar bat be ez dadin galdu, argi izanda esku-aldaketia emoteko orduan, etxian jarraitzailerik ez dagonian, betiko baserriaren alde jardun nahi dabenari lagundu behar jakola, (eta ez Kako baserriaren kasuan administratzaileak nahi zaban moduan), baketsu baina tinko, bat eindra, bere aurrian plantau dira, "intentsifikazina ez da bidia; emon aukeria baserri iraunkorraren alde dagon Larrañagari, berari duintasunez bizitzeko aukera emoteaz gain, natura eta kontsumitzaileak errespetatuko dituen produktino eredu baten dihardu eta!". Eta Sarkozy bera be moskeau egin da, errepresina erabiltzeraino. Ze demontre gero laborari hauek! Izan be, berak ezin jakin noraino ailegau ahal dan elkartasunaren indarra, eurak dominau ezin daben bakarra!

Bestetik, domeka hontan Durangoko hiltegia berriz zabaldu zaneko lehen urtea ospatuko da. Mobilizazio jendetsuei esker hiltegia beharrezkoa zala erakutsi zebe baserriarrek, eta oin dala pare bat urte ezinezkoa emoten zaban arren, gaur egun errealtate sendua da. Eta gehixen lagundu behar zaban administratzaile aurka euki arren, lortu da, elkarlanaren bitartez, zerbitzu publiko integral bat mantentzia, ganaduzaleengan ilusina sortzia, janari subirauntan urrats txiki bat emotia... Orain, Oñatikoarekin be, bide bera jarraitzia dagokigu, eutsi eta indartzeko!

Gure Herriaren erakitze lanetan bi adibide baino ez. Baina arlo hontan zein bestetan, ez da beste biderik; ez dago ta haize antidemokratikorik, elkarlanaren adreilu txikixokin jasotakua botako dabenik!

"Iparraldeko laborarixak ereitten dihardute elkartasun hazia"

"Ez dago haize antidemokratikorik, elkarlanaren adreilu txikixokin jasotakua botako dabenik"

herritarrak galdezka

LIBIRUXKA ETA KANTU ETA JOLASEN DVD-A

Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek eta Mankomunitateak Gurasoentzako aholkuen liburuxka eta Kantu eta Jolasen DVDa banatuko dute. Galdera helarazi digun irakurleak jakin nahi du sorta eskuratzeko aukerarik ote duen. Izan ere, sorta hori bailarako 4 urteko ume eta haiengurasoei zuzenduta dago eta hark nagusiagoa du.

Arrasateko Euskara Zerbitzuko ordezkarien arabera, sorta hori urtetik urtera banatuko dute; hala, hiru urteko umea duenak datorren urtean jasoko du. Nagusiagoak dituztenen kasuan -galdera egin duen irakurlea bezala-, eskaria bideratu beharko du euskara zerbitzura. Zerbitzu horrek jasotako eskariak aztertuko ditu, eta horren arabera hartuko du erabakia.

Ekimena abiatu zenetik, 2006. urtean, 4.000 sorta banatu dira ikastetxeetan eta herrietako aisialdi taldeetan.

DVDaren helburua da gurasoei umeekin euskaraz jolasteko aukera eskaintzea. Normalean,

gaur egun, adin horretako umeak dituzten gurasoek, nahiz eta euskaldunak izan, jolas eta abesti gehiago ezagutzen dituzte gaztelaniaz, eta gabezia horri aurre egiteko aukera eskaini ahal izateko egin dute DVDa. Abestiak laburrak direnez, guraso erdaldunek ere ez dute zailtasun handirik izango ikasteko.

Kaxa barruan bi liburuxka daude, DVDaz gain: bata, grabazioan jasota dauden jolas eta kan-

tuen gaineko informazioarekin osatu da. Bestea, *Biharko euskara gaur-Su futuro euskara desde hoy*, bereziki gurasoei bideratutako liburuxka da: hizkuntzarekin lotutako aholkuak jaso dituzte, ele bitan.

HAURDUN DAUDEN EMAKUMEENDAKO SEGURTASUN UHALAK

Arrasateko irakurle batek galde-tu ditu ea oraindik ere Arrasateko udaltzainek haurdunendako segurtasun uhalik ote daukaten.

Arrasateko udaltzainburuak esan du baietz, oraindik ere badutela zerbitzu hori. Segurtasun uhalok dira haurdun dauden emakumeak autoan erosoago joan ahal izateko. Arrasateko Udalak duela pare bat urte eskuratu zituen halako uhalak eta 40 euroko fidantza ordainduta aloka daitezke, Udaltzaingoan. Itzultzerakoan bueltatu egiten dute fidantza.

Udaltzainburuak gehitu du eskaria handia izaten dela; hortaz, preferentzia dute herriko haurdunek. Dena den, ibarreko gainetako ez diete ezetz esango, uhalen bat libre egonez gero.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidalguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrakiz

Alex Ugalde



Beroaldia eta gero

Pello Urzelai
www.berria.info/blogak/pello

Hasierako erantzun beroa epeldu dute burukide jeltzaleek. Atutxa auziko zigor epaiari tonu altuan egin zioten kritika hasiera batean. Inigo Urkullu EBBko lehendakariak epaia ezagutzeko egin zuen adierazpenean, adibidez, honako esaldia zegoen: "Une honetatik aurrera, EAJ ez da bere instantzia judizial gorenetan eskuin

muturreko ideien eta taldeen gotorleku bilakatu den justizia batek ordezkatuta sentitzen. Ez hori bakarrik, euskal herritarren gehiengo handia ere justizia horrek ordezkatuta sentitzen ez dela uste du EAJk". Baina Bilboko manifestazioaren ondoren, nabarmen moteldu zuten kritikaren tonua. Urkulluk eta Azkaratek argitu nahi izan zuten kritika epaile jakin batzuen kontrako zela, ez sistema judizialaren kontra. Badirudi ohartu zirela hasierako adierazpenen ondorioez. Eta, hauteskunde atarian, hobetsi zuten ez ematea hain irudi erradikala.

Baina egoera politiko honetan, zaila da jarrera politiko orekatu eta neurtuari eustea, bederen gutxieneko koherentziaz jokatu nahi bada.

Mugikorra: ikasle histerikoa eta perbertsoa

Markos Zapiain
www.eibar.org/blogak/zapiain

kastetxearen egiturak eta funtzionamenduak nerabea egunean zazpi orduz modu

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saietako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirrola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredaktzioa Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larratiz Zeberio, Arribu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldigi Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martín, Itxaso Berezibar, Fausto Berazadi Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaleta
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzakako
Udala

plazara

Iñaki Badiola komunikatzaile abila iruditu zitzaion hasiera batean Gorka Etxaberi; orain, baina, haren komunikatzeko estiloari

"kutre" deritzo. Etxabek bederatzitzi urte darama Alaves taldearen partiduetan *speaker* lanak egiten, eta Piterman polemikoa bertatik


bertara ezagutu zuen; Badiolari Pitermanen antza hartzen dio. Badiolarekin ilusioa piztu zitzaion, baina hilabetean galdu egin du.

Gorka Etxabe *

Badiolaren estrategia arriskutsua

Estrategia arriskutsua aukeratu du Iñaki Badiolak. Inork ez dio ukatuko estilo ezberdina duenik, baina arriskutsuegia da. Hobe izaten da bidelagunak egitea eta ez, ordea, arerioak nonahi egitea. Zakarra, harroa eta estilo gutxikoa iruditzen zait. Komunikatzaile abila zela iruditu zitzaidan hasieran; orain, bere komunikatzeko estiloa kutrea iruditzen zait. Eta horren adibide, oraingo astean egindako prentsaurrekoa. Zenbait kazetariren kontrako deskalifikazioak egin ditu, Aiestaranen eta Olivaren kontra sekulakoak esan eta Salva Iriarteren kontra berriro gogor agertu da. Aiestaranen kasua da gehien harritu nauena. Ez dakit zer gertatu den Aiestaran eta Badiolaren artean, baina orain hilabete bata zen bestearren proiektuaren bermerik onena. Orain txantaje egile bat da, sekulako dirutza eskatzen ziona. Diru hori hasieratik eskatuko zion, ezta? Eta orduan konforme zegoen Badiola, ala? Eurek biek bakarrik jakingo dute zer gertatu zaien, baina eskaintzen ari diren irudiak ez dio onik egiten gure Realari. Niri galdera bat dator kit burura. Zergatik egin zion kasu Badiolak Aiestarani honek esan zionean Irureta ez zuela nahi? Eta zergatik ez zion kasurik egin Oliva nahi zuela esan zionean?

Alaves taldean bederatzitzi urte daramatzat eta ez dut esango zeinen itxura hartzen diodan Badiolari. Hark ere, etorri zenean, berak agindutako kirol zuzendaritza ezarri zuen, futbolari onak fitxatu zituen (Bodi-



MIKEL ARROIABE

po, Nene...), gainerako euskal taldeetako presidentekin harreman ona edukitzeko desioa erakutsi zuen, neurri popularrak hartu zituen eta lehenengo hilabeteak ez ziren txarrak izan. Gero badakigu zer gertatu zen; kazetarien, zaleen eta Arabako instituzioen kontra agertu zen behin eta berriro. Eta sekulako zorrak utzi zituen. Alegia, Alaves desagertzeko zorian utzi zuen. Badakit hori ez dela gertatuko Realean, akziodunek ez diotelako utziko. Baina, orain arte egindakoarekin, Badiolari Pitermanen antza hartu diot. Nahiko nuke oker ibili eta Badiolaren garaia azken urteetako onena izatea.

"Zakarra, harroa eta estilo gutxikoa iruditzen zait. Komunikatzaile abila iruditu zitzaidan hasieran; orain, kutrea"

"Argi dut taldea hobeto zegoela orain hilabete, Chris Colemanek taldea zuzentzen zuenean"

Mugimenduetan ere azkarra da. Hori ere ez diogu ukatuko Badiolari. Bost jokalar berri ekarri ditu hilabetean. Ez dira alde aurretik agindu zituenak, baina jokalar onak izango dira, eta diot izango direla, nik ez ditudalako ezagutzen. Alberto Morgado eta Pep Marti bakarrik ezagutzen ditut, eta horiek, behintzat, onak dira. Gainerakoak, ikusi behar. Baina argi dut taldea hobeto zegoela orain hilabete, Colemanek taldea zuzentzen zuenean.

Eizmendiri ere etorkizunik onena opa diot, baina hurrengo bi partidua irabazten ez baditu eta Realak azken bi partiduetan eskaintako itxura baino hobea erakusten ez badu, beasaindarrak ez du gehiegi iraungo aulkian. Ez zuten hasieratik aukeratu eta ez da zuzendaritza serio baten erabakia, partidu on baten ondoren entrenatzaile izendatzea. Kordoban Realak partidua irabazi ez balu nor izango zen entrenatzailea? Hori da nire buruari egiten diodan galdera. Berak ez du errua, kargua eskaini ziotelako eta aukera paregabea ikusi zuelako, baina, beharbada, ez da izan bere erabakirik onena.

Berriro diot, nahiko nuke kontrakoa gertatuko balitz. Baina baikor egotetik ezkor egotera igaro naiz hilabete batean. Ilusioa edukitzetik galtzera pasa naiz. Juan Larzabalen estiloa faltan botatzen hasia naiz.

*Gorka Etxabe, kazetaria da.

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Abortua legeztatu behar da?

| | |
|-----|-----|
| BAI | %75 |
| EZ | %25 |

> DUDA BARIK

Nik ez daukat dudarik: bai, legeztatu egin beharko litzateke. Eta ez diezadala inork esan emakumearen-dako oso gogorra dela, depresioan erortzeko modukoa... eta beste halako beste perlaren bat. Depresioa baino lasaitu ederra hartzen dutela esango nuke nik.

Amaia

> ZALANTZAK DITUT

Uste dut biren arteko gauza dela, bikoteko bi kideek erabaki behar dutena. Dena den, ados jarri ezean uste dut emakumeak izan beharko lukeela azken hitza. Haurdunaldia sufritu, gozatu, bizitu... behar duena bera den heinean, erabakitze eskubidea ere hari dagokio. Objektiboak izanda, gizonezkoak ikusle hutsak besterik ez gara.

Aitor

> EZ, EZ ETA EZ

Beti egon naiz, eta egongo naiz kontra. Karmentxu

DATORREN ASTEKOA: Zer deritzo zu Mundumira jaialdiari?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

guztiz antinaturalen eserita eta lezio sarritan aspergarriak nozitzera behartzen dute. Erakundera moldatuko bada, nerabeak bere gorputza neurri batean gaixotu egin behar du, zakar zalapartaria izan daitekeen bere izaerari uko egin.

Irakasleontzat askoz ere erosoagoa baita ikasle triste eta mutua alai jostaria baino, gero ideologikoki pozaren alde egon zaitezkeen arren.

Halatan, eta mugikorra kontuan hartuz, ikastetxera moldatu behar bortxazko horren ondorioz, talde bitan sailka litezke ikasleak: batetik histerikoak; bestetik perbertsoak.

Ikasle histerikoak ikastetxek dakarren botere harremana onartu eta onarpen hori muturreraino darama. (...) Edozein histerikok bezalaxe, ikasle histerikoak harreman zuzena bilatzen du maisuarekin. Maisuarekin elkartu nahi du, ondoren menperatu eta maisuaren errege edo erregina bilakatzeko. Ikasle histerikoari mugikorra ez zaio gehiegi axola, garrantzitsuagoa zaio irakaslearen gain izan dezakeen agintea ziurtatzea, edozein bidetatik: irakaslearen arretaz jabetzea, irakaslearen ametsetan sartzea eta irakaslea akaparatzeko. Hau da nota

10eraino altxa diezaion tematzten den ikaslea, nahiz 9 atera.

Aldiz, ikasle perbertsoaren erantzuna erakundearen larde-riaren aurrean autistagoa da, ez da inplikatzeko. Nota ez zaio larregi axola, aski zaio aprobatazen joatea. Irakasleak bere bihotzeko segapotoarekin bakean utz dezan nahi du. Zeharo bat eginik bizi baita *game*-arekin, *play*-arekin, mugikoa-rrarekin, eta beretzat irakaslea saihestu beharreko mamu mehatxatzaile bat izaten da, masturbazioaren ordezkotako den bere jolasik gogokoenaren ttikitaka ttikitaka deliziosa etetera datorren tirano gogaikarria.

koplak

Eñaut Uriarte

Mexiko lindo

Oin astebete entzun giñuan sekulako kontzertua. Urtero ezberdin egitiarren dute kriston meritua.

Ederto asko atera ziren Frontoi aurrera jotzera Bergarako orkestra zein banda profesionalen antzera.

Aurtenguan be ipini zebeñ hauek girua ta festa. Hobiagoik egin ahal leiken horixe da nere kezka.

Antzezle gisa talde eder bat primeran eitten zebilen Leiren ahotsan bezelakoik ez zen entzungo Madrilen.

Igorren pistolak ere akats bat nabarmena izan zuen bang bang esan zebeñ ozen eta denok barre ein genuen.

Kopla hauekin eman nahi dotset eurei deneri eupada. Hurrengo urteetan segi dezaten gu hola animatzen bada.

Ilegalizazio mehatxuaren aurrean udaberria!

Arkaitz Biain (Arrasateko EAE-ANV)
Arrasate

Urtebete ere ez da pasa udaberriaren lore koloretuek Euskal Herria margotu zutenetik, maiatzeko hauteskundeetan Ezker Abertzalerik gabeko eszenatokirik posible ez zela frogatu zen 200.000 bozka baino gehiago lortuz. Herri askotan udaletara bueltatzea lortu badugu ere, ezin dugu guztietaz berdina esan, horren lekuko baitira, besteak beste, Aretxabaleta, Ondarroa nahiz Lizartako kasuak. Hau guztia, interes politikoen arabera diseinatu eta ezarritako "lege" deitzen dioten tresna erreprentiboaren bitartez aurrera eramandako estrategia izan da, zerrenda ugari legez kanporatu eta hainbat kargu lapurtuz.

Baina egunak joan egunak etorri, negua iritsi da, eta neguarekin batera Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeak gertu ditugun honetan, espainiar gobernuak beste behin ere, eta botoen kalkulu matematikoa betiere buruan izanik, Ezker Abertzalearen aurkako makineria martxan jarri du, euskal gatazkaren konponbideari oztopo berri bat ezarri. Hauteskunde hauetarako, Euskal Herriaren independentziaren aldeko hautua egiten duen alderdi bakarra, EAE-ANV, jomugan jarritz. Ezin dira aipatu gabe gelditu "beraien erakundearen alde" ahotsa altxatzen duten ustezko alderdi independentistak. Beraien bozkatzaileez ere trufatuz, EAE-ANVren legez kanporatzearen aurrean, komunikabideetan ardura aurpegiak azaldu eta esaldi borobilak esateaz gain, ezer gutxi egingo dutenak eta bide batez legez kanporatze horretaz ere baliatuko direnak.

Baina oztopo hauek ez dira nahikoak izan eta ez dira nahikoak izango, ideien aurka egiteko; alderdiak, erakundeak, izenak nahiz zerrendak legez kanporatu arren, ez baitute lortuko ideiak legez kanpo uzterik. Bizi dugun egoera erraza ez dela argi eduki arren, argi daukagu ere zeintzuk diren konponbidetako urratsak eta honen alde lanean jarraitzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horrenbestetan aipatzen den, baina egunetik egunera bere esanahiak zentzu gehiago hartzen duen Pablo Nerudaren "lore guztiak moztu ditzakete, baina ez dute udaberria gelditzerik

Gora, 1990eko kintoak eta... kintak!

Juanma Pagaldai > Eskoriatza

Urtero, Eskoriatza eta inguruko herrietako mutilak irteten dira gure plazetara, euren dantzekin antzina-ko ohitura zaharrak gogoratuz. Aurten, ordea, Gadea eta Eli, ohitura honetan parte hartu duten lehenengo neskek, han izan dira.

Dena oso ondo joan zen: entsegua ondo eginda. Eli, Gadea eta mutilei banakoa txukun atera zitzaizkien. Ondoren plazara irten ziren neskek ere dotore jantzita zihoazen, arin-arina eta fandangoa behar bezala dantzatzuz. Txistularien laguntzarekin, noski. Batzuek aurreikusten zuten txistu edo eta "kanpora" ulurik ez zen inondik inora entzun. Hori bai, txalo zaparrada zirimirian geratu zen, eskoriatzarrok ez baikara berotasun handikoak. Hala ere, batzuek neskek "zer egin behar zuten" oso klaru zeukaten.

Batetik, "tradizioari heldu behar zitzaiola" esaten zutenak. Kanibalismoa, erretzea edo eta gerrak gizakien tradizio zaharrenetarikoa dira, eta ez dut uste gure artean horiei tinko heltzearen alde jendetza handirik dagoenik. Gainera, tradizioak gizakien zaharberitze instinto berberetik jaiotzen dira. Gaur egungo tradizioak ere nonbait jaiotzen ziren, seguru asko Eli eta Gadea bezalako pertsona ausarten bihotzetan.

Bestaldetik, "neskak atera behar zirela" esaten zutenak. Banakoa mutilek bakarrik dantzatzearen aldeko jarrera defendigarria iruditzen zait, nahiz eta nirea ez izan. Zergatik hartu behar behar parte denok ekintza guztietan? Hori horrela bada, nik datorren jubilatuen bazkarian nire tokia nahi dut, nahiz eta 42 urte izan. Nire ustez, banakoa dantzatzera zeintzuk irten behar diren eskoriatzar guztien artean erabaki beharko dugu. Hori bai, erabakia ganoraz hartu ezker, ez dadila inor etorri zer "egin behar den" esatera.

Beno, ba. Datorren domekan han egongo dira berriz Santa Agedako neska-mutilak, eta inguruan eskoriatzarrok. Utzi dezagun gure burugogorakeriak etxean, eta goazen gaztetasuna eta udaberriaren gertutasuna gogoratzen duen jaia ospatzera. Azken batean, gizakiaren eta naturaren zaharberitzean dago gure itzaropena.

izango" esaldia hartuz, urtarorik hotzenez, udaberri berri bat loratzera animatzen zaituztegu, datozen egunetan izango ditugun mobilizazioetan parte hartuz, eta guztion artean independentziaren aldarriarekin herrietatik indarra eginez.

Ama lurra gure gidaria

Klara Elkorobarrutia
Arrasate

Nire bizitzako maisu handi guztiengan pentsatzen dudanean, bat berezia da oso niretzat. Gur egiten diot begirune osoz.

Inoiz ere ez dit berehalako erantzukizunik ematen, pazientzia handiz itxoinen du eta denbora ematen dit, ulertze-prozesu baten ostean, erantzunok nigan arrotz senti ez ditzadan.

Zabala, loretsua, irudimentsua... da, eta haren sortzeko gaitasunak txunditu egiten nau, baina inoiz ere ez dit eskatzen nire gaitasunetik harat dagoen ezer. Handietan

handiena izaki, hark iradokitzen digu guztia, eta haren irudi izan nahi genuke denok.

Aldakorra, librea eta samurra da, baina, aldi berean, kontsekuentea, zentzuduna, bihozbera... Lasaitu egiten nau zalantza larrien aurrean eta, nola ez, ahuldadeetan. Biziki esku zabala da, dena du emateko eta ikasteko gose den oro hartzen du bere unibertsi-tate orojakile unibertsean.

Epaitu gabe erakusten du guztia, eta batasun-ikuspegia ematen digu, Unibertsoa izaki, gauzaki... guzti-guztien artean gizakia partaide txiki-txiki bat baino ez dela gogoraziz. Harentzat inor ez da gehiago, ez gazteegia, ez zaharregia, ez odolberoia, ez motela...

Baketsua, egiazalea eta gidaria da, edonon eta edonoiz. Behar beste dakiela, beti prestu dago gure gidari izateko, eta bizialdi guztietan transmititu ahal digu bere jakinduria, apaltasun osoz. Benetako gogoz, errespetuz eta bakoitzaren erritmoan, guztiokin konpartituz bere jakinduria eta bere energia. Gainera, lanerako bide ere bada, eta jolasera-

ko, abesteko, dibertitzeko, isiltasuna konpartitzeko...

Hain ondo ezagutzen nau, ezen batzuetan jaitsi egiten dudana nire kontenplazioko begirada arretatsua, eta hain gutxi ezagutzen dut, ezen beldurra sentitzen dudana. Baina, bere xarmak eta dotoretasunak laztandu egiten naute, eta meditazio sakonean sartu.

Bizitza arakatzeko aukera ematen dit, dena delakoa hausnartuz, eginez, emanez, jasoz... txunditzeari utzi gabe.

Liluratzten nauten misterioen dimentsioaren jabe da eta Goethe-k ondorengo zitan adierazi zuena sentiarazten dit: "Pentsatzen duen pertsona baten zorionik handiena ulergarria dena arakatzeko eta ulergaitza dena bakean gurtzea da".

Gura al duzu maisu aparta horren helbidea? Bertatik bertara duzu: ama lurra.

Ez dezagun hondatu. Ez dezagun tonaka zementuz, asfaltuz eta plastikoz bete. Ez dezagun ahaztu zorionik, bakerik eta maitasunik ekarriko ez dizkiguten gauzen truke.

Politikariei eskatzen diet aurre egin diezaiotela beren ego suntsitzaile bezain usteltze-ari. Nola? Denbora batez, ordu batzuetan, isil-isilik mendi ederren unibertsoari so eginez. Horrela bakarrik ulertuko dute mendiek ere beren eskubideak dituztela, eta inork ezin dituela zapuztu. Ez dezagun ahaztu gure gorputzaren, buruaren eta espirituaren osasuna gure inguruaren edertasunaren arabera dela.

Ez, Abiadura handiko Trenari (AHT), proiektu handiguratsua eta suntsikorra delako.

Kultura eskaintza Debagoienean

Mikel Errasti
Aretxabaleta

Gure bailarari buruz hitz egiterakoan, bailara industrial bat bezala ikusten dela dio jendeak, non lana eta dirua barra-barra dabilzan, Euskal Herriko beste eskualde batzuekin konparatuz (Nerbioi ibaiko ezkeraldea, adibidez).

Dena dela, jende askoren arabera, aberastasun hori ez da igartzen bailaran ematen den kultur eskaintzaz.

Udal zinema eta musika areto egokien falta nabarmena...

Nire ustez, hein handi batean, kritika hauek bidezkoak badira ere, lerro hauek idazterakoan, askotan oharka-

bean daukagun altxor kultural bat aipatzea nahiko nuke: liburutegiak.

Liburutegiak, bai. Zergatik? Jende asko dagoelako oraindik liburutegietara joaten ez dena. Zoritxarrez, batzuek irakurketa umetan eskolan liburu aspergarriak eta astunak irakurtzeko izandako esperientziarekin lotzen baitute.

Zorionez, irakurtzeak ez dauka aspergarria izan beharrik. Norberaren gusturako eta plazererako baizik. Aukeratzea besterik ez dago. Adibide bezala, *Karma* bezalako aldizkari anarko batetik hasita, gauza serioagoetaraino joan gintezke.

Gainera, liburuak aparte, eskaintza sekulakoa da; aldizkariak, egunkariak, komikiak, bideoteka, fonoteka eta edozein lan edo kontsulta egiteko, programa askorekin osatuak dauden ordenagailuak.

Eta guztia doakoa da.

Gainera, material berria lortzen eta eguneratzen egiten den lana ere, aipatzeko da.

Beno, eta gure bailarako liburutegiek, beren pareten artean, altxor kultural bizi bat gordetzeaz gain, beste gauza on bat daukate.

Bertako langileak.

Edozein zalantza argitzen laguntzeko beti prest egoten baitira.

Post-data. Orain dela urte gutxi Eskoriatzako liburutegian eta berriki Arrasatekoan egin duten lan ona ikusita, irrikatan nago Aretxabaletako noiz zabalduko duten (... eta ondoren Bergarako).

On egin irakurtzen ari zaren (edo ariko zaren) liburuari.

Gora, Aratusteak!

Ainhoa Arantzabal
Bergara

Joan zaizkigu Aratusteak. Ze ederrak. Herri guztietan. Gero eta jende gehiago moztortzen da, gero eta ahalegin handiagoa egiten dute udalek eta herritarrek ekintzak antolatzeke. Nagusi eta jaun eta jabe Aretxabaleta, gure eskualdeko Rio. Sekulako giroa beste behin domekan. Baita Mondragoen eta Bergaran ere, desfileekin... Eta herri txikienetan ere bai, txoko guztietan..., eskoletan ere sekulako lana guraso eta irakasleek, txikienek dotore dotore jantzita kaleak kolorez betetzeko. Mozorrotu gara, kaleratu gara, egin dugu parranda. Primeran pasatu dugu. Gora, Aratusteak! Datorren urtean gehiago..., jendeak Donostiara, Tolosara edo Eibarrera alde egin ez dezan.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Haur eta
Lehen Hezkuntza
DBH
MATRIKULAZIOA

guztiona,
guztion artean

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Gatzaga/Eskoriatza

Luis Ezeiza Eskola
• Tel.: 943 71 49 38
Ate irekiak:
Otsailak 18, 17:00-19:00

Aretxabaleta

Kurtzebarri Eskola
• Tel.: 943 79 00 49
• bilera: Otsailak 19,
euskaraz: 18:00
gazteleraz: 19:00

Arrasate

Arrasate Herri Eskola
• Tel.: 943 79 20 69
• bilera:
(Bedoñabe) Otsailak 12, 18:00
(Musakola) Otsailak 13, 18:00

Aramaio

San Martin Eskola
• Tel.: 945 44 50 04
• bilera:
Otsailak 26, 18:00

Bergara

San Martin Agirre Eskola
• Tel.: 943 76 21 47
Ate irekiak:
Martxoak 1, 16:30

Antzuola

Antzuolako Herri Eskola
• Tel.: 943 76 62 68
Informazioa:
Otsailetik aurrera

Elgeta

Elgetako Herri Eskola
• Tel.: 943 76 82 26
• bilera:
Otsailak 19, 16:00

Oñati

Errekalde Herri Eskola
• Tel.: 943 78 07 64
Ate irekiak:
Otsailak 23, 16:30-19:00

BIGARREN HEZKUNTZA

Arrasate

Arrasate Institutua
• Tel.: 943 79 44 47
• Tel.: 943 79 20 38
• bilera:(Aramaio S. Martin Eskola)
Otsailak 26, 18:00
(Arrasate Musakola eraikuntza)
Otsailak 27, 18:00

Aretxabaleta

Kurtzebarri BHI
• Tel.: 943 79 57 40
• bilera: Martxoak 13, 18:00

Bergara

Ipintza Institutua
• Tel.: 943 76 31 42
• bilera: Martxoak 5, 18:30

Oñati

Zuazola Larraña Oñatiko BHI
• Tel.: 943 78 12 68
• bilera: Otsailak 21, 18:00

HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

Arrasate

Ferrerias 28
• Tel.: 943 77 11 72

Aretxabaleta

Markole 5
• Tel.: 943 79 88 50

Eskoriatza

Intxaurtxueta 20
• Tel.: 943 79 36 41

Bergara

Irizar jauregia.
Barrenkale 33, 2.
• Tel.: 943 76 44 52

Oñati

Zuazola Institutua
Aita Madina z/g.
• Tel.: 943 78 35 77

goieskola@euskalnet.net

www.goieskola.net

605 773992

goieskola

debagoieneko euskal
eskola publikoa





EGIN TXOTX! sagardotegietan



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 605 70 64 51

- Sagardoa eta txakolina txotxetik.
- Postreetan aukera zabalik.
- Ostegunetik igandera irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- Eserita. Jangela 100 lagunentzat.
- Bertako janaria.



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI

943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 27 20 / 608 14 33 32
rezolasagardotegia@euskalerrria.org

- Urte osoan zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldeak itxita.
- **“Tolare” sagardotegia**



Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 36 66 63

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urtarrietik maiatzera arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



Begiristain

Iturriotz baserria / IKAZTEGIETA
943 65 28 37
s.begiristain@terra.es

- Urtarrietik uztaile bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik
- Afariak astelehenetik zapatara, bazkariak egunenetik zapatara
- Sagardotegiko menua
- Arkumea burduntzian enkarguz
- **“Tolare” sagardotegia**



Añota

Elosiaga auzoa, 434 Urraki errepidea
AZPEITIA
943 81 20 92

- Urte osoa zabalik (oporrak Gabonetan)
- Bazkari eta afariak egunero
- 250 lagunentzako lekua
- Berezitasunak: zezina tortilla eta zezina arrautzeztatua
- Sagardo botilen salmenta
- **“Tolare” sagardotegia**



Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

- Urtarrietik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an eta 2006an irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan
- **“Tolare” sagardotegia**

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**
Artabilan, errepidea egokitu eta altzariak jarriko dituzte > 25



> **ARETXABALETA**
Sahararen aldeko krosa antolatu dute otsailaren 24rako > 32



> **ANTZUOLA**
Torresoroa izena ipiniko diote Sagasti auzoko gizarte etxeari > 36



> **ELGETA**
Jone Muxika: "Eskertzekoa da herriak omenaldia egitea" > 37

ARAMAIO > IKASTAROKAK

Emergentsietarako boluntario taldea osatzeko urratsak ematen dabilta

TEORIKORIK EZ

Zapatuko ikastaroa bertan behera utzi dute, euskaraz eman ezin dutelako

PRAKTIKOA

Hilaren 23an ikastaro praktikoa emango dute suhiltzaileek

BOLUNTARIO TALDEA

Emergentsietarako boluntario taldea osatzen dabilta

IKER BARANDIARAN > ARAMAIO

Bihar, zapatua, larrialdien aurrean zelan jokatu jakiteko ikastaro teorikoa egin behar zuten Aramaion. Udaletxean izan behar zuten, eledunendako, udal langileendako eta auzo alkateendako. Lauzpabost orduko ikastaroan, emergentsien aurrean zelan jokatu azaltzen dute. Hain zuzen, Jaurlearitzako larrialdien arreta eta zuzendaritzako taldekoek ematen dute ikastaroa.

ZAPATUAN, IKASTARO BARIK

Baina eguaztenean Jaurlearitzako arduradunek Udalera deitu zuten, esanez ikastaro teorikoa euskaraz ematea ezinezkoa zela, une honetan ez dutelako inor prestatuta horretarako.

Aramaio alkate Asier Agirrek Jaurlearitzako arduradunei erantzun zien Aramaion ikastaro hori euskaraz egin gura dutela, eta norbait prestatuta dutenean berriro deitzeko.

HILAREN 23AN, PRAKTIKOA

Baina, hilaren 23an, Gasteizko suhiltzaileek Aramaion eman beharreko ikastaro praktikoa ez dute kendu. Bigarren ikastaro hori, arlo teorikoa jasoko duten guztiendako izateaz gain, gura duten herritar guztiendako zabalik egongo da.



SUHILTZAILEEN GOMENDIOAK Hilaren 23an Gasteizko suhiltzaileek emergentsien aurrean zelan jokatu jakiteko ikastaro praktikoa emango dute.

XABIER URZELAI

BOLUNTARIO TALDEA HERRIAN

Hasiera baten, Jaurlearitzako larrialdien arreta eta zuzendaritzako arduradunek Zuiako Koadrila osoarendako ikastaro bat egin gura zuten, baina Aramaio-ko Udalak eskaera zehatza egin zuten udalerrian bat egiteko.

"Aspalditik pentsatuta geneukan interesgarria zela Udaleko arduradunok eta interesa zuten herritarrok emergentsien aurrean zelan jokatu ikastea. Horren aurrean, emergentsietarako

boluntario taldea osatzea pentsatu genuen; eta hau da ematen dugun lehenengo urratsa", azaldu zigun alkateak.

SUTEEN ARRISKUA EKIDITEKO

Jaurlearitzako larrialdien arreta eta zuzendaritzako arduradunek ondo hartu zuten Aramaio-ko Udalaren eskaera, eta ikastaroak udalerririk beharretara egokitzeari erabaki zuten.

Hain zuzen ere, Jaurlearitzako aramaioarrei zuzendutako bi

ikastaro antolatzea erabaki zuten. Lehenengoan, atzera bota duten horretan, asmoa da batez ere suteen gainean zelan jokatu behar duten erakustea, baina, horrez gain, uholdeen eta gai arriskuetsuen gainean arituko dira ikastaroa ematen duten egunean.

BOLUNTARIOENDAKO LAGUNTZAK

Bigarren ikastaroa, berriz, Gasteizko suhiltzaileek hilaren 23an emango dutena, praktikoa izango da, eta herritar guztiak zaba-

lik egongo da. Datorren astean emango dugu horren gaineko azalpen gehiago.

Bestalde, Jaurlearitzako larrialdien arreta eta zuzendaritzako arduradunek jakinarazi dute boluntario taldeak osatzeko laguntza ugari ematen dituztela. Besteak beste, Jaurlearitzak talde horiei mota askotako ekipamendua eskaintzen die: botak, magerak, walkie-talkieak, motozerrak eta udalerririk bakoitzean premia duten beste batzuk.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

| | | | |
|-----------------|-------------|-----------------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Domeka, 10 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 11 | Etcheberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 12 | Azkoaga | Ferrieras, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena, 13 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 14 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 15 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |

BERGARA

| | | | |
|-----------------|---------------|----------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 10 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 11 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 12 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 13 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 14 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 15 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |

OÑATI

| | | | |
|-----------------|-------------|-----------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 10 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 11 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 12 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 15 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

ARETXABALETA

| | | | |
|-----------------|---------|-------------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Fraille | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 10 | Fraille | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 11 | Fraille | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 12 | Fraille | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 13 | Fraille | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 14 | Fraille | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 15 | Fraille | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))
SOS DEIAK**

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

| | |
|--------------------------------|--------------|
| Osakidetza (Larrialdia)..... | 943 46 11 11 |
| DYA (Antzuola)..... | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria (Elorregi)..... | 943 76 55 76 |
| Suhiltzaileak..... | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza..... | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko ospitala..... | 943 03 53 00 |
| Antzuola..... | 943 76 62 23 |
| Aramaio..... | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 19 59 |
| Bergara..... | 943 03 54 00 |
| Elgeta..... | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Oñati..... | 943 03 54 30 |
| Udalzaingoak | |
| Antzuola..... | 943 76 62 46 |
| Arrasate..... | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 18 63 |
| Bergara..... | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Oñati..... | 943 78 04 11 |

GARRAIOAK

| | |
|-------------------|--------------|
| PESA..... | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate..... | 943 79 12 22 |
| Aramaio..... | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta..... | 943 77 12 64 |
| Bergara..... | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza..... | 943 71 40 59 |
| Oñati..... | 943 78 03 65 |

DEBAGOIENA

| | |
|----------------------------|--------------|
| Mankomunitatea..... | 943 79 33 99 |
| Hiltzgia (Zubillaga)..... | 943 78 15 12 |
| Nekazaritza ganbera..... | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa..... | 943 76 58 63 |
| Hondakindegi alternatiboak | |
| Arrasate..... | 943 77 11 43 |
| Bergara..... | 943 76 44 42 |
| Oñati..... | 943 78 36 67 |
| Kirroldegia | |
| Aramaio..... | 945 44 53 35 |
| Arrasate..... | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 26 28 |
| Bergara..... | 943 76 56 41 |
| Elgeta..... | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza..... | 943 71 53 28 |
| Oñati..... | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola..... | 943 76 60 65 |
| Aramaio..... | 945 44 53 74 |
| Arrasate..... | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 10 27 |
| Bergara..... | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza..... | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Oñati..... | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola..... | 943 76 62 46 |
| Aramaio..... | 945 44 50 16 |
| Arrasate..... | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 18 62 |
| Bergara..... | 943 77 91 00 |
| Elgeta..... | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Oñati..... | 943 78 04 11 |

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geraletuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Sorluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geraletuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ARMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|--|----------------|-----------------|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
| 08:30 | 09:00 | 08:05 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |
| Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23 | | |


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 9

Behe-lainoarekin eta izotzarekin esnatuko gara, baina geroa, eguratsa garden eta zeruan eguzkia nagusituko da. Giro atsegina eta gustagarria.




Domeka, 10

Zapatuko hego haizeari esker, eguna epel eta goxo hasiko da. Tenperaturak bere horretan jarraituko du, oso egonkor. Giro eguzkitsua eta ederra.

EUSKAL HERRIAN

Bihar egun eguzkitsua eta giro epela izango ditugu. Orduak aurrera egin ahala, hego ukitua izaten jarraitzen duen haizeari eta eguzkiari esker, termometroa 14-17 graduren bueltan ibiliko da. Etzi, berdintsu jarraituko du, giro epelarekin goizean goizetik; tenperaturak, epel.



oharrak eta deialdiak

OÑATI

> Mendi irteera antolatu du Errekalde eskolak

Oñatiko inguruneak ezagutzeko irteera antolatu du Errekalde Herri Eskolak etziraiko, domeka. Hamarretakoa eramatea gomendatzen dute. Plazatik abiatuko dira, goizeko hamarretan.

OÑATI

> 1983an jaiotakoak, sagardotegira

83an jaiotako oñatiarrak gonbidatuta daude sagardotegi batera irteera egitera. Otsailaren 23rako antolatu dute ekintza hori. Izena emateko azken eguna bihar, zapatua, da, Euskadiko Kutxan.

OÑATI

> Gaztetearen atxikimendu kanpaina

Oñatin gasteiz egitearen aldeko kanpaina ireki du gazte talde batek. Gura izanez gero, sinadura emateko aukera dago honako webguneetan: gastetxiabai.awardspace.com edo www.oi-natigaztetxia.creatufo.com.

ARRASATE

> Ludoteka biltaria Musakolan dago bihar

Txatxilipurdiren ludoteka biltaria Musakola auzoko San Antolin herri eskolan egongo da bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era. Martxoaren 1era arteko zapatuetan egongo da ludoteka Musakolan.

ARRASATE

> Ikastaroak egiteko aukera KZgunean

Honako ikastaroak izango dira: *Gimp Ieta II* (hilak 8 eta 11), *Zure egunkaria irakurri* (hilak 9), *Sinadura elektronikoa* (hilak 9), Justizia ezagutu ezazu (hilak 11) eta *Via Michelin-ekin bidaiatu* (hilak 11).

OÑATI

> Jonan Fernandezek hitzaldia egingo du

Gatazken ebazpena bizitzan pertsonal zein gizartearen delako hitzaldia egingo du Baketik bake-zentroko koordinatzaile Jonan Fernandezek eguaztenez, hilak 12, kultura etxean, 18:30ean, Elkar-Hezik antolatuta.

DEBAGOIENA

> Ate irekien jardunaldiak Arizmendin

Ate irekien jardunaldiak egingo dituzte honako egunetan: Haur Hezkuntzan, Aretxabaletan, Basabeazpin,

gaur, egubakoitza, 18:00-20:00; eta Eskoriatzan, Jose Aranan, gaur ere, 18:00-18:30.

ESKORIATZA

> Aratusteetako argazkiak, Interneten

Herritarren Aratusteetako argazkiak webgunean jarriko ditu Udalak. Ipini nahi duenak helbide honetara bidali behar du argazkia: kultura@eskoriatza.net.

DEBAGOIENA

> Posta bidezko botoa eska daiteke batzokian

Martxoaren 9ko hauteskundeetan posta bidez bozkatu gura dutenek hala eskatzeko aukera dute batzokietan, otsailaren 28ra bitartean, astelehenean egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara.

OÑATI

> 'Txokolatearen mundua' hitzaldi-tailerria

Anton Azpiazu Klaxk txokolateroen elkarteko kideak Txo-

TENPERATURAK

MINIMOA

Eguaztena, 30

-1 °C

MAXIMOA

Martitzena, 5

18 °C

ASTEKO

EURIA (l/m²)

35,3 L

| | Max. | Min. | Euria |
|----------------|-------|-------|-----------|
| Eguaztena, 30 | 8 °C | -1 °C | 8,7 l/m² |
| Eguena, 31 | 12 °C | 1 °C | 0,1 l/m² |
| Egubakoitza, 1 | 8 °C | 1 °C | 8,4 l/m² |
| Zapatua, 2 | 10 °C | 2 °C | 2,4 l/m² |
| Domeka, 3 | 12 °C | 0 °C | 12,4 l/m² |
| Astelehena, 4 | 12 °C | 3 °C | 3,3 l/m² |
| Martitzena, 5 | 18 °C | 3 °C | 0 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA OTSAILEAN



Ilberri

7

Ilgora

14

Ilbete

21

Ilbehera

29

kolatearen mundua delako hitzaldi-tailerria gidatuko du bihar, zapatua Errekalde eskolan, 16:30ean.

DEBAGOIENA

> Eskiatzera irteera egingo dute gaztelekukoak

Valdezcarayko (Errioxa) eski pistetara joango dira Eskoriatza, Aretxabaleta eta Antzuolako gaztelekukoak otsailaren 23an. Egun osoko irteera izango da. Prezioa 20 euro da, norberak bere materiala eramanda; bestela, 40.

ARRASATE

> Mediterraneoan itsas-bidaia, Abaroakoentzat

Abaroako bazkideek Mediterraneoan itsas-bidaia egiteko aukera dute irailean. Bartzelona, Ibiza eta Montecarlo ikusiko dituzte, besteak beste. Izenematea otsailaren 6tik martxoaren 6ra bitartean egin behar da, euren egoitzan.

ARRASATE

> 58ko kintoek (1937an jaiotakoak), ospakizuna

58ko kintoek batzarrera egingo dute martxoaren 8an; meza entzungo dute lehenengo San Juan Bataiatzailearen parrokan, eta gero, txikiteoa eta bazkaria izango dituzte Erreka jatetxean. Izena emateko, deitu Jose Riviereri (943 79 10 57) edo Pedro Fernandezi (943 79 02 48), martxoaren 2a baino lehen.

BERGARA

> Salburuara heagztiak ikusteko bisita gidatua antolatu dute etziraiko, domeka

Bergarako Mendia Bizirik Pol-Pol Mendi Taldeak Salburuara obserbazio irteera gidatua antolatu du etziraiko, domeka. Izena emateko edo informazio gehiagoarako, joan Pol-Polen bulegora, 19:00-20:30 orduetara (943 76 48 51 da argibide telefonoa). Rosa Agirrebena emango ditu azalpenak.

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Emakumeen berdintasunaren alde eman da pausorik?



Aitziber Aginagalde
Langilea
Aramaio



Miren Urizarren
Langilea
Aramaio



Izaskun Ormaetxea
Langilea
Aramaio



Paco de la Torre
Langilea
Aramaio



Bixente Lopez
Langilea
Aramaio

Eman dira, baina askoz gehiago eman daitezke: lan munduan, emakumeak jasaten dituen erasoetan... Horretarako, heziketa eta kontzientzia behar da. Baina orokorrean gizartearen errua da.

Nire ustez, asko eman dira; duela 20 urtetik hona, behintzat, bai, baina oraindik ere aldaketa gehiago behar dira. Izan ere, agente munduan oraindik ere gehiengoak gizonenak dira.

Batzuk eman dira, baina ez dira nahikoak. Oraindik ere emakumeok asko dugu lortzeko. Gaur egungo gazteek gehiago laguntzen diote elkarri. Emakumeok gaitasun handiagoa daukagu.

Nire ustez, gaur egun berdinarak gara. Gure etxean, behintzat, bion artean banatzen ditugu lanak, eta hori lehengo gurason artean ez zen gertatzen. Nik lanean arduraduna emakumea daukat.

Zerbait aldatzen ari da, baina oraindik ere falta da berdintasunera heltzeko. Etxeko lanetan badago berdintasuna. Batez ere jendea hezi behar da, denok berdinarak garela irakasteko.

5 galdera...

Sergio Moral

Raijin tatuaje dendakoa
Aretxabaleta

1. Zer-nolako zerbitzua eskaintzen duzu zure dendan?

Piercing-ak eta tatuajeak egiten ditugu. Batez ere tatuaje japoniarrak eta pertsonalizatuak. Horretaz gain, guk egindako margolanak ere saltzen ditugu, akriko edo olio egindakoak. Piercing bitxitegia ere badaukagu.

2. Jendeak zer-nolako tatuajeak eskatzen dizkizu?

Denetarik eskatzen digute. Baina orain modan jartzen ari da japoniarrak, eta, horixe denez nire espezialitatea, niretzat askoz hobeto. Jendeak nahi duena eskatzen du, nor bere gustuak ditu ez dago zerbait zehatza. Duela hiruzpalau urte tribala zegoen modan, baina orain denetarik. Hiriburuetako jendea, berriz, arraragoa da, hemen ez da egon eskaera bitxirik.

3. Jendeak modagatik edo konbentziturik dagoela ko egiten ditu tatuajeak?

Duela urte batzuk moda kontua zen. Orain, berriz, jendea konbentzituago dago; beti dago norbait modagatik egiten duena, baina gehiengoak konbentzitu dagoelako egiten du.

4. Tatuajeen mundua ondo araututa dagoela uste duzu?


Orain legea onartu dute, eta gauzak gehiago normalizatu dira. Hala eta guztiz ere, dendak ditugunok bete beharrekoak diren arau batzuk nahiko zorrotzak dira. Bestalde, klandestinitatean dihardutenen lana ez dago hain kontrolatua. Ikuskapen gehiago egin beharko lituzkete.

5. Eta tatuajea egiten duenari, zer-nolako zain-zuzenak gomendatuko zenizkioke?

Batez ere, higiena. Tatuajea ondo gelditzearen ardura erdia bezeroarena da. Horretarako, egunero bost aldiz garbitu behar du xaboiarekin, eta krema bat ipini. Horrekin batera, orbainak ez kentzea, kolperik ez ematea eta alkoholik eta drogarik ez hartzea.



txistuak



GOIENKARIA

Itsasontzia guztiz apurtuta Aratusteetan



Zapatu Aratuste-zapatuan Arrasaten gertatu zena salatu nahi du irakurle batek. Koadriak ume eta guzti kalean pasa zuen eguna vikingo jantzita eta zegokion itsasontzian bueltak. Afaltzera Uarkapera joan ziren, eta irten zirenean itsasontzia guztiz apurtuta topatu zuten Seber inguruan. Hala, galdera hau egiten du: Hau da Aratusteak girotzeko bidea?

asteko datua

20.293

Oñatiko turismo bulegoak eman dituen datuen arabera, joan den urtean 20.293 turistak bisitatu zuten herria. Eta, hain zuzen ere, jasotako bisitari horien gutxienez %51 euskal herritarrek izan ziren.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



ILARAN Cespako langileak eta makina berriak Herriko Plazan ilaran, martitzeneko erakustaldirako.

MIREN ARREGI

ZERBITZUAK > KALE GARBIKETA

Kalea garbitzeko makina berri eta isilagoak

Makina guztiak berri eta zerbitzua mekanizatu du Cespa enpresak: "Debagoienean puntako zerbitzua dago orain", arduradunen esanetan

M.A./U.M. > ARRASATE

Datozen urteotan udalerriko kaleak garbitzeko erabiliko dituen makinak aurkeztu ditu asteon Cespa enpresak. Izan ere, makineria guztia berri egin dute, eta horrek onurak ekarriko ditu.

Onura horien artean, bada bat herritar askok eskertuko dutena: makina berriek orain artekoek baino zarata txikiagoa ateratzen dute, batez ere, ura botatzen duen kamioiek: "Kamioiaren motorrak oso zarata txikia ateratzen du, eta uraren presioa indartzeko motorra guztiz intsonorizatu dago. Urak kamioiak baino zarata handiagoa egiten du", adiztera eman zuen Joseba Ansolak, Cespako ordezkaririk.

Eta, horrez gainera, nabarmendu zuen makinaren mekanizazioa handitu egin dutela, erren-

dimendu hobea lortzeko; esaterako, lau makina garbitzaile berrietan: "Horiek ordezkatzen dituzte orain arte langileek bultzatu behar izaten zituzten makina garbitzaile txikiak, oraingorak baino askoz ere zarata handiagoa ateratzen zutenak".

DATUA

10

MILIOI EURO

Maiatzean hasita, datozen zortzi urteotarako garbiketaren zerbitzua 10 milioi euro baino gehiago kostako da; aurten 1.150.000 euro bideratuko dituzte, Cespak herriko kaleak garbi ditzan.

Cespak azaldu zuenez, zarata txikiagoa sortzen dute haize makina berriek ere, hostoendako erabiltzen diren horiek.

Horrez gain, ekologikoagoak ere badirela aipatu zuten: "Adibidez, ura botatzen duen makinak ur-kontsumoa kontrolatu egiten du", azaldu du Moises Altunak, Zerbitzu Saileko teknikari buruak.

30 URTE ARRASATEN BEHARREAN

Cespa enpresa 70eko hamarkadan sortutakoa da eta hamarkada haren erdialde ingurutik dihardu Arrasaten lanean. Gaur egun, 16 langile ditu, eta makina berriak estreinatzeaz gainera, uniforme berriak ere estreinatu dituzte langileek aurtengo neguan: "Ikusgarritasun handia duen uniformea erabiltzen hasi dira, lan istripuak saihesteko legeak dioenarekin bat", argitu dute Cespakoek.

Orain, datozen zortzi urteotarako kontratua hitzartu dute Arrasateko Udalarekin, 10 milioi euro inguruko kostuarekin.

ZERBITZUAK > AFAGI ELKARTEA

Afagiren zerbitzuak gurean segituko du

Sendia elkarteak hartu ditu Afagiren lan batzuk; Afagik aholkularitza zerbitzua egiten du orain

U.M. > ARRASATE

Afagik -alzheimerre duten gaixoen senideen elkartearen zerbitzua aldatu du Arrasaten, Sendia elkarteak hartu ditu eta Afagik ematen zituen zerbitzu batzuk; psikologia, adibidez.

Hala ere, Afagik gurean segituko duela azpimarratu du Serapi Arantzabal ibarreko arduradunak: "Eguazteno gaude gure egoitzan (Arrasate Pasealekua 3, behea), 15:00etatik 18:00etara". Arantzabalekin batera, Donostiako Afagiko ordezkaritzako Nekane Larra-

ñaga gizarte laguntzailea egoten da. Orain, aholkularitza zerbitzua ematen dute: "Askok premia izaten dute norik entzun euren kontuak. Eta zalantzak ere izaten dituzte: gaixoa eguneko zentzura eraman, etxean zein aldaketa egin behar dituzten...". dio Arantzabalek.

Gogora ekarri du ere, ekainera bitartean, hileko lehen eguenean gaixoei laguntzeko lantegiak egiten dabilzala. Hurrengoa martxoaren 6an da; gaixoei nola komunikatu landuko dute, Kulturaten, 16:30ean.



EGOITZAN Serapi Arantzabal, Arrasate Pasealekuko egoitzan.

U.M.

> POLITIKA

Alderdien Legea eta salbuespen epaitegiak bertan behera uzteko eskatu du Aralarrek

Aralarko Arrasateko komiteak Fernando Barrena eta Patxi Urrutia Batasuneko kideak atxilotu izana salatu eta haien "berehalako askatasuna" eskatu du. Aralarren ustez, "ezker abertzale ofizialaren bozeramaile eta herri honen sentsibilitate politiko baten ordezkaririk direnak atxilotzea bidegabekeria judizial eta politikoa da". Aralarrek gaineratu du, besteak beste, atxilotetok, aurretik izan direnak bezalaxe, ez dutela inolaz ere laguntzen bake bidean.

> HAUTESKUNDEAK

Posta bidez bozkatzeko EAJren bulegoa zabalik dago otsailaren 28ra arte, batzokian

Euzko Alderdi Jeltzaleak jakinarazi du posta bidez bozkatu gura dutenek eskaera egin behar dutela alde aurretik. Hori egiteko egunak ere zehaztu dituzte: otsailaren 28ra bitartean, astelehentik egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara jo behar da batzokira.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

ad Ihabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



BARRENATXO ERROTA, atzeko aldean Polmetasaren eraikin berria eta Anboto mendia dituela.

MIRIAN BITERI

UDALA > OSOKO BILKURA BEREZIA

Barrenatxo errota lekuz aldatu beharko dute

Errota berritzeko proiektua ez du onartu Diputazioak; Udala aztertzen dabil posible den errotaren osagaiak beste leku batera eramatea

UBANE MADERA > ARRASATE

Barrenatxo errota ez dute orain dagoen lekuan utziko, Garagartzako errepide bazterrean dagoen errota konpontzeko proiektua ez du-eta onartu Diputazioak.

Emandako azalpenen arabera, batetik, errotaren atea errepide-ara ematen duen fatxadan dago, eta, eraikina berrituz gero, irisgarritasun arauak ezingo lituzkete bete, errepidea dagoelako.

Bestetik, Diputazioak dio "bisitariak errepidetik bertatik sartu beharko luketela eta puntu horretan ez dagoela oinezkoendako inolako babesik, ezta hori bermatzeko aukerarik ere".

Hori horrela, Udalak aztertu du ea posible den Barrenatxo errotaren osagaiak beste toki batera eramatea eta han eraikitzea. Halaber, hau ere erabaki du: "Egun eraikina dagoen tokian dagozkion aztarnak uztea, era-kusteko leku horretan errota bat izan zela garai batean"

2006ko maiatzean jaso zuen Udalak, Ibarretako plan partzialaren barruan, Barrenatxo mantendu egin behar dela. Gobernu Batzarrak gunen hartako urbanizazio proiektua onartu zuenean (06-12-04) erabaki zuen Polmetasako pabilioia eraikitzen dabilen San Andres Berri promotorearen lana izango dela Barrenatxo berritzea, hirigintza karga moduan.

AUZOTARREK GARAIA GURA

Barrenatxo errota Uribarri auzoan dago, eta eraikin txiki haren etorkizunarekin kezkatuta dade auzotarrek. Hain justu, Jone Bergaretxek, auzoko alkateak, jakinarazi du auzotarrek Udalarri proposatu diotela Barrenatxo-errotaren kokagune egokia Garaia litzatekeela, "LKS egiten dabil-tzan gunearen azpia, Erguin arrotik datorren errekararen urak pasatzen dira handik-eta; errota mugiarazteko beharrezkoa da

ura". Izan ere, auzotarren etorkizuneko asmoa da, errota birgaitu ostean, bisitariendako egoki ipintzea.

MENDIAZPI ZUBIA

Auzo alkatearen esanetan, proiektu hori eginez gero, gainera, Mendiazpi, Uribarri auzoko zubia, gordetzeko aukera izango lukete.

Berez, Mendiazpi zubia desagertu egingo da, Olandixoko tunelaren lanen eraginez, eta auzotarrek gurako lukete, ahal dela, hura gorde: "300-400 bat urte ditu Mendiazpi zubiak eta, gainera, Elorriotik ekarri zituzten zubia egiteko harriak, burdieten", azaldu du Bergaretxek. Horrela, auzotarrek proposatu dute hura lekuz aldatzea eta Erguin arroko errekararen gainean ipintzea, "eta haren aldamenean Barrenatxo ipintzea".

BARRENATXO ERROTA

Errotari dagokionez, antzinakoa da oso, "1.700 urte pasatxoan bada Barrenatxoren berri", dio auzo alkateak. "Inguruko mehatzeetatik garraiatzen zen mineralaren garbilekua zen". Gero bilakatu zen Barrenatxo errota, "ura hartzen zuen Barrenatxo malatutik".

LANA > DEIALDIA

Bi lan poltsa osatu gura ditu Udalak

Kiroldegirako atezainen lan poltsa eta Euskaltegiko irakasleen lan poltsa osatu gura ditu Udalak, hil honetan bertan

U.M. > ARRASATE

Musakolako kiroldegiko atezainen lan poltsa osatu gura du Udalak; orain dauden langileak gaixotzen direnean, oporretan daudenean eta halako kasuetan ordezkokoak izatea da helburua.

OTSAILAREN 28A

Interesa dutenek eskabideak Biztanleen Arreta Zerbitzuan edo Musakolako kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dituzte. Otsailaren 22ko 12:00ak baino lehen egin behar da hori. Azterketa egingo dute otsailaren 28an, 09:30ean, Musakolako kiroldegian. Gainditzen duten guztiak hartuko dituzte lan poltsarako. Azterketan, besteak beste, euskara, gramatika eta aritmetikaren gaineko frogak egingo dizkiete.

Aurkezteko, berriz, beharrezkoa da eskola ziurtagiria eta euskaraz ahoz berba egiteko gaitasuna izatea.

EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK

Bestalde, Euskaltegiko irakasleen lan poltsa ere osatu gura dute; kasu horretan ez da eskabide orririk aurretik aurkeztu behar, baizik eta interesa dutenek zuzenean aurkeztu behar dute, otsailaren 13an, 10:00etan, udaletxean. Euskara froga eta elkarrizketa egingo dizkiete.

Maisu-maistra ikasketak eta 3. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak dira aurkeztu ahal izateko.

BESTELAKO ESKAERAK

Oraingo astean iragarritako eskaera horiez gainera, lehenagotik ere Udalak eginda du beste deialdi bat Udal Euskaltegiko irakasle bat hartzeko. Kasu horretan, lanpostuaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko zain daude. Behin hori eginda, 20 egun naturaleko epea izango da eskaerak aurkezteko.

> JAIK

Lizaso eta Egaña bertsolariek jardungo dute, gaur, egubakoitza, Gesalibarko jaietan

Bestelakoan artean, gaur bertso afaria egingo dute gesalibartarrek Santa Ageda jaiak ospatzeko. Izen handiko bertsolariak gonbidatu dituzte, gainera: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Bihar, berriz, besteak beste, umeendako jolasak izango dira (11:00etan) eta eguerdian hasita, auzotarrek koplak abestuko dituzte. Gero, sagardo berria estreinatuko dute txotx giroan (iluntzean). Eta domekan, aspaldiko ohiturari eutsi eta meza esango dute auzoko zaindarien alde (12:00etan); baina hor ere gonbidatu bereziak izango dituzte, izan ere, Gesalibarko eta Garagartzako koruak mezetan abestuko du.

> EUSKARA

Euskararen jatorriaren gaineko azkeneko hitzaldian, Lizarduikoa izango da hizlari

Eguaztenean (otsailaren 13an) bukatuko dute *Nondik dator euskara?* hitzaldi zikloa. Oraingo honetan, Alfontso Martinez Lizarduikoa hartuko du hitza; euskal nortasunaren ikertzailea da bera. Hitzordua 19:00etan da, Kulturateko Loramendi aretoan.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

badabil
arrasate
biteri 11

haurmoda

*laster
zabalik*

P

BITERI
parean

LITERATURA > JOKIN ZAITEGI 21. SARIKETA

Koro Navarrok euskaratuko du azken Nobel saridunaren eleberria

Doris Lessing idazlearen 'The grass is singing' eleberria ('Belarra kantari') euskaratuko du

5.500 euroko beka jasoko du eta udazkenerako bukatu beharko du lana, Durangon argitaratzeko

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Koro Navarrok (Donostia, 1955) euskaratuko du Doris Lessing idazlearen *The grass is singing* eleberria (*Belarra kantari*). Hala eman du aditzera 21. Jokin Zaitegi Itzulpen Sariaketako epaimahaiak. AED elkarteak antolatzen du itzulpen sariketa hori.


Hain justu ere, azken Nobel sariduna euskaratzeko beka bat ematen du sari modura. 5.500 euroko saria. 2007ko Nobel sariduna Doris Lessing izan zen eta haren lehen eleberria, *The grass is singing*, euskaratuko du Koro Navarrok Jokin Zaitegi sariketari esker.

Sariketako epaimahaiak honako hauek osatu dute: Idoia Gilleanek, Aiora Jakak eta Alberto Martinez de la Cuadrak.

Kutzak emango dion 5.500 euroko sariarekin, Koro Navarrok udazken hasiera bitartean jardungo du itzulpen lanetan, liburua aurtengo Durangoko azokarako prest edukitzeko. Elkar argitaletxeak argitaratuko du, azken urteetan egin duen moduan. Doris Lessing, Iranen jaio eta Zimbabwen hazitako idazle britainiarren lehen eleberria euskaraz irakurri ahal izango da horrela. Afrikako zenbait herrialdeetako arrazismoa eta emakume-

aren zapalketa-egoera erakusten ditu, besteak beste, Doris Lessingek lan horretan.

Arrasateko AED euskara elkarteak hogei urtetik gora daroa sariketa hori antolatzen. 2002an aldatu egin zuen sariketa eta

LIBURUA *The grass is singing*-en azala.

harrezkero, urtero Literatura-ko Nobel saria irabazten duen idazlearen obra bat itzularazten da. Orain arte honako lan hauek kaleratu dira sariketa horri esker: Imre Kertész hungariararen *Zoririk ez*, Urtzi Urrutikoetxeak euskaratua; J. M. Coetzee-ren *Lotsaizuna*, Oskar Aranak euskaratua; Harold Pinter-en *Maitalea* eta beste zenbait antzerki-lan, Iñigo Errastik itzulia, eta Orhan Pamuk-en *Elurra*, Monika Etxebarriak eta Fernando Reyk itzulia.

ITZULTZAILE EZAGUNA

Koro Navarro Etxeberria itzultzaile profesionala da, hainbat sari irabazitakoa da, Jaurlaritzak antolatzen duen Euskadi Sariko finalista izandakoa ere bada, eta, besteak beste, egile hauen euskaratzailea da: Hammet, Poe, Kipling, Twain, Steinbeck, Dylan Thomas, Bashevis Singer, Carver...



ELKARTASUNA Kontzertua iragartzeko eguaztenean eman zuten prentsaurrekoan, Des-kontrol eta beste talde batzuetako kideak ageri dira.

IKER BARANDIARAN

Arrasateko eta Algortako bost taldek kontzertua egingo dute Des-kontrol taldeari jarritako isunari aurre egiteko sosak batzeko

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

2006an Durangoko Plateruenean gertatu zen ezbeharrak. Berehala iritsi zen salaketa. Durangoko epaitegiak berriki eman du sententzia aditzera. Des-kontrol taldeak 8.000 euro ordaindu behar

MUSIKA > DES-KONTROLEN ALDEKO KONTZERTUA

8.000 euroko isunari aurre egiteko kontzertua

ditu, zati bat kaltetuari eta beste bat epaitegiko gastuak ordaintzeko. "Taldek abeslaria mikrofonoarekin helikopteroarena egiten ari zela mikrofonoa askatu egin zen eta entzule bat jo zuen buruan", azaldu du taldeko kide Markel Urrutiak. "Istripu bat izan zen, baina sententzia injustu baten ondorioz taldeak 8.000 euroko isunari egin behar dio

aurre". Taldekoek adierazi dute horrelako istripu bat edozein talderi gerta dakiokela.

SARRERAK 10 EUROTAN SALGAI

Bada, 8.000 euro horiek batzeko kontzertua antolatu dute Des-kontrolkoek. Uarkapen egingo dute, otsailaren 16an. Beste bost talde izango dituzte lagun: Algortako Ukabilkada eta Arrasateko

Arkada Social, Enboskada, Never Surrender eta The Motherfuckers. Sarrerak salgai daude hamar eurotan. "Herriko taldeek bat egin dute gurekin eta eskertzekoa da", esan du Urrutiak. "Isuna ordaintzeko dirua batzea da kontzertu horren helburua. Gehiago batzen badugu, merezi duen kausa on batera bideratuko dugu dirua".

> ZINEMA

'El amor en los tiempos de cólera' asteburuan

Asteburu honetarako Amaia antzokian iragarrita zegoen filma, *Los crímenes de Oxford*, Alex de la Iglesiarena, ezin izango dute eskaini, filmaren kopia ez delako garaiz helduko. Horren ordez, *El amor en los tiempos de cólera* filma emango dute, beste filma iragarritako ordu eta egunetan: gaur, egubakoitza, 22:00etan; bihar, 19:30ean; eta etzi, domeka, 20:30ean.

> ANTZERKIA

'Pagagnini' antzezlan musikala egingo du Yllana taldeak

Yllana talde madrildarrak eta Ara Malikian biolin-joleak *Pagagnini* antzezlan egingo dute bihar, zapatua, 19:30ean, Amaia antzokian. Antzerki lan horretan, musika eta Yllana taldearen umore zoroa uztartzen dira. Lau musikari handiren trebetasunaren bitartez, Malikian musikaria maisu dela, musika klasikoaren une nabarmen batzuk erreparatzen ditu, beste musika estilo batzuekin nahastuz.

> MUSIKA

'25 hits of Mondra Underground Sounds' bilduma kalean

Arrasateko hainbat musika taldek punk, rock-and-roll, street-punk oi! eta punk-rock kantuen bilduma egin dute. *25 hits of Mondra Underground Sounds* dauka izena diskoak eta 25 kantu batu dituzte. Talde guztiak Arrasatekoak dira: Des-kontrol, 5 Twisters, Never Surrender, RIP, Jukebox... Diskoa 10 eurotan eskura daiteke tabernetan. Orain, aurkezpen kontzertuak egiten dihardute: hala, gaur, egubakoitza, Dat tabernan, 20:00etan, eta bihar Etxosten, 19:00etan, eta gaztetxean, 22:00etan, zortzi talde izango dira. Datorren zapatuan beste emanaldi bat izango da gaztetxean.

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58


ARRASATE

Goienkaria **37.020** irakurle



GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*


El Diario Vasco **23.700** irakurle



Gara **5.800** irakurle




Berria **5.300** irakurle



Marca **2.475** irakurle



Noticias De Gipuzkoa **1.800** irakurle



El Pais **990** irakurle



El Correo **220** irakurle



Deia **165** irakurle



Mundo Deportivo **120** irakurle



- GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea, askogatik.
- Debagoiendarren %67,4k astero irakurtzen du GOIENKARIA.
- 2005ean, 33.825 irakurle zituen GOIENKARIAk Debagoiengan; hortaz, 3.195 irabazi ditu.
- Gipuzkoan 50.000 lagunek irakurtzen dute GOIENKARIA.

Eskerrik asko, irakurle.

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK (PORTZENTAJEETATIK ATERATAKOAK)

Goienkaria

XAKEA

Idiazabalen kontra jokatu du Arrasatek

X.U. > ARRASATE

Arrasate San Andres Xake Taldeak azkeneko postuetan dagoen Idiazabalen kontra jokatu du asteburuan: "Aukera polita dugu puntuazio ona eskuratu eta sailkapenean posturen bat igotzeko", adierazi du taldeko kide Josu Tornayk.

LEHENENGO ALDIZ GALDU

Joan den astean, berriz, Arrasateko San Andres taldeak ligako lehenengo porrota jaso zuen, Errenteriaren kontra (1,5-2,5): "Hasiera baten, talde hura ez zen oso gogorra izan behar, baina gure kontra jokatzeko ordezkarri sendoenak ekarri zituzten". Orain momentuan, Arrasatekoak sailkapenean erdialdean daude, bosgarren lekuan, 8,5 puntu eskuratuta.

ATLETISMOA

Urrezko bi domina Gipuzkoako txapelketan

X.U. > ARRASATE

Joan den astean egin zuten Gipuzkoako atletismo txapelketa. Jonathan Perezek pronostikoak bete eta urrea jantzi zuen pertika-saltoan (4,75 metro). Nesketan, Maialen Axpek ere urrea eskuratu zuen (2,75 metro), eta salto bera eginda zilarra jantzi zuen Lide Pagaldaik. Hain zuzen, klubeko hirugarren atleta batek bete zuen podiumeko hirugarren postua, Lore Marrek (2,50 metro).

200 metroko proban lehia- tu zen Remi Diosdado (23.06), eta hirugarren sailkatu zen.



LURREAN Arrasateko taldeko Markel, Mungiako kontrarioaren aurrean baloia eskuratzeko ahaleginean.

J.A.

ERRUGBIA > EUSKAL LIGA

Bilboko taldea hartuko dute arrasatearrek bihar

Joan den asteko Santanderko norgehiagoka atzeratu eta gero, Arrasatekoek ezustea eman gura dute bigarren sailkatuaren aurrean

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bilboko UPV taldea izango da bihar Mojategin (17:00). Lehenengo mailara igotzeko lehian izango da talde hori aurten -iaz jaitzi ziren kategoriatik, eta lehenbailehen igotzeko asmoz dabilta-. Oraingoz, Bilboko errugbi talde bakarra dena bigarren dago sailkapenean, eta Zarautz dago kategorian agintzen. UPV Bilbok, baina, gertu baino gertuago du Mungia eta bigarren jarraitzeko ezinbestekoak dituzte bihar jokoan egongo diren puntuak.

Arrasatekoak, berriz, seguru ez daudela sailkapenarekin horren arduratuta, baina, faberitoa ezustean harrapatzen ahalginduko dira.

IKASTEKO URTEA

Mojategiko zelai berriarekin batera, Arrasateko errugbi taldekoen ilusioak berritu egin dira aurtentzen. Beste kategorietan egin duten ahalegina alde batera utzita -hor dago emakumezkoen taldea, edota gazteendako errugbi eskola-, senior mailan aurrerapausoa egin gura dute. Inongo presa barik, ARTkoen asmoa da datozen urteotarako orain dela lauzpabost urte izan zuten talde indartsua modukoa egitea. Horretarako, baina, denbora behar da, izan ere, orduko hainbat beteranok agur esan zuten, eta egun jokalarri gazte asko dituzte kategoriara egin behar direnak; lan horretan, ardura handia izango dute taldean geratzen diren beteranok.

Neurri handi batean, esperientzia eza horrek bultzatuta etorri dira aurtengo ligan hainbat porrot. Maila txukunean jokatu ere, taldeak hiruzpalau partidutu tarte txikiagatik galdu ditu; eta, detaile txikiak erabakigarriak izaten dira hor. Hala, gaur egun sailkapenak erakusten duen azkenaurreko postua -hamalau puntu- ez da talde horrek duen benetako mailaren isla; edo hobeto esanda, ez da uste baino lehenago izango duten benetako mailaren isla.

Gauzak horrela, aurtengo ligako lehenengo fasea esperientzia batzeko baliagarria da -eta zelai berrira ohitzeko-, izan ere, dagoeneko urrun daude igoera faseko postuak. Baina, ligako bigarren fasean beste multzoko hainbat kontrario berri izango dituzte aurrean. Eta maila partekatugoa, Arrasatekoek denboraldia gustura amaitzeko abaguna izango dute hor.

futbitoia zaldibar

EMAITZAK

| | |
|----------------------------------|------|
| Cipris-Kalapatxak | 7-1 |
| Lasagabaster-Dribling | 5-5 |
| Equus-Betrayer | 3-13 |
| HLB 108-Iluntz | 1-4 |
| Abokajarro-McAwenDauen | 4-6 |
| Iriztu Taberna-Saukelu Abian | 3-3 |
| AT Celaya-Citrus | 5-2 |
| THC-Dublin Irish Pub | 0-1 |
| Ekaitz Taberna-Bar Kokots | 2-5 |
| Total Disaster-Iturriotz Taberna | 4-8 |

PARTIDUAK

| Otsailak 9, zapatua | Epailak |
|--------------------------------|--------------|
| 08:50 Iturriotz tab-Dribling | Lasagabaster |
| 10:00 Lasagabaster-Iluntz | Dribling |
| 11:00 McAwenDauen-THC | Iluntz |
| 12:00 Iriztu Tab-AT Celaya | THC |
| 13:00 Abokajarro-Citrus | Iriztu |
| 15:50 Kalapatxak-Total Disast. | Equus |
| 17:00 Equus-Dublin | Kalapatxak |
| 18:00 HLB 108-Saukelu | Dublin |
| Otsailak 10, domeka | Epailak |
| 10:50 Cipris-Bar Kokots | Betrayer |
| 12:00 Ekaitz Taberna-Betrayer | Cipris |
| 13:00 Dribling-Abokajarro | Ekaitz |

SAILKAPENA

| | P | J |
|-----------------------|----|---|
| 1. McAwen Dauen | 24 | 8 |
| 2. Betrayer | 19 | 8 |
| 3. Dublin Irish Pub | 16 | 8 |
| 4. Cipris | 16 | 8 |
| 5. Lasagabaster | 13 | 8 |
| 6. Dribling | 13 | 8 |
| 7. Saukelu Abian | 13 | 8 |
| 8. Ekaitz Taberna | 13 | 8 |
| 9. Iriztu Taberna | 12 | 8 |
| 10. HLB 108 | 12 | 8 |
| 11. Iluntz | 11 | 8 |
| 12. Iturriotz Taberna | 10 | 8 |
| 13. Kalapatxak | 10 | 8 |
| 14. AT Celaya | 9 | 8 |
| 15. Bar Kokots | 9 | 8 |
| 16. Equus | 9 | 8 |
| 17. Citrus | 6 | 8 |
| 18. Abokajarro | 6 | 8 |
| 19. THC | 3 | 8 |
| 20. Total Disaster | 0 | 8 |

Kopa alde batera utzi, eta bueltan da liga txapelketa

Joan den asteburuko atsedendia aprobetxatuta, taldeek bihar eta etzi jokatu dute bederatzi-garren jardunaldia. Orain dela bi aste Kopako kanporaketa jokatu zuten, eta martxoaren erdialdean itzuliko da txapelketa hori, horrenbestez, taldeak ligan murgildu beharko dira buru-belarri. Alde horretatik, McAwenDauen taldea geroago eta lider sendoagoa da. Asteburuan THC izango dute kontrario (zapatua, 11:00), eta ez da ezustekorik espero.



Traskilon

Ile - apaindegia
Arropak
Osagarriak
Pentsuak

Ordutegia:

9:30 - 13:30

16:30 - 20:00

Larunbata goizean: 10:00 - 14:00

Ferrerias 28, C · Telefono berria: 943 79 96 55 · Arrasate

Nire bidaia hura

Ainara Aranbarri > 2006ko abuztua
Frantziako Pirinioetan egon zen

"3.032 metrora egoteak oso sentsazio berezia sortzen du"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Andaluzian mutil-lagunarekin bi aste egon eta gero, eta ezertarako astirik gabe, berriz ere maletak egin behar izan zituen Ainara Aranbarri, beste lau lagunekin batera Frantziako Pirinioetan hiru eguneko zeharbide bat egiteko. Hiru egun haietan gertatutakoa kontatu digu Aranbarri.

Duela bi uda, abuztuaren 19an hain zuzen, Ainara eta beste lau lagun Frantziako Pirinio aldera, Cauteretsera, joan ziren. Hiru eguneko zeharbide bat egitea zen helburua. Zeharbideko lehenengo egunean Petit Vignemale mendia

igotzea erabaki zuten, eta Ainara Aranbarri beldur pixka bat zuen: "Baziren 20 egun ez nuela ezer egiten, eta ez nekien gai izango nintzen hiru milako mendi bat egiteko".

Hala eta guztiz ere, hiru egunetan beharrezkoa zutena motxilan hartu eta hasi ziren. Lehenen-

"Gaube bailara bat da, eta bide guztia erreka baten ondotik doa, Gaube lakua zeharkatu behar da"



Ainara Aranbarri.

go egunean sei ordu inguru ibili ziren mendian, eta 2.151 metrora dagoen Refuge des Oulettes de Gauberraino heldu ziren. "Leku hura bailara bat da, eta bide guztia erreka baten ondotik doa, Gaube lakua zeharkatu behar da", esan digu Aranbarri.

BIGARREN EGUNA, MOTZENA

Bigarren egunean, Oulettes-ko aterpetik 2.650 metrora zegoen Refuge a Baysellanc igo genuen. "Gorabehera handiak dituen mendia izan arren, nahiko motza da zeharbide zati hura eta hiru orduan egin genuen", esan digu Ainara Aranbarri. Hirugarren eta azken egunean, Petit Vignemale igo ziren bost lagunak, 3.032 metrora. Hain altu egotea sentsazio oso berezia dela esan digu Aranbarri, ikuspegi ikaragarriekin. Ainara Aranbarriren arabera: "Aukera izanez gero berriz ere bueltatu nintzateke bertara". Azken tontor hartako oroitzapenak buruan zituztela bueltatu ziren.

bere ustez



Zuriñe Velez de Mendizabal

Milaka Asterix geure herrixkan

Pasatu dira Aratusteak. Kendu ditugu ileorde, sudur-gorri eta maskarak eta berriz ere ohiko bizi-moduari ekin diogu.

Akabo karroza prestaketak eta koadrilen arteko sekretuak. Urtebete barrura arte ohiko bizimoduari ekingo diogu. Baina aurretik, aurtengo antolatzaileei eta baita arrasatear guztiei ere zuzendu nahiko nizkieke pare bat berba. Izan ere, geroz eta parte-hartzaile gehiago ditu zapatuko inauteriak eta eskertze-koa da langilea naizen alde-

"Batez ere erromatar eta galiarrek inbaditu gaituztela ezin ukatu!"

tik! Urtetik urtera mozorrotu gehiago ikus daitezke kaleetan barrena, eta martitzen inauteri egunean irten ezin garen guztiontzat, pozgarria da herriko giro paregabean murgiltzea. Aurten *Mario Bros* eta *Luigi* ikusteko parada izan dugu, motorzaleek ere burundara ateratzeko aukera ez dute galdu eta Donostiako sukaldari batzuk ere gurean izan dira danborrak astinduz. Batez ere erromatar eta galiarrek inbaditu gaituztela ezin ukatu! Inbaditzeaz gabiltzala, gaur sekula baino gehiago izan behar dugu galiar. Gure barruko Asterix bilatu, edabe magikoa edan eta herri txiki hau indarrez isilarazi nahi dutenei ahotsa dugula adierazi, galiar menperagaitz bihurtuz...

txutxu-mutxua

Besaide elkartekoek mendi irteera egin zuten otsailaren 3an Ernio aldera

Joan den otsailaren 3an mendi irteera egon zen Besaide mendi elkarteak antolatuta. Guztira, 47 mendizale bildu ziren irteera hartarako. Irteera Garibaitik izan zen 07:30ean, Urkizuraino (Tolosako inguruetan). Handik hiru tontoretara igo ziren: Erniozabal, Ubeltz eta Herniora. Ondoren, indarberritzeko, Zelatunen egin zuten hamaiketako ederra. Horren ostean, Iturburuko leporaino jaitzi ziren. Amaitzeko, eta eguna borobiltzeko, Azpeitiko Añota sagardotegian egin zuten bazkaria. Mendi buelta gogorra egin eta gero, denak formal jarri ziren argazkia ateratzeko.



BESAIDE ELKARTEA



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua

Espezialitateak:

legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.

Tel.: 943 -71 21 41

Faxa: 943 - 71 21 40

HIRIGINTZA > URBANIZAZIO LANAK

Artabila aldea txukuntzen dihardute

Errepidea egokituko dute, eta baita espaloiak egin eta argiztapena jarri ere, besteak beste

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Artabila inguruan lanak egiten dihardute duela pare bat astetik. Bi eremutan dihardute lanak egiten, errepidearen alde banatan: batetik, Candy Hoover enpresa ondoan, eta, bestetik, ortuak dau den orubean, etorkizunean Miguel Altuna berria eraikiko duten gunean, hain justu ere.

Lehenengoari dagokionez, Candytik hasi eta Surrarako bidegurutzerainoko urbanizazio lanak egingo dituzte. Udaleko Hirigintza Sailak azaldu duenez, Candy Hoover eta Irizar Zerra-

tegia dira lan horren kargu egin go direnak: "Gauza bat dela, beste dela, enpresok hor kokatzea-gatik egin beharreko urbanizazio lanak atzeratzen joan izan dira, baina dagoeneko ekin diete lanei", azaldu dute Hirigintza Saileko arduradunek.

Errepidea egokitu, espaloiak egin, argiztapena jarri... Ingurua erabat txukunduko dute, eta 400.000 euro inguruko aurrekontua dute. Inguruko auzotarrek -San Martin, Agarre, Surra...- eskertu egingo dituzten lanak dira, baina baita gainerako



URBANIZATZEN Errepidea egokituko dute, espaloiak egin, argia jarri...

E.A.

herriarrek ere. Izan ere, herriar askoren pasealeku da gune hori, *Kilometroetako buelta*-ren tartera den heinean.

MIGUEL ALTUNA BERRIA

Lanak egiten diharduten bigarren eremua da Miguel Altuna berria eraikiko duten orubea.

Hain justu, egunotan egiten ari direna da airetik doazen argindarraren kableak kendu eta horiek guztiak lur azpian sartu. Udalak azaldu duenez, Udalak berak esleitu ditu lanok, baina Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila egingo da gastuaren kargu. Horren arrazoia da oru-

be horretan Miguel Altuna Lanbide Heziketako eskola berria eraikitzeke prozesuaren barruko lanak egiten dabiltzala. Udalak azaldu duenez, "Miguel Altuna egingo dutenerako orubea prestatzen, garbi lagatzen ari dira, obrak hasten direnerako oztopotik gabe egon dadin".

Miguel Altunaren eraikin berriari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak badu izendatuta horretarako diru zati bat 2008ko aurrekontuetan, eta, Miguel Altunako zuzendari Inazio Larrañagak esandakoaren arabera, exekuzio proiektua ere eginda dago, "2007ko ekainaren 13an entregatuta". Hala eta guztiz ere, lanak noiz hasiko diren ez dakitela gehitu du, "oraindik jakinarazpen ofizialik" ez dutela jaso. Hori horrela, lanok lehenbailehen has-teko premia azpimarratu du, "aspaldi leku faltan gaudelako".

Lanbide Heziketako zuzendari Josu Aboitizek iazko abenduan hainbat komunikabideri egindako adierazpenen arabera, 2008an hasiko dira lanak. Zera esan zuen orduan: "Espero dugu lanak uda ostean esleitu ahal izatea, eta urtea bukatu aurretik has-tea". Lanbide Heziketako zuzendaritzan galdetu arren, ez digute ezer konfirmatu.

AUZOAK > ZERBITZUAK

Hilaren 25etik, taxi-busa dago Angiozarren, eta egubakoitzetan emango du zerbitzua

Udalak herriko taxilari Pegerto Blancorekin hitzarmena egin du zerbitzua urte osoan emateko; taxi-busak zortzirendako lekua du

M.B. > BERGARA

Angiozarrek taxi-bus zerbitzua dauka hilaren 25a ezker. Azken bi urteetan inolako garraibide publikorik gabe egon da auzoa, eta hutsune hori betetzeko asmoz hitzarmena egin du Udalak Pegerto Blanco taxilariarekin.

Blanco gidariaren autoak zortzi lagunendako lekua dauka eta egubakoitzero emango die zerbitzu Angiozartik Berga-

rara edo Bergaratik Angiozarrrera joan nahi duten auzotar eta bergararrei.

Taxi-busa 09:00etan abiatuko da Angiozarko plazatik eta bidean dauden geltokietan gertuko da, baldin eta erabiltzaile-rik zain badago. Bergaratik Angiozarrera, berriz, 11:50ean egingo du, Santa Marina parroikia osteko autobus geltokitik -Urrutikoetxea farmazia ondoan. Prezioari dagokionez, bidaia bakoitzak euro bat balioko du.

AUZOTARRAK, GUSTURA

Bi urte egon dira Angiozarko auzotarrak garraio publikorik gabe, eta taxi-busa gustura hartu dute. Izan ere, auzoan bizi den autobus gidariak bere borondatez ematen zuen zerbitzua lehenago, baina duela bi urte erreti-

roa hartu zuenetik ez da inolako zerbitzurik egon. Mila Elortza auzo alkatearen esanetan, bakarrik bizi diren auzotarrak, hilean behin soldata kobratzera edo ile-apaindegira doazanak, edadeko pertsonak... hainbat dira zerbitzu horren premian zeudenak: "Lehenago beti egon behar izaten zuten norbait Bergara joateko zain, eurekin jais-teko", esan du; eta gehitu du: "Orain badute zerbitzua, bada-kite noiz jaitsi eta igoko diren eta ez dute inoren zain egon beharrik". Baina horrez gain, autodun auzotar gazteagoei ere zerbitzu emango diela nabarmendu du: "Bergarara erosketak egitera jaitsi eta ezin aparkatu ibiltzen gara askotan. Bada, taxi-busak hori ekiditeko ere balio du", nabarmendu du.

> IRTEERA

Mendia Bizirik eta Pol-Pol mendi taldeek hegaztiak ikustera joateko irteera antolatu dute

Etzi, domeka, izango da eta Salburuara egingo dute irteera, goize-rako bakarrik. Barnealdeko hegaztiak ikusiko dituzte eta gidaria Rosa Agirrebeña izango da. 09:00etan abiatuko dira Pol-Pol talde-aren egoitza aurretik. Izena emateko deitu 943 76 48 51 zenbakira.

> HAUTESKUNDEAK

Posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri du EAJ alderdiak, eta dagoeneko martxan dago


Martxoaren 9ko hauteskundeetan posta bidez bozkatzeko bule-go jarri ditu EAJk, batzokian, eta modu horretan bozkatu nahi dutenei laguntzeko dago. 11:30-13:00 eta 19:00-21:00 orduetara. Gogora ezazue postaz bozkatzeko azken eguna otsailaren 28a dela.

> ODOL-ATERATZEA

Datorren eguaztanean, otsailak 13, izango da odola emateko hurrengo hitzordua

Otsailaren 13an, eguaztana, odol-ateratzea izango da Seminario-ko eraikinean, ohi bezala. Ateratzeok 18:30-20:00 orduetara egin-go dituzte. Hala, elkartetik hitzordua gogorarazi nahi diete emai-leei, eta emaila ez direnak joatera animatu nahi dituzte.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Mikel Markez > Abeslaria

"Gure ikuskizunean tabuak kozinatzen ditugu, eta tabu horiek aztertzen saiatzen gara"

JASONE ZABALA > BERGARA

Bihar zapatua, Aroztegi aretoan, 19:00etan, ikuskizun berri bat eskainiko digute Mikel Markez abeslariak eta Pako Aristi idazleak: *Tabuak saltsa berdean*. Mikel Markezekin hitz egin dugu.

Pako Aristi aspaldiko laguna duzu, ezta?

Elkarlanean 15 urte inguru daramatzagu. Berak garai batean prentsan idazten zuen, eta niri elkarrizketa bat egitera etorri zen. Orduan ezagutu genuen elkar, duela 20 urte inguru.

Tabuak saltsa berdean Pako Aristirekin egiten duzun hirugarren ikuskizuna da.

Hala da, bai. 1999. urtean, *Tribuaren hitz galduak* ikuskizuna egin genuen, eta 2003an, *Abiadura handiko urte baten kronika*. Esan bezala, gure elkarlana urte askotakoa da, 15 urtekoa, gutxi gorabehera. Hala ere, emanaldi horiek egin aurretik ere, nik bere poemak musikatua nituen, eta elkarren lagun ginen.

Zertan datza Tabuak saltsa berdean ikuskizunak?

Ikuskizun honetan tabuak kozinatzen ditugu, eta tabu horiek aztertzen saiatzen gara. Euskal Herrian badauzkagu zenbait tabu: euskararekin, gure



Irudian, Mikel Markez abeslaria.

MIKEL MARKEZ

mundua ikusteko ikuspegi horrekin... eta bien artean erreparatxo bat egiten diegu, kantuaren eta poemen bidez.

Azken diskoa 2004an atera zenuen, zazpigarrena. Noizko zortzigarrena?

Zortzigarren apirilaren 3an aurkeztuko dugu. Disko bilduma bat izango da, eta aurreneko kontzertua egin nuenetik dago-

eneko 20 urte pasa direnez, hau aitzaki modura hartuta, *1988-2008* izango du izena disko berriak.

Bakarlari bezala Bergaran egona zara zu aspaldi ezta?

Bai. Ondo ezagutzen dut Bergara. Orain dela 20 urte, Pol-Pol tabernan hainbat kontzertu eman nituen. Kantu herrikoiaren ikastaro batean ere egon nintzen.

LEHIAKETA > KOLDO ELEIZALDE

Koldo Eleizalde lehiaketaren 22. edizioa martxan da

Apirilaren 4a arte egongo da lanak entregatu edo bidaltzeko aukera; sari banaketa maiatzaren 17an izango da

J.Z. > BERGARA

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, eta Goiena Komunikazio Zerbitzuen laguntzarekin, aurten ere Koldo Eleizalde lehiaketa izango da; hain justu, 22. aldía.

Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte, bai bakarka bai taldeka. Pertsona berak, bakarka, bi generotan parte hartu ahal izango du, gehienez ere. Lanak aurkezteko moduari dagokionez, kartazal

handi batean bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan. Kartazalaren kanpoko aldean honako hauek idatzi beharko dira: *Koldo Eleizalde Lehiaketa* izenburu gisa, lanaren generoa eta taldea. Kartazal handian, berriz, honako hauek sartuko dira: lanaren bi kopia eta goitizen bat. Beste gutun-azal txiki batean, kanpogan egilearen izen goitia eta barruan *Egilearen datuak* atala; oinarriak udaletxean daude eskuragarri.

LAU GENERO

Guztira lau generotan parte har daiteke: ipuin idatzia; bertan bost talde osatuko dira, adinaren arabera. Bigarrena, bertsoak; hemen hiru talde egongo dira, adinaren arabera. Hirugarrena, komiki zinta; hemen ere hiru talde izango dira. Eta laugarren, ipuin kon-

taketa edo antzerkia; eta hemen ere hiru multzo izango dira. Azken bi taldeetan Debagoieneko edozeinek har dezake parte.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 4an bukatuko da, eta sariak maiatzaren 17an, zapatuan, emango dira Bergarako udaletxeko areto nagusian, eguerdiko hamabietan. Gainera, parte-hartzaile guztien artean euskarazko aldizkari batzuen harpidetzak zozketatuko dira. Aurkeztutako lanak saritzeko epaimahaia Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak aukeratutako pertsonak osatuko dute. Eta, horren harira, epaimahaiaren iritziz talderen batean aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez badute, sariak beste taldekoei gehituko dizkiete, edota gorde.

EMANALDIA > IPUINAK

Maite Franko ipuin kontalaria Aroztegi aretoan

Eguenean, otsailak 14, Maite Frankok 'Halabazango ipuinak' kontatuko ditu

JASONE ZABALA > BERGARA

Datorren egunean, Aroztegi aretoan, Maite Franko ipuin kontalari irundarrak ikuskitzuna eskainiko du, 18:00etan.

Saioa 5 eta 8 urte bitarteko haurrei dago zuzenduta, debalde da, eta gurasoek kanpogan itxoin beharko dute. Gehienez 40 haur sartu ahal izango dira eta iristeko ordena errespetatuko da. Saioak 50 minutu inguru iraungo du. *Halabazango ipuinak* du izena egueneko ikuskizunak. Izenburu generikoa da, eta Maite Frankok hauxe esan digu: "Halabazan irudizko herri bezala erabiltzen dut

eta batzuetan aipatu ere egiten dut, herri txiki bat balitz bezala". Saio bakoitzean lau ipuin kontatzen ditu.

PARTE-HARTZEA BULTZATU

Ipuin horien helburua haurren parte-hartzea bultzatzea da. "Graduazio ezberdinetan, lehenengo ipuinak apenas dauka parte-hartzerik, eta azkenak, berriz, beti izaten du parte-hartzerik handiena, antzerki bihurtzen dut eta ipuinetako pertsonaiak normalean haurrak izaten dira", azaldu digu Frankok. Saioa girotzeari dagokionez, ez du atrezzo berezirik erabiltzen, gehienez ere kaperaren bat.

Maite Frankok lau urte daramatza ipuin kontalari Euskal Herri osoan, eta guztira 600 saio baino gehiago egin ditu orain arte.



IPUIN KONTAKETA Maite Franko, ipuin kontaketa batean.

MAITE FRANKO

> MUSIKA

Ziripot tabernan eta Go-Jam aretoan DJ gaua egongo da oraingo aste bukaeran


Gaur gauean DJ gaua izango da Ziripot tabernan. 23:00etan hasita, DJ Orlandok jarriko ditu bertara joaten diren guztien gorputzak dantzaz; bihar, zapatua, L2B2ren txanda izango da, hura ere 23:00etan. Eta bihar ere, Go-Jamen DJ gaua egongo da. Bertan, Kogollo Krew eta Moloko+team arituko dira. Saioa 23:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balioko du.

> ZINEMA

Gaztetxean eta Agorrosingo ikus-entzunezko aretoan zinema emango dute aste bukaeran

Zinemaz gozatu nahi duenak aukera ezin hobea du asteburuan. Izan ere, gaztetxean zineklubaren barruan egiten diren emanaldien barruan, domekan, 18:00etan, Mike Nicholsekin *El Graduado* filma emango dute.

Agorrosinen, bestalde, bihar eta domekan egongo dira zinema emankizunak. Bi emanaldi egongo dira, 16:30ean eta 19:30ean. Filma *Ikasgela hegalaria* da, haurrei zuzendutakoa, fikziozkoa, eta euskaraz.



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

RA zahARRak
BERRI



NOIZ: Otsailak 13 eta 14

NOR: Amaia
Diaz de Monasterioguren
Dietista

GAIA: Porruak.

Zure intereseko **elkarrizketak**,
erreportajeak eta **tertuliak** batzen dituen
programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN **20:15**ean
EGUENETAN **13:15**ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea:

**URREZKO**
kutxa ZERBITZUA

Aitor Aldanondo eta Jon Kapelastegi > Bergarako eskubaloi taldeko jokalariek

"Kategoriari eusteko ilusioarekin dabil taldea, aukerak badaude"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den astean Urdaneta mendean hartuta (29-19), bergarrek bigarren garaipena lortu gura dute jarraian. Horretarako, asteburuan, azkeneko postuan dagoen Urola izango dute zain, eta irabazita, etxetik kanpora irabazitako lehenengo partidua izango litzateke. Gainera, liga txapelketari zortzi jardunaldi geratzen zaizkio, eta asteburukoa beste final bat da.

Joan den asteko garaipenarekin, eta asteburuan Urola mendean hartuta, Bergarak oraindik kategoriari eusteko aukerak izango lituzke, ala?

Aldanondo: Bai, bigarren partidua hori irabazten badugu, bai. Ea asteburuan zortea aldeko dugun eta bi puntuekin itzultzen garen.

Taldeak badu kategoriari eusteko itxaropenik?

Aldanondo: Bai, bai; izan ere geroago eta hobeto jokatzen dugu. Dena dela, egia da Urdanetaren kontrako garaipenean ez genuela batere ondo jokatu, baina aurreko asteotan ondo jokatu dugu, bai.

Basauriren kontrako partiduan, esaterako.

Aldanondo: Bai, lastima partidua hura galdu izana... Bi lelokeriagatik galdu genuen norgehiagoka hura, eta han galdutako puntuak beharrezkoak ziren.

Akaso, hori izan zen kategorian hasiberriak izatearen ordaina?

Aldanondo: Bai, izan daiteke. Edo, egoera konkretu baten aurrean taldeak zelan jokatu ez jakitea.

Liga ze gaizki hasi zenuten ikusita, gutxi esperoko zuten otsailean oraindik kategoriari eusteko aukerekin egongo zinetenik.

Kapelastegi: Azken batean, txapelketa oso gogorra da hau; izan ere, hainbat taldek astero-astero erraz irabazten dute. Gero, beste multzo batean gaude partidua irabazteko zailtasunak izaten ditugunok; baina pare bat partidua irabazita, sailkapenean igarri egiten da hori.

Bistan da liga hasi zenutetik hona taldea asko aldatu dela.

Kapelastegi: Hasteko, bizpahiru jokalarri berri etorri dira taldeera, eta hori igarri egin da. Esaterako, Aitor Aldanondo bera ez zegoen hasieran. Eta, hasiera txarra egin ostean kosta egin zitzaizgun burua altxatzea, baina lehenengo partidua irabazterakoan taldeak konfiantza hartu zuen, eta irabazteko gauza ginela ikusi.



Aitor Aldanondo eta Jon Kapelastegi martitzenean egindako entrenamendu saioan, Labegaraietan.

x.u.

"Basauriren kontra taldeak ez zuen jakin izan azken segundoetan zelan jokatu"

"Lehenengo partidua irabazterakoan taldeak konfiantza hartu zuen: irabazteko gauza ginen"

Izan ere, iaz taldeak oso definituta zeukan jokatze modua: defentsan baino erasoan hobeto, azkar jokatu...

Kapelastegi: Bai, taldean gorpuzkera txikiko jokalarri asko gaude, eta iazko partiduetan ez genuen inolako arazorik izaten, bagenekien zelan jokatu.

Baina horrek ez du aurten balio.

Kapelastegi: Ez, Euskadiko txapelketa fisikoki askoz ere zorrotzagoa da. Kontrario askok jokalarri oso handiak dituzte, eta epaileei ere gehiago kostatzen zaie faltak adieraztea. Hala, partidua askotan kosta egin zaigu gola egitea eta defentsan zailtasun handiak izan ditugu. Alde horretatik, hainbat partidutan egur ederra jaso dugu.

"Erasoan gutxitan izan ditugu arazoak, ia beti egin izan ditugu 30 gol baino gehiago"

"Urolaren kontra irabazteko defentsan lan ona egin beharko dugu; hor egongo da gako"

Bi kategorien artean alde handia dago, horrenbestez.

Aldanondo: Sekulako alde dago, bai. Lehenengo territorialen jokalarri batek erraz egin ditzake hamar gol, eta Euskadiko txapelketan kontrarioaren atea usaindu ere ez egin. Horrekin batera, beheko kategorian 90-95 kiloko jokalarri batek min handia egin dezake, baina hemen jokalarri asko daude hura geratzeko gauza direnak. Kategoria honetan beste modu batean jokatzen da: jokalarri sendoagoak daude, joko bera gogorragoa da eta kontaktu handiagoa egoten da.

Eta gaztetasuna eta beteranotasuna elkartzen dira.

Aldanondo: Bai, goiko kategorietan ibili den jendearen kontra jokatu izan dugu. Ni naiz Ber-

garako taldeko zaharrena -29 urte-, baina Bizkai aldean ni baino zaharragoen kontra jokatu izan dugu.

Esan dugu taldea ez zela ondo hasi. Baina gero, hainbat ezusteko eman dituzue.

Kapelastegi: Bai, liderraren kantuan hiru goleko aldeagatik baino ez genuen galdu, eta, etxetik kanpo irabaztea gaitza bada ere, taldea geroago eta hobeto dabil. Konfiantza handiarekin gabilta, eta ea Urolaren kantuan etxetik kanpoko lehenengo partidua irabazten dugun.

Urola mendean hartzeko zelan jokatu behar du Bergarak?

Aldanondo: Erritmo onean jokatu beharko dugu, baina, batez ere, ondo defendatuz. Erasotzerakoan taldeak gutxitan izan ditu arazoak, erasoan ibili garena baino askoz ere hobeto ezin gara ibili. Baina defentsan asko dugu hobetzeko, eta, Urolaren kontra ondo defendatzen badugu, ondo irabaziko dugu.

Atzean hobetu behar duzue, horrenbestez.

Duda barik. Erasoa erraz egiten ditugu 30 gol, hortxe ibiltzen gara ia beti. Baina arazoa dator kontrarioak 31 gol egiten dituenean...

labegaraieta

EMAITZAK

| | |
|--------------------------------------|------|
| CM Errotagain-Deportivo Oriente..... | 8-2 |
| Irubide-Hamaika Jintxi..... | 9-3 |
| Irish Pub-Los Blus..... | 4-3 |
| Carboneros-Komando Piperrak..... | 3-5 |
| Niu Tim-Tiki-Taka..... | 3-16 |
| Belengua-Latinos.com..... | 5-11 |

PARTIDUAK

| | |
|-------------------------------------|-----------------|
| Otsailak 9, zapatua, barruan | Epaileak |
| 18:00 Los Blus-Niu Tim | Tiki Taka |
| 19:00 Tiki-Taka-Carboneros | Los Blus |
| Otsailak 10, domeka, barruan | Epaileak |
| 16:00 Hamaika Jintxi-Errotagain | Irubide |
| 17:00 Latinos.com-Irubide | Hamaika Jintxi |
| 18:00 Deportivo-Belengua | Komando Pip. |
| 19:00 Komando Pip.-Irish Pub | Belengua |

SAILKAPENA

| | P | J |
|----------------------------|----|----|
| 1. CM Errotagain..... | 33 | 12 |
| 2. Komando Piperrak..... | 30 | 12 |
| 3. Irish Pub..... | 28 | 12 |
| 4. Los Blus..... | 22 | 12 |
| 5. Carboneros..... | 19 | 12 |
| 6. Tiki-Taka..... | 19 | 12 |
| 7. Niu Tim..... | 16 | 12 |
| 8. Belengua..... | 14 | 12 |
| 9. Irubide..... | 9 | 12 |
| 10. Hamaika Jintxi..... | 7 | 12 |
| 11. Latinos, Com..... | 6 | 2 |
| 12. Deportivo Oriente..... | 0 | 12 |
| 13. El Mapet..... | 0 | 10 |

Latindarrak txapelketan lehenago hasi balira...

Gogoan izango duzuen moduan, El Mapet taldea kanporatua izan zelako onartu zioten antolatzaileek Latinos.com taldeari txapelketan sartzea. Hamargarren jardunaldian izan zen hori, eta ordutik, latindarrek jokatu dituzten bi norgehiagokak irabazi egin lituzkete. Ezin da aurreratu CM Errotagain, Komando Piperrak edota Irish Pub moduko taldeei aurre egiteko besteko taldea izango den -aurrerago ikusiko dugu hori-, baina txapelketa txukun hasi dutela ezin da ukatu. Hala, ikusteko dago oraingo asteburuan Irubideren kontra ze itxura erakusten duten. Latindarrek irabaziz gero, hiru jardunaldi bakarrik jokatuta sailkapenean harrapatu egingo dituzte.

Bestalde, aipatzekoa domeka arratsaldean (19:00) Komando Piperrak eta Irish Pub taldeek jokatuko duten norgehiagoka. Sailkapenean bigarren eta hirugarren postuan dauden taldeak izanda, jokoan egongo diren puntuek balio handia izango dute. Irish Pub-ek irabaziz gero aurrea hartuko luke sailkapenean, eta bide batez, liderrari mesede egin. Bestalde, Komando Piperrak taldearen esku dago aurrean jarraitzeko beste aurrerapauso bat ematea.

mingainari tiraka

Daniel Encabo > Kayak tabernakoa

"Bezeroekin tratatzea asko gustatzen zait"

JASONE ZABALA > BERGARA

Daniel Encabok 21 urte besterik ez duen arren, argi dauka bere gustuko jarduera zerbitzari lana dela. Joan den astean izan zen tabernaren inaugurazio eguna, eta ilusio handiarekin hasi du ibilbide berri hau. Taberna arloko hainbat galdera egin dizkiogu.

Noiztik dago Kayak taberna zabalik?

Urtarrilaren 31n zabaldu genuen taberna; bi aste inguru da zabaldu genuela eta oraindik ere ez dakigu nola joango den abentura berri hau. Oso animatuta nago.

Zein da tabernako ordutegia?

Goizean, zortzietan zabalduko dugu eta gosariak emango ditugu, eta gauean, hamaikak aldean itxiko dugu.

Edariak saltzeaz gain, beste ezer salduko duzu tabernan?

Pintxoak, ogitartekoak, hanburgesak, sandwichak eta entsaladak. Udarako, plater konbinatuak emango ditugu, taberna ez delako oso handia eta dena batera ezin delako.



Zuk bakarrik eramango duzu taberna?

Taberna nik hartu dut, baina niri laguntzen neska-laguna egongo da.

Aurrez ere tabernari lanetan ibilitakoa zara?

Agorrosineko tabernan egon nintzen urte eta erdi, eta gero Maxim's tabernan lau urte.

Entzuna dut bezeroentzako dohain berezia duzula.

Esaten badute, halaxe izango da. Ni ez naiz egokiena hori esateko, baina beti gustatu izan zait bezeroekiko tratua.

Zer da tabernak duen gauza onena eta txarrena?

Onena, jendearekin dudak erlazioa; gainera, lanorduetan lagun bista ere izan dezakedala, jendearekin hitz egin... Txarrena, oso lan lotua dela: besteek jai dutenean, tabernan orduan egoten da lanik handien, jendeak lan ez duenean egiten taberna duenak egin behar du lan; baina gustukoa dut.

bere ustez



Aitziber Azkondo

Aratusteen inguruan historia pixka bat

Neguaeren bukaera iragartzen duten jaiak omen dira eta hitzaren jatorria "haragi hustea" ei da. *Carnival-en* parekoa, *carne* eta *levare*, latinetik datorrena. Hala ere, gurean hainbat hitz erabiltzen ditugu karnabalei izena ematerako garaian.

Europako historialari eta adituek kristauen Garizuma garaia baino lehen ospatzen zuten alaitasunaren aroan kokatzen dute, beste batzuek berriz, Erroma eta Grezian ospatzen ziren errito-ospaki-

"Hala ere, gurean hainbat hitz erabiltzen ditugu karnabalei izena ematerako garaian"

zunekin. Morroien festak omen ziren. Nagusien pape-
ra antzezten zuten errege bat aukeratuz. Erdi Arotik hona eta eliza ahalguztidunaren laguntzaz, garatuz joan dira. Gizarteko egitura soziala hankaz gora jartzea ei da gaurko inauterien helburu. Mozorroa, diskurtso nagusiaren kontra joateko erabili, eguneroko bizitza kritikatu eta egoera sozio-politikoaren parodia ahalik eta handiena egin. Hausterre egunean amaitzen den festa honek baditu hainbat elementu bereak dituenak dagoeneko: jana eta edana ugari, txorimalo, mozarroak, maskarak, musika eta baita sexuen arteko festa ere, askoren ustez. Osagai guztiak bete-
betean jasotzen dituen ospatu beharreko festa.

hau be badaukogu

Santa Ageda bezperan, urteroko ohiturari jarraituz, abestera atera zen Alai Taldea

Joan den astelehenean Santa Ageda bezpera zela eta, hainbat lagun atera zen abestera herriko kaleetan zehar. Hala, 18:00etan, eta argazkian ikusten den moduan, Alai taldea, urtero egiten duen legez, plazan hasi zen egun horri dagozkion kantuak abesten, eta herriko hainbat kaleetan zehar ibili ziren taldekideak. Eskoletako neska-mutikoak ere atera ziren herriko kaleetan abestera, denak baserritar jantzita, bai San Martinekoak eta baita Aranzadikoak ere. Aranzadi ikastolatik abestera atera ziren neska-mutikoek, kantuan galdutako indarrak berreskuratze-ko, ogitarteko eder bana jan zuten.



I.Z.

GAZTELY, S. A.
BURDINDEGIA

HORNIDURA INDUSTRIALAK

Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

Mintegi kalea 1
20570 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larranaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra
943 25 05 05**



Goienkaria ASTELEHENKO **Goienkaria**



ZIRKULAZIOA > HERRI BARRURAKO NEURRIAK

Udalak herriko zirkulazioa arautzen duen ordenantza berria onartu du

Jasotako neurriek herritar gehienei eragiten die: gidariei, txirrindulariei, oinezkoiei eta bidea jarduerak egiteko erabiltzen dutenei

MIRIAN BITERI > ARETXABALETAKO

Udalak herri barruko bideetan pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa arautzea jasotzen duen ordenantza jarri du martxan. Horren gaineko ordenantzarik ez da egon orain arte; Zirkulazioko Legeak zekarrena hartzen zen kontuan. Oinezkoiei, gidariei, txirrindulariei eta bidea jarduerak egiteko erabiltzen duten pertsonen eragiten die.

Arau orokorretan, besteak beste, gehienezko abiadura-muga 50 kilometro ordukoa dela dio udal ordenantza berriak. Oinezkoendako guneetan, erre bakarrek kaleetan eta jende pilaketa handiko kaleetan,



MITARTE KALEA Zirkulazioaren gaineko udal ordenantza berriak Mitarte kaleari eragingo dio, besteak beste.

MIRARI ALTUBE

berri, ibilgailuek 10 kilometro orduko abiadura ezin dutela gainditu aipatzen du.

Bestalde, bidegorriak egon ezean, bizikletak galtzadatik joan beharko dira. Horrez gain,

homologatutako elementu islatzaileak eraman beharko dituzte. Gurpil-ohol, patin, triziklo eta antzeko aparailuak erabiltzen dituztenak, aldiz, ezingo dira galtzadan ibili.

Lehentasunezko bideetan kirol eta bestelako ekitaldiak egiteak ekar ditzakeen ondorio larriak direla-eta, horren antolatzaileek, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaera.

Bestalde, Gehienezko Pisu Baimendua 10.000 kilotik gora duten ibilgailuek ezin izango dira herrian ibili, ez eta 10 metro luze, 2,5 metro zabal eta 3,5 metro garai baino gehiago dituztenenak. Salbuespenak, hala ere, badaude.

GEHIENEZ, 76 DEZIBELIO

Ingurumen arloari dagokionez, ibilgailuek ezingo dute 76 dezibelio baino zarata handiagoa atera. Ihes-hodi librea erabiltzeak salaketa eragingo du, gainera. Bestalde, alkohol eta droga tasak zeintzuk diren eta proba egitera derrirotuta gaudela gogoratzen du.

Ibilgailuen bigarren ilarak, ezinduendako erreserbatutako aparkalekuak erabiltzeko baldintzak, abandonatutako ibilgailua eta istripu baten aurrean nola jokatu behar den ere arautzen dute, besteak beste.

Lege-hausteak ere jasotzen ditu. Arinak 90 euroko isunarekin zigortuko dira; larriak 91tik 300 euro bitartekoak; eta oso larriak 301 eta 600 euro artekoak izango direla dio. Azken horien kasuan, gainera, gidatzeko baimena kendu ahal izango da.

AZPIEGITURAK > BIDEGORRIA

Diputazioak hesia jarri du bidegorrian, Udalak hala eskatuta

Errepidea ondoan doa eta, beraz, oinezkoendako eta, bereziki, ziklistendako arriskutsua zen

M.B. > ARETXABALETAKO

Aretxabaleatik Eskoriatzara doan bidegorrian hesiak jarri ditu Diputazioak. Udalak tarte horretan segurtasun neurriak hartzeko eskatu zion Diputazioari, oinezkoendako eta, bereziki, bizikletan ibiltzen direnendako arriskutsua zelako.

Diputazioak ez du eragozpenik jarri eta segurtasun-hesiak jartzea erabaki du. Joan zen astean ibili ziren langileak hesiak jartzen, eta dagoeneko lan horiek amaituta daude.

Hegoaldeko azpiko pasagunetik Eskoriatzako poligonoraino jarri dira. Guztira, 210 metro luze ditu ibilbideak. Tokiko paisaiarekin oreka mantentzen saiatu da Diputazioa. Hortaz, tratatuta dauden egurrezko hesiak jarri ditu.

Joan zen irailean amaitu zituzten bidegorri horretako lanak, baina garai hartan ez zuten hesirik jarri. GI-627 errepidea bidegorriaren ondotik pasatzen bada ere, ez zuten arriskurik ikusi orduan.

UMEAK ETA ZIKLISTAK

Bidegorriaren tarte horretan "jende asko ibiltzen da", dio Udaleko Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak. Umeak handik pasatzen dira egunero, Arizmendik ikastolara joateko. Segurtasun neurririk ez zegoenez, errepidera ateratzeko arriskua zegoen. Ziklistek ere askotan erabiltzen dutela esan du: "Hutsegite bat izanez gero, errepidean amaitzeko arriskua zuten". Orain, hesiak daude tartean.



HESIAK Bidegorrian egurrezko hesiak jarri dituzte, oinezkoak eta ziklistak babesteko.

M.A.

PAGALDAI

*Opari denda
Burrindegia*



Durana 33 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 14

Pertegaz poltsak %50

ELKARTASUNA > SAHARA

Iesbaak herri krosa egingo du hilaren 24an sahararren alde


Hiru ibilbide antolatu ditu: helduendako, gazteendako eta haurrendako

Dortsalek hiru euro balio dute; aurretik edo egunean bertan erosi ahal izango dira

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Iesbaa elkarteak herri krosa egingo du otsailaren 24an, 12:00etan. Elkartearen sentsibilizazio kanpainaren barruan antolatutako ekitaldia da. "Saharako herriak bizi duen gatazkaren gainean sentsibilizatu gura dugu jendea", esan du Iesbaako kide Olaia Sagredok.

Dagoeneko zehaztuta daude egun horretarako ibilbideak. Partaideen adinaren arabera antolatu dira horiek. Helduendako ibilbideak lau kilometroko luzera izango du. Durana kalean emango diote hasiera, eliza ondoren. Handik Errekabarren kalea hartuko dute eta Andra Mari auzunerantz abiatuko dira. Jarraian, Basabe poligonotik Mendiolako bidegurutzera joango dira. Loramendi, Bizkaia, Araba eta Mitarte kaleak igarostean, Durana kalera bueltatu-



KANPAMENUETAN Krosa sahararrei laguntzeko egingo da; irudia iaz kanpamenduetan ateratakoa da.

GOIENKARIA

ko dira partaideak, eliza ondora. Eta beste buelta bat egin behar dute, helmuga gurutzatu aurretik.

Gazteendako buelta, berriz, laburragoa izango da. Toki berean izango dute irteera. Handik Eroskiraino joango dira eta buelta Durana kaletik egingo dute. Umeak, berriz, Durana kalean gora eta behera ibiliko dira.

MUSIKA SAHARARRA

Ibilbidean zehar edaria eta janaria izango dute korrikalariek. Antolatzaileek jakinarazi dute, musika sahararra ere entzun ahal izango da krosak irauten duen bitartean. "Kaleak girotu gura ditugu", aipatu du Sagredok.

Dortsal bakoitzak hiru euro balioko duela ere esan du. Aurretik erosi ahal izango dira, ondo-

rengo tokietan: Aretxabaletan, Bero kafetegian eta La Caixan; Eskoriatzan, Azkoaga Enea hotelan; Arrasaten, La Caixan; eta Bergaran, Giartzu gimnasioan. Hala ere, herri krosa egiten den egun berean ere eskuratu ahal izango dira dortsalak. Izena emateko jarriko den mahaira joango beharko dute interesa dutenek, goizeko hamaiketara.

Aretxabaletar asko irten zen eskean Santa Ageda egunean

Joan zen Aratuste-martitzenean Santa Ageda eguna ere bazen, eta, hortaz, aspaldiko ohiturari jarraituz, aretxabaletar asko irten zen abestera. Herriko kaleetan kantuan eta eskean ibili ziren. Kintoak, baina, ez ziren bakarrik egon, abesbatzako eta Leizarra musika eskolako haur abesbatzako kideak eta trikitilariak izan zituzten-eta ondoren.

Aurtengo nobedadeen artean, neskek mutilen modura jantzita irten zirela azpimarra daiteke. Ohikoa den moduan, eskean ibili ostean, Herriko Plazan bildu ziren guztiak, dantza egiteko. Jende asko bildu zen orduan. Irudian, Herriko Plazan izandako dantzaldia ikus daiteke.



MIRARI ALTUBE

> MUSIKA

Bacon Maden taldeak joko du gaur Haizea tabernan

Haizea tabernak otsailerako aurreikusita dituen ekitaldiak aurkeztu ditu. Barikuetan kontzertuak eskaintzen dira han. Gaur, barikua, Bacon Maden taldea igoko da agertokira. Kontzertua 22:30ean hasiko da. Iron Maidenen bertsoak egiten dituzten Arrasateko musikariak dira Bacon Madenekoak.

Datorren barikuan, otsailak 15, berriz, Bergarako Mahaster River taldea izango da kontzertua emango duena. Hilaren 23rako bertso saioa iragarri dute Haizea tabernakoek.

> ANTZERKIA

'Kanika zuri-beltzak' antzezlan ikusteko aukera hilaren 15ean

Goaz antzerki talde gipuzkoarra Aretxabaletan izango da datorren otsailaren 15ean, barikua. *Kanika zuri-beltzak* antzezlan eskainiko du udaletxe zaharrean.

Antzezlan horren gai nagusiak ametsak dira, eta, hortaz, hamaika bizipenen aurrean hartu beharreko erabakiez jarduten du Goaz taldeak. Ikuskizuna 22:00etan hasiko da eta Loramendi Euskara Elkarteak antolatu du.

> IKASTAROA

Reflexoterapia ikastaroa izango da otsailaren 16an

Hilaren 16an, zapatua, egun osoko reflexoterapia ikastaroa izango da udaletxe zaharrean, Jabi Fernandezek eskutik. Ikastaroan parte hartu gura dutenek Loramendi Euskara Elkartera joan behar dute, otsailaren 12a baino lehen. Egun horretan amaitzen da izena emateko epea. Plazak mugatuak dira. Elkarreko bazkideek bost euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, berriz, zazpi euro.

> IKASTAROA

IT txarteleko ikastaroak emango dira KZgunean

IT txarteleko hainbat ikastaro eta azterketa izango dira otsailean. Internet, sinadura elektronikoa eta irudi digitalen tratamenduaren gainekoak dira, besteak beste.

Bestalde, KZgunea asteleheneanetik barikura 09:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Martitzenetik egunera, gainera, 16:00etatik 20:00etara daude ateak zabalik.

Iñaki Igartua > Turismo bulegoko arduraduna

"Iaz, %8 igo zen turista kopurua Oñatin; 2006an baino 3.000 bisitari gehiago izan ziren"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko turismo bulegoak jakinarazi ditu 2007ko datuak. Turismo arduradun Iñaki Igartuaren hitzetan, 20.293 turista pasa ziren bulegotik. Iazko datuei buruz eta 2008rako aurreikuspenei buruz egin dugu berba harekin.

Iazko datuen arabera turismoak %8ko igoera izan du. Nolako balorazioa egiten duzue?

Balorazioa oso ona da. Guztira, 20.293 turista pasa ziren turismo bulegotik. Gainera, 2006ko datuekin alderatuta, bisitarien kopurua %8ko igo zen; hau da, 3.000 turista gehiago. Hortaz, turismoaz arduratzen garen hiru lagunak oso pozik gaude emaitza horrekin.

Iaz, urtarrila eta otsaila izan ziren hilabete onenak; aldiz, abuztuan, eguraldi txarrarengatik, turista kopuruak behera egin zuen.

Eta nondik datoz turistak Oñatira?

Turismo bulegotik pasa diren turista gehienak, %51, Euskal Herrikoak izan ziren: haietatik, %57 gipuzkoarrak, %33 bizkaitarrak eta %10 arabarrak.

Espainiako turisten artean, beste behin, kataluniarrak, madrildarrak eta valentziarrak izan ziren ugariak. Era berean, Balear irletako turistak egon ziren Oñatin.

Gainera, Europako eta beste leku batzuetako bisitariak ere izan genituen; besteak beste, Frantziako, Italiako, Alemaniako, Erresuma Batuko eta Hego Amerikako turistak. Guztien kopuruak gora egin zuen 2006ko datuekin parekatuta.

Oñatiarrek parte hartzen dute zuek eskaintzen duzuen bisita gidatuetan?

Gero eta gehiago animatzen dira. Aste bukaeretan bisitaren bat dutenean haiek ere etortzen dira bisita gidatuetara. Era berean, Gabonetan, bisita gidatuen zozketa egin genuen eta erantzuna oso ona izan zen.

Arrikruz koba ekainean zabaldu zen. Eskaintza berriak eragina izan du turismoan?

Zalantza barik, bai. Aurretik geneukan turismo eskaintza osatzeko oso baliagarria izan zaigu. Gainera, koba ikustera doazen guztiei Oñatiko informazioa ematen diete.

Nola sustatzen duzue Oñatiko turismoa?

Hainbat bide erabiltzen ditugu. Alde batetik, aurreko astean



Iñaki Igartua, turismo bulegoaren sarreran.

M.B.

"Unbertsitatearekin, parrokiarekin, garbitasunarekin eta paisaiarekin harritzen dira gehien"

"Artea, Historia eta Natura' paketea sustatzea da 2008rako erronka nagusia"

Madrilen egin zen Fitur azokako Debagoieneko postura informazioa erosten dugu. Turismo azoka oso garrantzitsua da gure eskaintzak Espainia mailan zabaltzeko.

Beste alde batetik, Euskal Herriko hainbat turismo bulegotara, jatetxetara eta hoteletara informazio orriak bidaltzen ditugu.

Bisitan datorrena zerekin harritzen da gehien?

Gehienbat, eraikuntza ezberdinen arteko oreka atsegin dute. Unibertsitatea eta parrokia asko gustatzen zaie. Era berean, txundituta gertzen dira garbitasunarekin eta paisaiarekin.

Zeintzuk dira 2008rako erronkak?

Erronka nagusia da *Oñati, Artea, Historia eta Natura* paketea sustatzea.

Artea, historia eta natura, eskaintza berean

Iaz, ekainean, Arrikruz koba zabaldu zenetik, Oñatin eguna pasatzera gonbidatzeko helburuarekin, *Oñati, Artea, Historia eta Natura* paketea osatu zuen Garapen eta Turismo Agentziak, 10 euroren truke. Hain zuzen, unibertsitatea, Mikel Deunaren parrokia, Arrikruz eta Arantzazu bisita daitezke. Paketea osatzeko, gastronomiaz gozatzeko aukera egongo da.

Herrian eguna pasatzeko osatutako paketea taldeendako proposamena da; hala, gutxienez 20 laguneko taldeak onartzen dituzte eta erreserba 15 egun lehenago egin behar da. Gainera, erreserba egiterakoan, bisitaren balioaren %10 aurreratu beharko da fidantza modura.

GAZTETXEA > KANPAINA

Gaztetxea aldarrikatzearen aldeko sinadura bilketa kanpaina bukatzeaz dago

Sinadura herriko hainbat tabernatan, Internet bidez eta kiroldegiko gimnasioan eman daiteke

M.B. > OÑATI

Gaztetxea aldarrikatze helburuarekin duela hilabete batzuk hasitako atxikimenduak biltzeko kanpaina azken txanpan sartu da. Hain zuzen, aste batzuk barru bukatuko da.

Atxikimendu kanpaina bukatu ondoren, bildutako sinadurak Udal arduradunei eroango dizkiete, "haiekin irtenbide batera" iristeko asmoz.

Gazte Batzarrak hiru bide ditu atxikimenduak egiteko: alde batetik, herriko tabernetan; besteak beste, Bogan, Gurian, Akerren, Pakon, Aloñan, Ongi Etorrin eta Arranon; eta beste alde batetik, Internet bidez *gaztetiabai.awardspace.com* helbidean edo kiroldegiko gimnasioan.

"GAZTEOK MEREZI DUGUNA"

Badira hiru urte Oñatiko Gazte Batzarrak gaztetxea lortzeko bideari ekin ziola. Ordutik hona "autogestioan eta berdintasunean" oinarritutako gune "aske eta publikoa" aldarrikatu dute. Era berean, parte-hartze handiak izan dituzten kultura ekitaldi asko antolatu dituzte, besteak beste, Sustrai Colina eta Aitor Mendiluzerekin bertso-bazkaria; Lucio Urtubiaren, Pako Aristiren eta Juan Luis Zabalaren hitzaldiak; Manolo Cabezaboloren kontzertua; Ander Lipus aktorearen antzezlan eta Oñatiko IV. Bertso Txapelketa.

Edozelan ere, hiru urte pasa ondoren, "gazteen beharrak eta aldarrikapenak hasieran zeuden bezala" daudela diote; eta bultzada berria eman gura diote bukatzeaz dagoen atxikimendu kanpainari. Herriko Gazte Batzarrak orain arteko bidetik jarraituko duela azpimarratu du: "Ekitaldi ezberdinak antolatzekeo dinamikarekin jarraituko dugu", baina "gazteok merezi eta beharrezkoa dugun toki batean".

> TAILERRA

'Txokolatearen mundua' izeneko hitzaldi-tailerra gidatuko du Anton Azpiazuk

Errekalde Herri Eskolako antolatutako *Euskal Kulturaren Hamabostaldia* barruan txokolatearen inguruko tailerra egingo dute bihar.

Klax Txokolateroen Elkarte kide Anton Azpiazurekin teoria eta praktika landuko dute. Hala, txokolatea egiteko eta dastatzeko aukera izango dute eta Oñatik txokolatearekin izan duen tradizioari buruzko istorioak kontatuko ditu. Txokolatearen inguruko hitzaldi-tailerra herri eskolan egingo da, 16:30ean.

> ERAKUSKETA

Mendi asteko argazki erakusketa zabalik egongo da domekara arte, kultura etxeko gelan

Aloña Mendiko mendi taldeak antolatutako argazki erakusketa arratsalde bisita daiteke domekara arte: 18:30etik 20:30era.

Kultura etxeko erakusketa gelan Lloret de Mar-eko (Girona) *Monbarbat* lehiaketara aurkeztutako argazkirik onenak ikus daitezke. *Monbarbat* lehiaketak hamar urte bete ditu eta, aurreko edizio guztietako argazki onenekin, herriz herri ibili den erakusketa ibiltaria antolatu dute. Hain zuzen, mendi taldeak antolatutako mendi astearren barruan dago ikusgai Oñatin.

> ODOL-ATERATZEA

Urteko bigarren odol-ateratzea egingo dute gaur arratsaldean, Txantxiku ikastolan

Oñatiko odol emaitzen taldeak antolatuta odol-ateratzea egingo dute gaur arratsaldean. Donostiatik datozen mediku eta erizainak arratsaldeko seietan hasiko dira ateratzeak egiten, 20:30ean.

Txantxiku ikastolako geletan egingo den ateratzea urteko bigarrena izango da. Urtea bukatu arte, hilero, ateratze bat egingo dute, uztailean eta abuztuan izan ezik. Odol-ateratzea egingo duten hurrengo egunak, berriz, hauek dira: martxoaren 7an, apirilaren 11n, maiatzaren 9an eta ekainaren 6an.

ONDAREA > LEINTZ IBARRAUNDI FUNDAZIOA

Leintz Ibarraundi fundazioaren "garapena gelditzea" erabaki dute

Eusko Ikaskuntzak fundazioaren gainean hausnarketa sakonagoa egin gura du

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eusko Ikaskuntzak eskatu du Leintz Ibarraundi Fundazioaren proiektuaren garapena, oraingoz, gelditzeko. Hala jakinarazi zuen Pedro Lasagabaster alkateak osoko bilkuran. Fundazioaren

proiektua aspalditik dator, iaztik, hain zuzen ere. Aurreko agintaldian abiarazi zuen egitasmoa Udalak, eta ibarreko udalekin eta Eusko Ikaskuntzarekin harremanetan jarri zen ekimena elkarrekin egiteko.

BEATRIZ AKIZU KOORDINATZAILEA
Eusko Ikaskuntzak hasieratik begi onez ikusi zuen asmoa, eta baliabideak eta babesak eskaini zituen. Are gehiago, Beatriz Akizu antropologoa eskaini zuten proiektua koordinatzeko.

Fundazioaren Leintz ibarreko kultura eta ondarea kudeatzeko sortu zen. Gainera, fundazio hori Udaletik independentea da: Udalak eta Eusko Ikaskuntzak ordezkariek izango zituztela erabaki zen; baita herriko elkarte, erakunde eta herritarrek ere. Bultzatzaileen esanetan, kultura ekintzak, ondarea osotasunean eta udalerririk dituen inguru naturalak baliatuko zituzten Eskoriatzara eta, oro har, ibarreko turismoa eta bestelako bisitariak erakartzeko.

Iaz, maiatzaren 18an, Eskoriatzako Udalbatzak Leintz Ibarraundi fundazioa erabaki zuen estatutuak onartzea erabaki zuen ohiko osoko bilkuran. Orduan udal ordezkariak berretsi zuten helburua zela Eskoriatzako eta oro har Leintz ibarreko ondarea kontserbatu, ikertu eta ezagutzera ematea.

LOGOTIPO LEHIAKETA

Sasoi hartan fundazioaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa ere antolatu zuten. Hasi ziren logotipoak jasotzen, baina bi bultzatzaileek proiektuaren gainean hausnarketa sakona egitea pentsatu zuten.

UDALBATZA BERRIA

Hain zuzen ere, ekaineko udal hauteskundeetan udalbatza aldatu egin zuten, eta udalbatza berria Eusko Ikaskuntzarekin batzartu zen fundazioaren asmo eta egitura hobeto aztertzeke. Finantzaioaren eta funtzionamenduaren gainean zalantzak agertu zituzten, eta proiektua atzeratu egin zen.

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak elkarri hainbat proposamen egin zituzten. Eusko Ikaskuntzak eskatu zuen fundazioak Beatriz Akizu kontratatzea; eta Udalaren eskaerak izan ziren Isabel Aramendia kontratatzea katalogazioak egiten jarraitzeko, eta fundazioan herritarren iritzia integrazteko batzorde irekia sortzea.

UDALAREKIN LANKIDETZA

Eusko Ikaskuntzak erabaki du proiektuaren garapena, momentuz, gelditzea, baina, bestalde, Udalarri jakinarazi dio, hainbat ekimen egiteko, lankidetzari eutsi gura diola. Horrez gain, Eusko Ikaskuntzak Beatriz Akizu kontratatu du. Udalak, berriz, Isabel Aramendia sei hilabetetarako kontratatu du.

Pedro Lasagabaster alkatearen esanetan, Eusko Ikaskuntzako ordezkariekin elkarrizketak egiten jarraituko dute; eta alkateak garrantzitsua deritzo erakunde horrek Udalarekin hartu-emanak izaten jarraitzeko asmoa berretsi izanari.

INGURUMENA > ARBIÑOSTE

Egunotan dabilta Arbiñosteko lur kutsatuak ateratzen, aztertzerara eramateko

Eusko Jaurlaritzako Orubide dabil lur kutsatuak Arbiñostetik ateratzen

Santa Anako aparkalekuko zati handi bat itxita dago, lanen ondorioz

I.B. > ESKORIATZA

Martitzenean hasi zen hondeatzeko makina bat Arbiñoste ingurutik lurra ateratzen. Izan ere, orain dela bi aste Jaurlaritzako Orubide enpresako arduradunak konturatu ziren Arbiñosteko orube handiko hiru lekutan kutsatuta egon zitezkeen lurrak zeudela. Hain zuzen ere, hiru leku hauetan aurkitu zituzten halako lurrak: Santa Anako aparkalekuan, orubearen erdialdean eta Isasmendi inguruan ere.

Lehenik eta behin laginak hartu zituzten, Herbehereetan adituek azter zitzaten. Dagoeneko emaitzak jaso dituzte, eta jakin dute hara eramandako lurrek kutsadura txikia dutela.

LURROK, IBARRETIK KANPO

Hala ere, Orubidek erabaki du lur horiek handik atera eta hobeto aztertzen jarraitzea. Horregatik, martitzenean hasi ziren Cespa Conten eta Terranova enpresak Arbiñosten lan hori egiten. Aipatutako hiru puntuotan, bakoitze-



LUR DEZENTE Lur multzo handia eraman dute Arbiñosteko hiru puntu zehatzetatik.

MIRIAN BITERI

an, bi metro eta erdiko luzera daukan zulo bana egin dute, bertan dagoen ustezko lur kutsakorra ateratzeko.

APARKALEKU BARIK

Udaleko Obra eta Zerbitzuetako arduradunak jakinarazi digute Santa Anako aparkalekuaren gaineko kezka dutela, auzotarrek

aparkalekua asko erabiltzen dutelako, eta orain zati bat bakarrik egongo delako erabilgarri. Hain zuzen ere, momentuz, ezin da aparkaleku horretako eremu handi baten aparkatu, bi arrazoiengatik: bata, zulo handia dagoelako eta horren inguru babestuta dagoelako; eta bestea, hondeatzeko makina eta kamioia

lanean ibili ahal izateko, langileek aparkalekuaren zati bat libre behar dutelako.

Hori dela eta, Udaleko ordezkariak jakinarazi digute lurren azterketek zer esango duten zain daudela. Hori jakin bezain laster, ikusiko dute aparkalekuaren arazoari zein konponbidea ematea komeni den.

> ARATUSTEAK

Aratuste-zapatu arrakastatsua ospatu zuten herrian

Udalak eta tabernariak Aratuste-zapatua indartzeko egindako lanak emaitza onak lortu ditu. Antolatzaileen esanetan, uste baino herritar gehiago mozturatu ziren.

Horrekin lotuta, tabernariak antolatu zuten lehiaketako zerbaki irabazlea 329a da. Txartel hori duenak sei lagunendako egonaldia irabaziko du landetxe baten. Ezker abertzalearen zozketako zerbakia, berriz, 04652a da.

Bestalde, Udaleko webgunean Aratusteetako argazkiak jartzea gura baduzu, bidali lehenbailehen kultura@eskoriatza.net-era.

> ORDEZKARITZA

Kutxaren batzarretan ordezkari izango du Udalak

Joan den asteko Udaleko osoko bilkuran erabaki zuten Kutxaren gobernu batzarretan Eskoriatzako Udala ordezkari egotea.

Egitasmo hori Debagoieneko Mankomunitateko batzar baten erabaki zuten. Hain zuzen ere, Antzuola, Arrasate eta Eskoriatzako ordezkariak konturatu ziren hirurak batuz gero, Kutxaren gobernu batzarretan, Donostian, ordezkariak propioa izan zezaketela.

EA Eren eta Elizateak elkartearen aldeko botoekin onartu zuten asmo hori. Orain, hiru udalak elkarren artean harremanetan jarriko dira ordezkaria zein izango den erabakitzeko.



SPINNING IKASTAROA Argazkian, hainbat eskoriatzar kiroldegian spinning eskola baten.

IKER BARANDIARAN

ZERBITZUAK > KIROLA

Goienasporti esleitu dizkiote kirol zerbitzuak

Hiru enpresa aurkeztu ziren igerilekuan sorosle lanak egiteko, kiroldegiko harrera-lanak egiteko eta ikastaroak emateko lehiaketa publikora

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Luze jo du kiroldegiko zerbitzuak esleitzea, baina azkenean bukatu da prozedura. Hain zuzen ere, osoko bilkuran Aretxabaletako Goienasport enpresari adjudikatu zioten zerbitzua.

Hiru enpresa aurkeztu ziren Udalak irekitako lehiaketa publikora: Gasteizko VGSK, Goierrri

aldeko Goierrri Kirolak eta Aretxabaletako Goienasport, eta azken horrek lortu ditu puntu gehien.

IKASTAROEZ GAIN, SOROSLE LANA
Hala, enpresa horrek egingo ditu sorosle lanak igerilekuan, harrera-lanak aste bukaeretan eta opor egunetan, eta, horrez gain, hain-

bat ikastaro emango ditu aste barruan. Ikastaroen eskaintza zabala da, eta, besteak beste, aerobika, spinninga, batuka eta gimnasia emango dute. Gimnasiaren barruan, gainera, hirugarren adinekoei eta zailtasun fisiko zein psikikoak dituztenei zuzendutako eskolak egongo dira.

Aipatu beharra dago, lan horiek egitearren, Udalak Goienasporti urtean 113.623 euro ordainduko dizkiola. Bi urteko kontratua egin diote Goienasporti, baina, arazorik ez badago, 10 urtera luza dezakete.

POLITIKA > ETXEBIZITZA

EB-Berdeek salatu dute Udalak ez daukala etxebizitzaren gaineko politika argirik

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako EB-Berdeak taldeak jakinarazi du arduratuta dagoela "Udalak ez daukalako etxebizitzaren arazoa konpontzeko politikarik". Horrez gain, etxebizitzaren arazoarekin lotuta hain-

bat datu eman ditu. Hala, berbaigai izan ditu Etxebideren zenbait datu: 2007ko irailean udalerriko 205 lagunek etxebizitza eskatera egina zuten; eta herritar horietatik %60k 35 urte baino gutxiago zituzten.

EB-Berdeak taldeak gogora ekarri du etxe hutsak alokairuan jartzeko Bizigune programa alternatiba izan daitekeela.

Bukatzeko, salatu dute Udalak etxebizitzarekin lotutako politika finkatu beharko lukeela.

ONDAREA > ITURRI ZAHAR'

'Iturri zahar' berreskuratuko duela argitu du Udalak

XVIII. mendeko iturria utzita dago aspaldian, baina konpontzeko asmoa du Udalak

I.B. > ESKORIATZA

Aurreko astean, GOIENKARIAko Txaloak eta Txistuak atalean herritar batek helarazitako kexaren berri eman genuen. Auzotar hark azpimarratu zuen Arbiñoste ondoan dagoen *Iturri zahar* iturria zeharo abandonatuta dagoela. Orain dela 6-7 urte ez du urik ematen, lehen ematen zuen metal ura galdu zelako.

Horrez gain, Arbiñosten etxe berriak egiteko proiektua onartu zutenetik, are eta utziago gelditu da iturria. Gainera, egunero kamioiak pasatzen dira albotik eta inoiz ibilgailuren batek kolperen bat ere eman izan dio iturriari.

Herritar horren eskaera da hain antzinakoa den iturri hori *hiltzen* ez uztea.

XVIII. MENDEKOA

Hori guztia jakin ostean, Ibarraundi museora jo genuen iturri horren historia jakin guran. Hango arduradunek esan digute *Iturri zahar* XVIII. mende bukaerako dela, eta egilea San Pedro parrokia egin zuen Ibero arkitektoa dela.

URTE ASKOAN, METAL URA

Bestalde, Udaleko Obra eta Zerbitzuen arduradunek azaldu digute iraganen bi iturburu zituela: batetik, metal ura; eta bestetik, ur normala ematen zuela. Baina, metal ura galdu zen, eta oraindik ez dute aztertu hori berreskuratuta ahal izango duten.

Bestalde, jakinarazi digute azpiko garbitokitik *Iturri zahar*-eraino ura eramanda dutela; eta Arbiñosteko lanak bukatu bezain laster iturria konponduko dutela. Ez hori bakarrik: Udalaren asmoa da Bidebarrietara joateko bidea ere konpontzea, inguruko lanak bukatzen direnean.



OSO UTZITA Azken urteotan, iturria oso utzita dago.

I.B.


> AISIALDIA

Gaztelekuaren funtzionamendua gurasoei azaltzeko, batzarra deitu dute egunerako

Asteburuan hainbat ekitaldi egingo dituzte gaztelekuan: egubakoitzean mahai futbol txapelketa egingo dute; eta zapatuan film emanaldia. Bestalde, gazteleku kudeatzen duen Txatxilipurdi elkarteak gazteleku gurasoendako batzarra deitu du zerbitzu horren funtzionamendua azaltzeko. Eguenean, hilaren 14an, egingo dute, 19:00etan, gaztelekuan bertan.

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA



FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01



bere ustez



Alaitz Jauregi

Txutxu-mutxu pila bat zertarako?

Konturatu zate ze punturaino allegau gan danok gaur egunian?

Irteten gara kalera ta: "Han doiana bai, beti kejatzen diruik ez daukalako ta kotxe eta etxe berrixak erosi dittu!".

Jun errekautara ta: "Honek, berriz, bikotia laga dau ta haren andrian anaian hasi da".

Kafe bat hartzeko geratu ta: "Harek esan dost beste honek esan jaola, haren anaian aldamenekuan arrebian kuñatuan lankidiak esan jaola...".

"Badakizue zenbat gai interesante daen munduan txutxumutxuak ez dienak?"

Baina haber. Ez dauku nahikua norbere burukominekin ala?

Ze bihar dauku bestien gauzetaz berba eitteko! Badakizue zenbat gai interesante daren munduan txutxumutxuak ez dienak?

Gainera kritika gehixenak onerako izen biharrian kalterako erabiltzen dittugu.

Akaso ez ginake hobeto biziko bai gu ta bai aldamenekuk gustura bizi diela ikusitta?

Zelako zaila eitten doun hain erreza izen biharko litzakena: inguruak eitten dabena errespetatzia, inon txarrrako ez bada behintzat.

Ahalegindu gaittezen norbere bizitza alkar lagunduta aberasten, alperriko elkarrizketetan denboria galdu barik.

AZPIEGITURAK > GIZARTE ETXEA

Torresoroa izena ipiniko diote gizarte etxe berriari

Udalaren asmoa da udarako abian ipintzea gizarte etxeko hainbat zerbitzu: eguneko zentroa, erretiratuen lokala, zaintzapeko etxebizitzak eta liburutegia

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Udalbatzak, Kultura Batzordearen proposamena onartuz, erabaki du Sagasti auzoan dagoen eraikin berriari Torresoroa izena ematea; izan ere, Torresoroa deitzeko proposamena aurkeztu zuen batzordeak, idatzizko agirietan inguru hori izendatzeko jasota dagoen toki izena delako. Gainera, izendatzeko orduan Antzuolako toponimiaren gainean egindako lana hartu dute aintzat.

Gizarte etxeari izena ipinita, eraikineko zerbitzuak abiaraztea da hurrengo pausoa: "Asmoa da udarako martxan jartzea erretiratuen lokala, eguneko zentroa, zaintzapeko bi etxebizitza eta liburutegia. Auditorioa geratuko litzateke gerorako", esan digu alkateak.

LANTALDE BERRIA

Bestalde, udalbatzarrean Zutik-EB-Berdeak-Aralar taldeak proposatu zuen batzorde ezberdine-

tako partaideek osatutako lantalde berezi bat eratzea gizarte, kultura eta kirol zerbitzuak aztertze-ko. Taldeak zehaztuko lituzke zerbitzuen kudeaketa eta funtzionamendua; mantentze-lan eta garbiketa premiak; giza baliabideak; erabiltzaile posibleekiko harremanak; finantzazio bideak; eta inplikaturako batzordeen elkarlana. Erabaki zuten gaiak lehengo batzordeetan lantzea eta gero koordinazio taldea eratzea.



ERAIKINA Sagasti auzoan dihardute gertatzen Torresoroa gizarte etxea.

IRATI AGIRREAZALDEGI

UDALA > AURREKONTUA

Herritarrek beharra ikusi dute gauza txikietan inbertitzeko

I.A. > ANTZUOLA

Joan zen astean barrena Udal ordezkariak batzarrak egin zituzten auzorik auzo. Aurrekontua gertu ez dagoen arren, zein inbertsio aurreikusten dituzten azaldu zieten herritarrei, baita euren

iritzia jaso ere, auzo bakoitzean zein behar dauden jakiteko. Alkateak esan digu, auzo batzuetan besteetan baino gehiago, baina oro har antzularrek parte hartu dutela bileretan eta egunero-kotasuneko gauza txikiak nabar-

mentu zituztela beharren artean: zabua k, garbitasuna, erreka-ko sasiak garbitzea...

INBERTSIO NAGUSIAK

Alkatearen esanetan, "2008ko aurrekontuaren helburua da beste mailegurik ez ateratzea. Hortaz, inbertsioei dagokienez, asmoa da gizarte etxeko hainbat zerbitzu abiaraztea; kirol instalazioetan inbertitzea; eta base-riretarako ur eta saneamendu proiektuari heltzea".

> HEZKUNTZA

Asteon hasi dira ingeles eta informatika eskolak helduendako

Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak asteon hasi dituzte. Ingelesko eskolak martitzenetan eta egunenetan izango dira, 15:00etatik 17:00etara, eta Informatikakoak astelehenetan eta eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara. Izena eman nahi dutenek udal-letxera jo behar dute.

> ELKARTASUNA

Anelkarrek 33 kutxa bete ditu Saharara bidaltzeko

Anelkarrek 95 kilo azukre, 45 kilo atun, 273 pakete konpresa, 160 kilo dilista (lentejak), 210 kilo arroz eta gluten bako 10 kilo makarroi jaso eta 33 kaxa bete ditu Sahararako. Dirutan, 1.500 euro ipini ditu elkar-teak eta 725 euro jaso ziren Santa Ageda eskean. Hortaz, esker-rak eman nahi dituzte.

> GAZTEAK

Gazte txokoaren eskutik tailerrak, txapelketa eta irteera

Otsailaren hainbat ekintza izango dira gazte txokoan: 9an, ping-pong txapelketa; 17an, Txapa Irratian irrati tailerra; eta 23an, eskiatzera irteera. Bestalde, zapatu gaue-tan zinema-foruma izango da 12 eta 15 urte arteko gazteen-dako. Otsailaren 8an *La vida de Brian* filma emango dute.

> MENDIA

Arrola elkartearen urteko batzarra egubakoitzean

Egubakoitzean, otsailaren 15ean, Arrola Mendizale Elkarteak urteko batzarra egingo du. 19:30ean izango da bilera bazkideekin, Olaran etxean. Batzarraren ostean, Angel Cuerdok *Hegoamerika motoz Che-ren bidetik* ikus-entzunezkoa emango du.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

OMENALDIA > JONE MUXIKA

Jone Muxika: "Eskertzekoa da herriak omenaldia egitea"

Omenaldiko ekitaldi nagusia Espaloian egingo dute, 13:00etan; bazkaltzeko 80 bat lagunek eman dute dagoeneko izena

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Jone Muxikak denboraldi bikaina egin du ziklo-krosean. Gipuzkoako txapelduna, Euskadiko txapelduna, brontzezko domina Espainiako txapelketan eta urrezko domina Espainiako selekzioen arteko errelebu proban... horiek guztiak lortu ditu. Gainera, bestelako 14 lasterketa irabazi ditu.

Hala, Elgetako Txirriindulari Elkarteak eta Udalak merezitako omenaldia egingo diote etzi, domeka. Bi ordu eta erdiko bizikleta irteera antolatuta dute herriko txirriindulariendako, 09:30ean Herriko Plazatik irtengo dena. Umeendako, berriz, Asentziorainoko bizikleta irteera eta jolasak prestatu dituzte ermita inguruan.

Omenaldia 13:00etan egingo diote Espaloian. Bazkaria ere egingo dute. Jendetsua izango da; izan



JONE MUXIKA Bizikleta gainean ikusten dugu gehienetan herrian.

GOIENKARIA

ere, izena emateko azken eguna eguaztena zen, eta 80 bat pertsona daude aurreikusita.

JONE MUXIKA, OSO POZIK

Muxikak esan du oso pozik dagoela herriak egingo dion omenaldiarekin. "Niretako Elgeta berezia da denerako. Ez dizkizute horrelako omenaldiak edozein lekutan egiten", adierazi du. "Egia esan, asko ahalegindu naiz eta kostata lortu ditut egindako emaitzak. Herria konturatzea eta omenaldi

bat egitea beti da eskertzekoa". Pertsona umila da Muxika, eta urduria ere bai. Esan digu omenaldia egitekoak zirela esan ziotenean ez zuela bere burua paper horretan ikusten. Orain, gero eta urduriago dagoela esan digu: "Zerbait xumea izango zela uste nuen, baina ikusten nago jende askok eman duela izena bazkarirako, eta urduritzen hasita nago".

Goizeko bizikleta irteeran parte hartuko duela esan digu: "Lagunarteko buelta izango da".

SENTENTZIA > ISTRIPUA

Kartzela zigorra eta 38.950 euroko isuna gidariarendako

Asentzio aldetik zetorrela, errepidean lanean ziharduen langilea harrapatu zuen autoarekin

A.B./L.Z. > ELGETA

2005ean gertatu zen ezbeharra. Opel markako autoan zihoan gidari batek Elgetako G-2639 errepidean lanean ziharduen behargina harrapatu zuen.

Donostiako epaitegiaren sententziak dio gidaria alkoholaren eraginpean zihoala eta ez zituela langileek errepidean jarritako seinaleak errespetatu. Hala, sei hilabeteko kartzela zigorra

eta 38.950 euroko isuna ordaindu beharko ditu. Kaltetuari 25.350 euro eman beharko dizkio, eta haren aseguru etxeari, 13.600 euro. Gainera, ezingo du bi urtez gidatu, zirkulazio segurtasunaren kontrako delitua egin izanagatik, hain zuzen ere.

Epaiketan fiskaltza eta akusatua ados jarri dira, azken horrek fiskaltzak ezarritako zigorra onartu du-eta.



Julio Calleja, erakusketan ipini duen erretratuarekin.

L.Z.

Julio Calleja > Argazkilaria

"Argazki sinpatikoak aukeratu nahi izan ditut"

L.Z. > ELGETA

Argazkilaria profesionala da Julio Calleja, baina Espaloioa lehenengo erakusketa du. Kafe antzokian etxean moduan sentitzen dela esan digu. Unea jaso ditu erakusketan, hortik izenburua: *Unea*.

Erakusketa 20 bat argazkik osatzen dute. Nola aukeratu dituzu?

Asko ditut etxean, eta nire gustukoak direnak aukeratu ditut, beste barik. Argazki bilduma sinpatikoa jartzen saiatu naiz. Espaloioek eskatu zidaten erdiek gutxienez Elgetakoak behar zutela. Eta horrela da.

Jaso dituzun lehenengo iriztiak zelakoak izan dira?

Erakusketa zabaldu berria dut. Jende gutxi ikusi du oraindik. Oraingo, baina, badirudi jendeak gustuko duela.

Argazki guztien artean bat. Zein aukeratuko zenuke?

Oinaztuarena. Denbora luzea behar izan dut lortzeko. Sei edo zazpi urte! Gainera, izenburua ematen dio erakusketa guztiari. Hura bai ueña!

Non atera zenuen?

Etxeko balkoitik, azkenean. Askotan joan izan naiz hilerriko atzeko aldera, leku hartan oinaztu asko jausten delako. Baina, hara, azkenean, etxeko balkoian lortu nuen ueña hura argazki kamerarekin harrapatzea.

Erakusketako argazki asko lanerako aterako zenituen.

Ez. Bakarra dago. Angiozarko sutearena. Gainerako guztiak argitaratu bakoak dira. Eguneroko jardunean nabielela, ueña gustatu eta argazki kamerarekin harrapatutakoak.

Lehenengo erakusketa duzu. Zu zeu argazki erakusketak ikustera joaten zara?

Gustatzen zait joatea, baina lanbidearen ajea daukat, eta ez ditut gustura ikusten. Erakusketa honetan, argazki asko Elgetakoak dira. Hurbiltasun kutsu hori jendeari gustatu egiten zaio.

22 urte daramazu Elgetan bizi izaten. Gustura bizi zara?

Erregeen legez bizi naiz Elgetan. Ikaragarritzko bizi kalitatearekin, gainera. Bai, jauna!



L.Z.

Makinak lanean ari dira Salvador kaleko obren lehenengo fasean

Zirkulazioarendako bidea itxita egon da asteko lehenengo egunetan Kataian. Amaral de Sousa enpresako beharginak arkupean aritu dira lanean. Ur-hoditeria berria ipinita dago frontoi pareraino. Salvador kaleko urbanizazio lanetan hoditeria guztia berrituko dute eta Kataiko arkupean zirkuitua itxeko lotura lanak egin dituzte.

Atzerapenarekin hasi dira obra horiek. Udaletik adierazi dutenez, baimen baten zain egon dira. Indusketa lanak ere zertxobait luzatu dira. Arkupeko lanak egin ostean Elkoro botikatik Salvador kalerainoko tartean jarraituko dute lanean beharginek.

Pedro Uribarrena > Arkeologoa

"Jende askok ez du estimatzen zenbait monumentuk daukaten benetako balioa"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Orixol Mendi Elkartean *Aramaio-ko ondarea berreskuratzen* argazki erakusketa aitzakia hartuta, Udalak herriko ondarearen inguruko hitzaldia antolatu zuen joan den barikurako. Pedro Uribarrena eta Javier Fernandezek egin zuten hitzaldia.

Ze aztertu zenuten joan den barikuan egindako hitzaldian?

Javier Fernandezek eta biok egin genuen hitzaldia. Javier Fernandez Arabako Museo Arkeologikoko teknikaria da eta hura ondarearen inguruan aritu zen; hau da, ze den ondare moduan ulertzen duguna eta ze esparru hartzen dituen. Nik, berriz, Aramaioz hitz egin nuen. Aramaion, ondarearen ikuspuntutik, interesa daukaten lekuak aztertu nituen.

1998an Aramaioiko inbentario arkeologikoa egin zenuten biok. Zer dela eta?

Arabako Museo Arkeologikoak eskatutako lana izan zen. Arabako lurralde historikoko beste herri batzuetan ere gauza bera egin genuen. Baina onartu beharra daukat gure enpresak gogo berezia ipini zuela Aramaioaren kasuan, nik neuk oso ondo ezagutzen dudalako ingurua, eta garai hartan Aramaion bizi nintzelako.

Zeintzuk dira Aramaioiko ondare arkeologiko eta historikoaren ezaugarriak?

Aramaioiko ondare historiko eta arkeologiko gehiena aztertzeke dago oraindik. Interesa daukaten lekuak ezagutzen dira eta kokatuta daude, baina ez da inolako hondeaketarik egin. Ez



Pedro Uribarrena.

P.U.

da, esaterako, Aramaioko burdinola, nekropoli edo dolmen motak zehazteko inolako azterketarik egin. Baserriei dagokionez, landa eremuko ondarearen inguruko inbentario bat badago. Bertan baserrien argazki mordoa jasotzen dira, baita haien arkitekturaren inguruko informazioa ere. Araban egin zen landa eremuko lehenengo inbentario

"Etnografia ondare kontsideratu behar da, eta, zentzu horretan, azkar ibili beharra dago. Izan ere, adineko jendea da gai horren inguruan informazio gehien eman dezakeena"

arkeologikoa izan zen. Dena dela, oraindik lan asko dago egiteko, arkeologiaren eta etnografiaren ikuspuntutik.

Ondarea berreskuratze elkarre bat sortu nahi dute herrian. Ze iruditzen zaizu?

Ondarea zaindu eta berreskuratze ahalegina beti da garrantzitsua. Baina ez Ara-

maion bakarrik, Leintz bailarako herri guztietan. Zenbait monumentuk Foru Aldundia- ren babesa daukate, baina beste batzuek ez, gehienbat, ezagutzen ez direlako. Kasu horietan, Udalen lana oso garrantzitsua dela uste dut.

Beste alde batetik, etnografia ondare gisa kontsideratu behar dela uste dut, eta, zentzu horretan bizkor ibili beharra dago. Izan ere, adineko jendeak eman dezake gai horren inguruko informazio gehien, eta, hortaz, haiek hiltzean, guztiz ezeguna den mundu bat galtzeko arriskua daukagu. Adibidez, adineko jende horrek azal diezaguke, besteak beste, lihoa nola egiten zen eta iturrietako urak nola erabiltzen zituzten gaitzak sendatzeko.

Aramaioarrek ezagutzen dute herriko ondarea?

Orokorrean, oso ondo ezagutzen dute aramaioarrek euren bailara eta herria. Ondareari dagokionez, baina, jende askok ez du estimatzen monumentu edo elementu jakin batzuek daukaten benetako balioa, bere bizi guztian bertan ikusi dituelako. Horregatik, oso garrantzitsua da ondarearen inguruan lan egiten duen jendeak herriko monumentuek daukaten garrantzia azpimarratzea.

Gustatu zaizu Orixol elkarte-koek antolatutako argazki erakusketa?

Bai, oso lan ona egin dute. Nik bide horretan jarraitzeko aholkua eman nien elkartekoei, eta nire laguntza ere eskaini diet dokumentazio gaitan eta esparru arkeologiko eta etnografikoan.

ARATUSTEAK > LEHIAKETA

Giro polita zapatuan, mozorro lehiaketan

Mozorro landuak eta oso originalak izan ziren lehiaketan parte hartu zuten guztiak

A.B. > ARAMAIO

Giroa, paregabea, eta lehiaketan, oso maila handia. Mozorro lehiaketan parte hartutako koadrilek gogoz jardun zuten lanean euren mozorroak prestatze-

ko, horrelakoak ez dira-eta egun batean gertatzen. 14 urtetik gorako kategorian, Air Panda taldeak lortu zuen lehenengo saria, eta Veneziatik Etorrita taldeak, bigarrena. Gaztetxoan kategorian, 14 urtetik beherakoenean, Animalia Txikiak izan ziren irabazleak, eta bigarren postuan gelditu ziren Step Up Dantzan taldekoak. Originaltasunaren bi sariak, bestetik, Medusak eta Txorimaloak taldeek irabazi zituzten, hurrenez hurren.



ARATUSTEAK Step Up Dantzan taldeak bigarren saria lortu zuen.

R.M.

> UDALA

Izenematea, zabalik ezinduen termalismo programarako

Termalismo eta turismo programa horretan parte hartzeko ezinbestekoa da ezintasuna %33 baino handiagoa izatea. %50 baino handiagoa daukatenean, baina, lehentasuna izango dute. Bestetik, 16 urte baino gehiago izan behar dituzte. Bestela, gurasoek lagunduta joan behar dute. Laguntzaile bat ere eroan dezakete %75 baino gehiagoko ezintasuna onartuta daukatenean eta gurgildun aukia erabiltzen dutenek. Izenematea otsaila, martxo eta apirila bitartean egin behar da udaletxean bertan.



GATZ MUSEOA Herritik Dorleta santutegira bidean dago Eugenio Otxoa gatz museoa.

GOIENKARIA

AZPIEGITURAK > GASA

Gas bonbona jarriko dute gatz museoan, Repsolek egindako eskaintza bati esker

Argindarra erabiltzen dute orain museoan, eta gasaren aldeko apustua egingo du Udalak; horretarako, lanak egin beharko dituzte eta bonbona bat jarri alboan

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Gatzagako baserrietan gasa jartzeko eskaintza egin zuen Repsol enpresak orain aste batzuk, baina baserritarren aldetik ez da eskaerarik egon. Udalak, ostera, eskaintza onartu eta gatz museoan jartzea erabaki du.

BASERRITARREK, EZETZA
Repsolek proposatu zuten baserritarrei gas bonbona jartzea baserri bakoitzaren alboan, eta horretarako diru-eskaintza bere-

zia egin zien. Eskaintza, baina, berandu iritsi da baserrietara. Izan ere, batzuek orain urtebete inguru jarri zuten gasolio bidez berotzeko sistema. Horregatik, orain ez dute berriro dirutza ordaindu gura aldatzeko. Hala xe jakinarazi digu Eusebio Villar alkateak: "Eskaintza ona izanda ere, igual 6.000 euro ordaindu beharko lukete gasa jartzearen, eta ez du inork eskaerarik egin. Gainera, gasak ere azkenaldian gora egin du; hortaz, gasolioaren

eta gasaren artean ez dago halako diferentziarik dirutan". Baserritarrek ezetza eman arren, Udalak erabaki du Eugenio Otxoa gatz museoan jarriko duela gas bonbona. Argindarra erabiltzen dute orain museoan, eta gasaren aldeko apustua egitea erabaki dute: "Pentsatzen dugu merkeagoa izango dela gasa. Eta aldaketa egiteko egin beharreko lanak aurtengo aurrekontuetan sartzeko asmoa daukagu", azaldu du Villarrek.

BADUTE GASA ETXE BATZUETAN
Herriko hainbat etxetan dagoeneko badaukate gasa, eta beste batzuetan laster izango dute, instalakuntza lanak egiten dituztenean. Horiei guztiei 2006an egin zizkieten azpiegitura lanak, baina 2007ko abendu arte itxaron behar izan zuten gasa izateko.

Bigarren faseko lanei, ostera, hil honen bukaeran edo martxo hasieran ekingo diete. Aikia enpresak egingo ditu, eta sei hilabete inguru aurreikusitako dituzte.

Hotz egin arren, giro polita Aratusteetan

Aratuste-zapatu hotza girotzeko jokoak gertatu zizkieten guraso elkarteko kideek umeei. Hiru talde egin zituzten: txikienendako marrazkiak; 6 eta 12 urte artekoendako *Altxorraren bila*; eta nagusienendako *CSI* ikerketa jokoak. Bukatzeko, txokolate beroa hartu zuten guztiek.

Helduak afaltzeko batu ziren. Giro bikaina sortu zuten, kantuan batzuek -Artabila anaiak eta Periko- eta dantzan beste batzuek.



EDORTA ARANA

> HAUTESKUNDEAK
Hauteskunde-mahaian egoteko zozketa egingo dute

Ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak otsailaren 13an, eguaztena. Eta beste gai batzuen artean, martxoaren 9an egingo diren hauteskundeetan zein herritarrek egon behar duen hauteskunde-mahaian aukeratu dute. Gatzagan hauteskunde-mahai bakarra egongo da San Migel plazan dagoen Haur Eskolan, eta hauteskunde-mahaiko burua eta bi mahai-kideak hautatu beharko dituzte, baita ordezkioak ere. Ondoren, jakinaren gainean jarriko dituzte hautatutakoak, eta erreklamazioak aurkezteko denbora izango dute.

> INTERNET
Gaur eta hilaren 22an egingo dituzte ikastaroak KZgunean

Pilar kalean dagoen KZgunea 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik astelehenetik egubakoitzera bitartean, otsailean. Ikastaroak, ostera, bi egubakoitzetan egingo dituzte: gaur eta hilaren 22an. 18:00etatik 20:00etara artean egongo da Aitor Madrid arduraduna KZgunean, eta herritarren zalantzak argitzea eta ikastaro motzak egitea izango du helburu. Interneten gaineko ikastaro asko ditu aukeran Madridek, eta erabiltzaileek egunean bertan aukeratuko dute zein egin. Hori bai, 16 urtetik gorakoendako dira.

FUTBOLA > MIKEL GONZALEZ, REALEKO JOKALARIA

"Igoeran pentsatzeak larritu baino motibatu egiten gaitu"

Arrasatekoak badaki domekako kontrario Poli Ejidok ezustea eman dezakeela

"Helburu ezberdinak ditugun bi talde gara, baina Anoetan irabazi egin ziguten"

XABIER URTZELAI > ZUBIETA

Azken denboraldi hauetan Realeko atzealdeko postuetan lekua duela erakusten ahalegindu da Mikel Gonzalez (Arrasate, 1985), eta inork zalantzak bazituen, aurtengo denboraldian berretsi egin du hori.

Colemanek konfiantza eman zion, eta Jose Ramon Eizmendik ez du dudarik izan: hasierako hamaikakoan behar du Gonzalezek. Hala, aste barruan Arrasatekoak onartu du Poli Ejidoren kontrako partidua gaitza izango dela: "Nik uste dut kategoria honetan ezer ez dela erraza, eta talde horrek lehenengo itzulian irabazi egin gintuen, hortaz...". Almeriakoez hainbat norgehiagoka galdu dituzte jarraian: "baina futboleko aurreko emaitzetaz ez dago fidatzerik".

KONPETENTZIA HANDIAGOIA

Iñaki Badiolak egin dituen fitxaketak direla-eta, Arrasatekoarendako konpetentzia beti da ona: "Postu bakoitzarengatik lehia handiagoa izango da, hori ondo dago. Eta, taldekideek gure ongiatorria izan dute". Hala, uste du zelaiaren erdigunerako inor



ENTRENATZEN Mikel Gonzalez futbol-tenisa egiten, atzean Elustondo eta Garitano dituela.

XABIER URTZELAI

fitxatu ez izana lehenago zeudenez konfiantza dagoelako dela. Astero hasierako hamaikakoan egotearen gainean ere egin du berba: "Urteak daramatzat horretarako lanean, eta egia da geroago eta partidua gehiago jokatzen dituzunean hobeto sentitzen zarela, konfiantza handiagoarekin".

NOBEDADE HANDIAK

Etorri diren jokalarien artean, Pep Marti azpimarratu du Arrasatekoak "Fran Merida eta gaitzakoak ez nituen horren gertutik ezagutzen, baina Martik denboraldi ederrak egin ditu Sevillan, eta bistan da maila oneko jokalaria dela". Horrekin batera, azkenaldian kluba astin-

tzen dabilzan kontuen gainean ere galdetu genion: "Kontu horiek komunikabidetik jarraitzen ditut, baina jokariengan ez dute zertan eraginik izan". Hala, jokalariei Lehenengo Mailara igo behar izate horrek larritasuna baino motibazioa sortzen diela azpimarratu du Gonzalezek.

Eskola Arteko B mailako gimnasia erritmikoko txapelketa, bihar

A mailako txapelketaren ondoren, bihar egingo dute Arrasateko Uarkape kiroldegian Eskola Arteko B mailako txapelketa.

Goizean, 10:00etan hasita, alebin, infantil eta kadete mailako gimnastek hartuko dute esku eta arratsaldean benjamin mailako erakustaldia egingo dute (16:30etan hasita). Guztira 60 gimnastek hartuko dute esku, eta tartean izango dira Dragoiko eta Ariznoako gimnastak.



ARRASATE DRAGOI TALDEA

> MENDIKO BIZIKLETA Arrasateko mendiko bizikleta lasterketa, ekainaren 14an

Arrasateko mendiko bizikleta lasterketa antolatzen dutenek aditzera eman dutenez, ekainaren 14an egingo dute aurtengo proba.

Azken urteotan Ikutixo aldean egin izan dute Euskadiko Open barruan egon den proba, eta Musakolan egiten zuten lehenago. Hala, seguruenik Ikutixon egingo dute aurtengoa ere, baina baliteke berritasunik egotea. Zirkuitu berria non egin aztertzen dabilta.

> MENDIA

Besaideko bazkide txartelak jasotzeko deialdia

Arrasateko Besaide Mendizale Elkarteak aditzera eman dute dagoeneko egoitzan bertan daudela bazkide txartelak, eta baita federatu txartelak ere.

Azken horiek dute berezko garrantzia, edozer gauza gertatuz gero erakutsi beharreko txartelak baitira. Hala, Besaidekoek aditzera eman gura dute bazkideak egoitzatik bertatik pasatu beharko direla txartelak jasotzera.

> DUATLOIA

Martxoaren 15ean egingo dute Oñatiko XVII. duatloia

Hastear dago duatloien denboraldia, eta aurten ere Oñatiko hitzorduak ez du kale egingo, martxoaren 15erako antolatu dute Oñatiko proba.

Hori baino lehenago egingo dituzte Durangoko eta Basauriko duatloiak, eta jakin, bertan behera geratu dela otsailaren 24an Lasarten egin behar zuten proba. Guztira hamabi duatloi egingo dituzte, eta ondoren etorriko da triatloien denboraldia, maiatza amaieran.

> KIROLDEGIA

Body Balance-a, Zubikoan dagoen aukera berria

Zubikoako kiroldegian egunero estresa eta ardurak alde batera uzteko kirol eskaintza berria jarri dute abian: body balance.

Eskaintza berri horrek taichi, pilates eta yoga kirol jarduerak konbinatzen ditu. Hauek dira ordutegiak: Astelehenean 20:15ean, martitzenean 15:00etan, eguaztenean 17:15ean eta eguenean 10:15ean. Informazio gehiago gura duenak dei dezala 943 71 63 75 telefono zenbakira.

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA

Hiru jardunaldiren faltan, ia erabakita dago zeintzuk sailkatuko diren

Mondragon Unibertsitateak sailkapenean azken lekua betetzen duen Ocaso Berrio Otxoaren kontra jokatuko du, Santutxun

XABIER URTZELAI > BERGARA

Igoera faserak sailkatzeko bidean, A multzoan ez moduan, B multzoan gauzak nahiko erabakita daude. Hiru jardunaldiren faltan, Mondragon Unibertsitateak aspaldi egin zituen etxeko lanak, eta igoera fasean izango da. Atzetik datozen hainbat taldek ere matematikoki lortu dute igoera faserako txartela. Hala, Tabirako, Valsay Ardoi eta Cafes Aitona dira talde horiek. Ikusteko dagoena da momentuz aukera gehien dituen Baskoniak helburua beteko duen, edo atzetik baina gertu datozen taldeek ezustea emango duten.

MUK ABANTAILA IZANGO DU

Iñaki Merinoren taldeak, gainera, igoera fasea abantailarekin hasiko du, ligan eskuratutako

13 garaipenek emango dioten abantaila, hain zuzen ere. Izan ere, Valsay Ardoi taldea izan da zuri-moreak esku hutsik utzi dituen talde bakarra; azaroaren 24a gorriz markatuta izango dute: liderra makurtu zen eguna (76-70).

Ordutik, baina, Mondragon Unibertsitateak beste zazpi garaipen lortu ditu, eta bihar egingo dute zortzigarrenaren aldeko ahalegina, Santutxun (19:00).

BERRIO OTXOA, JAITSIERAN

Biharko kontrario Santutxuko taldeak hiru norgehiagoka baino ez ditu irabazi aurtengo ligan, eta horietako bi etxean izan dira. Talde horrek nahiko lan izango du aurten kategoriari eusten, eta Iñaki Merinok aukera ona izango du, aspaldian dabilen moduan,



GAZTEAK Azken partiduetan Atxa edo Zeziaga moduko jokalariek gazteak hasierako bostekoan kantxaratu dira.

J.A.

jokalariek gazteei minutuak emateko. Izan ere, ezusteendako tartarik utzi barik, denboraldi luzean zehar komeni da minutu

gehien jokatzen dituzten jokalariei atseden ematea, aurrerago ere egongo da-eta non estutu. Gainera, oraindik ere gazte mai-

lakoak diren jokalariek erakutsi dute etorkizunerako moduko jokalariek direla; esperientzia baino ez dute behar.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergarak Urola eta Arrasatek Romo izango dituzte kontrario

Bergarak nahitaezkoa du Urola mendean hartzea, urrea balio dute-eta bi puntu horiek; Arrasatekoek lasaitasuna dute helburu

X.U. > BERGARA

Joan den egubakoitzean Urdulizi irabazita Ford Mugarriko mutlek arnas apur bat hartu zuten. Buruan dituzte matematikoki kategoriari eusteko beharrezkoak diren 20 puntuak, baina seguruenik hori baino dezente gutxiago beharko da Euskadiko Txapelketan jarraitzeko. Bergarakoen aurreikuspenetan ez dago 20 puntu batzea, eta hala ere, mailari eutsiko diotelakoan daude.

Asteburuan, Arrasatekoek Romoren kontra jokatuko dute, sailkapenaren bosgarren tokian lasai dagoen taldea. Garaipena eskuratzeko, ikusteko dago Arrasatekoek Fertxu Rodriguezen laguntza beharko duten berriro



DERBIA Aloñako eta UDAko jokalariek, Ibarren.

GOIENKARIA

ere. Beharrak jota, Arraten eta Aloñan jokatu zuen jokalariek beterranoak berriro ere elastikoa jantzea erabaki zuen, oraingoan Arrasatekoa, eta, taldeak igarri egin zuen Fertxuren lana (24-19); hurrengo egunean giharretako mina izango zuen.

AZKENAREN KONTRA

Gipuzkoarren arteko derbian, Urolak dagoeneko gutxi du egiteko, hiru puntu baino ez dituzte-eta. Baina, Bergarakoek daukatena emateko gertu daudela adierazi dute aste barruan bertan -ikus 28. orria-.

IRRISTAKETA > HANKA LABANKA

Irristaketan ibiltzeko ordutegiak jarri dituzte

Hanka Labankakoak Labegaraietako pista estalian elkartuko dira otsailtik ekainera arte

X.U. > BERGARA

Bergarako Hanka Labanka irristaketa taldekoek hitzorduak jarri dituzte otsailean hasi eta ekainera arte.

Hitzordu horiek nagusiei zuzendutakoak izango dira, irristaketan ondo ikas dezaten, edo euren teknika hobetu dezaten. Hori horrela, saio bakoitzean Hanka Labankako bina kide izango dira, eskolak eman edo saioak dinamizatzen; gainera,

joko eta bestelako ekintzetarako materiala eramango dute. Labegaraietako pista estalian emango dituzte eskolak.

EGUEN ETA EGUBAKOITZEAN

Bi egun horiek aukeratu dituzte Hanka Labankakoek eskola horiek emateko. Eguenetan 18:30etik 20:00ak arte izango dira Labegaraietan, eta egubakoitz arratsaldetan 15:30etik 17:00etara.



LABEGARAIETAN Irudian emakumezko patinatzaile bat.

GOIENKARIA

FUTBOLA > PREFERENTEA

Azkoagain gotorleku bihurtu gura du Aloñak

Azkoagain futbol zelaia dagoeneko ez da oñatiarrendako gotorleku; aurten ez, behintzat. Etxetik kanpora (14) etxean baino puntu gehiago eskuratu dituzte (10)

X.U. > BERGARA

Aloña Mendirendako ohikoak ez diren zenbakiak dira horiek, tradizioz, kontrarioek beti jakin izan dute eta Azkoagainen irabaztea ez dela gauza samurra. Futbol zelai txikia izanda, etxeok badakite han zelan jokatu, baina aurtengo denboraldian asmatu ezinka dabilta. Eta, Azkoagainen Mondraren (0-1) eta Aretxabaletaren (0-4) kontra jokaturako bi derbiak galdu izana da adibide garbia.

Domekan, laugarren postuan dagoen Ordizia ahaleginduko da ahulgune horretaz aprobetxatzen. Oñatikoek, baina, Euskaldunaren zelaian eten zuten aurreko bost asteotako bolada txarra (2-2), eta domekan, kanpotik ekarritako berdinketa hura garaipen batekin borobiltzen ahaleginduko dira: ordua da etxeko partiduetako zenbakiak txukuntzen hasteko.



IDIGORAS Oñatiko aurrelaria Aretxabaletaren kontrako derbian.

ARTXIBOA

MONDRA ETA UDA KANPOAN

Sailkapenean gertu-gertu dauden Mondrak (32) eta Aretxabaletak (31) etxetik kanpora jokatuko dute asteburuan. Igor Gordobilen mutilek zortzigarren dagoen Hernani (29) izango dute kontrario. Arrasatekoak jaitziera postuetatik urruntzeko asmoz hasi ziren abenduan gora eta gora, eta orain, goiko postuak

dituzte erreferentzia. Hala, lider dagoen Real Union zazpi puntura dago (39).

Eta Aretxabaleta ere egoera antzerakoan dago. Abendu negargarriaren ostean urtea hastearkin batera gora egin dute berriro ere, eta dagoeneko hiru partidur irabazi dituzte jarraian. Hala, 12. postuan dagoen Idiazabalen kontra jokatu dute.



EDVIESTURS.COM

'Cicatrices del paraiso' lana aurkeztuko du Iñaki Otxoa de Olzak, gaur

Aloña Mendik antolatutako Mendi Astearren barruan, Iñaki Otxoa de Olzak iazko udaberrian Dhaulagirira egindako espedizioaren gaineko ikus-entzunezkoa aurkeztuko du gaur Kultura Etxean (19:30).

Cicatrices del paraiso izeneko emanaldia berria da. Urtarrilaren 12an aurkeztu zuen Altsasun, lagunartean, eta gaurkoa izango da bigarren emanaldia. Otxoa de Olzak dagoeneko 12 zortzimilako egin ditu, baina mendiko esperientzia guztiak ez dira gozoak izan. Hala, Annapurnan izandako istripuaren berri ere emango du: "Hainbat lagun hil zitzaizkidan espedizio hartan, eta une triste horiek ere jaso ditut lanean".

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila

Ejido-Reala
Domeka. 17:00. Ejido.

Kadeteen eskal liga

Aretxabaleta-Santutxu
Domeka. 11:45. Ibarra.

Preferente maila

Aloña Mendi-Ordizia
Domeka. 16:00. Azkoagain.
Idiazabal-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Idiazabal.
Hernani-Mondra
Zapatua. 16:30. Zubipe.

Lehen erregionala

Mutriku-Bergara
Zapatua. 16:30. San Miguel.
Lagun Onak-Antzuola
Zapatua. 15:30. Azpeitia.

Bigarren erregio. Igoera

Aretxabaleta-Anaitasuna
Zapatua. 17:30. Ibarra.
BTLs-Dunboa Eguzki
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Union Txiki-Mondra
Zapatua. 17:15. Fanderia.

Bigarren erregio. Kopa

Segura-Elgeta
Zapatua. 15:30. Alustiza.

Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea

Bergara-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitziera

Mondra-Hernani
Zapatua. 15:30. Mojategi.

Lehen mailako gazteak

Aretxaba. B Arizm.-Oiarzun
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea

Aloña Mendi-Hondarribia
Zapatua. 11:15. Ibarra.
Antiguoko-Bergara
Domeka. 12:15. Berio.

Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea

Ekinza-Arrasate
Zapatua. 13:30. Berio.
Behobia-Aretxabaleta B
Domeka. 11:00. Irun.

Kadeteak, Kopa

Mutriku-Bergara B
Zapatua. 11:00. San Miguel.
Ilintza-Arizmendi
Domeka. 16:00. Bikuña.

Kadete Txiki. Kopa

Arrasate-Beti Ona
Zapatua. 12:00. Mojategi.

Ohorezko mailako infantilak, txapeldunak

Zumaiako-Bergara
Domeka. 11:30. Zumaia.
Aretxab. Arizme.-Lagun Onak
Domeka. 12:00. Zubieta.

Ohorezko mailako infantilak, kopa eta jaitzi.

Arrasate-Hernani
Domeka. 11:00. Mojategi.

Lehen mailako infantilak

Oriko-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Mendibeltz.

Infantil txikien kopa

Aretx. Arizmendi-Añorga
Zapatua. 11:00. Ibarra.
Urola-Arrasate
Zapatua. 11:00. Argixao.

Emakumezkoen igoera

Ostadar-BTLs
Zapatua. 15:30. Lasarte Oria.

Emakumezkoen kopa

Arizmendi B-Bergara
Zapatua. 15:30. Almen.
Mutriku-Arizmendi
Domeka. 16:30. San Miguel.
Mondra-Urola
Zapatua. 17:30. Mojategi.

Emakumezkoen F8 Kadete.

Amara Berri-Bergara KF-8
Zapatua. 11:00. Zestoa.

Emakumezkoen F11 Kadeteak, txapeldunak

Arizmendi-Ostadar
Zapatua. 11:15. Almen.

Emakumezkoen F11 Kadeteak, kopa

Aloña Mendi-Zumaiako
Domeka. 11:00. Ibarra.

Alebinak

Elgoibar-Aretxabaleta
Domeka. 10:00. Mintxeta.

Eibar-Arrasate

Domeka. 09:15. Eibar.
Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Garmendi.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa

Euskalduna-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Andoain.

Lehenengo maila

Aloña Mendi-Inter UPV
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

Hirugarren maila

Marea Gora-UDA Izotz
Zapatua. 16:15. Zarautz.

Gazte maila

Aloña Mendi-Deutsche S.
Zapatua. 12:30. Zubikoa.

SASKIBALOA

Lehenengo maila

Berrio Otxoa-MU
Zapatua. 19:00. Santutxu.

Gipuzkoako seniorrak

Candy Bergara-Larraxokoak
Eguna eta ordua zehazteke.

Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak

Doka-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Donostia.

Gazte maila, gizonetzkoak

Bretaña Gar.Bergara-Zarautz
Domeka. 12:00. Bergara.

La Salle-MU

Domeka. 12:15. Donostia.
Easo A-Aloña Mendi
Gaur. 19:20. Donostia.

Gazte maila, emakumezkoak

Atletico 55-Eskoriatza
Zapatua. 12:30. Donostia.

MCM-Bergara

Zapatua. 09:00. Donostia.

Kadete maila, gizonetzkoak

MU.-Internacional
Zapatua. 16:00. Iturripe.

Easo Loyola-MU B
Zapatua. 12:00. Donostia

Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak

Easo Ostadar-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

ESKUBALOA

Euskadiko Txapelketa

Urola Lazti-Bergara
Zapatua. 18:00. Zumarraga.
Romo-Ford Mugarri Arrasate
Zapatua. 18:00. Getxo.

Euskadiko gazte mailako emakumezkoen Txap.

Verkol Aloña-Tecons
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

Lehen maila territoriala

Ormaiztegi-Arrasate
Domeka. 11:45. Zubipe.

Bigarren maila territoriala

Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Labegaria.

Gazte maila, gizonetzkoak

Arrasate-Leizaran
Domeka. 10:00. Iturripe.
Amenabar-Aloña Mendi
Domeka. 11:15. Zarautz.

Kadeteak, gizonetzkoak

Berezaio Aloña-Leizaran
Zapatua. 17:30. Zubikoa.
Bergara-Euskalduna Tab.
Domeka. 10:30. Labegaria.

La Salle-Citroen Chapime

Zapatua. 18:00. Legazpi.

Consulting-Verkol Aloña

Zapatua. 16:30. Mutriku.
Ereintza esk.-Bergara
Domeka. 16:30. Mutriku.

Kadete maila, emakumezkoak

Berezaio Aloña-Leizaran
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Infantil maila, gizonetzkoak

Berezaio Aloña-El Pilar Bid.
domeka. 11:30. Zubikoazpi.

Infantil maila, emakumezkoak

Urnietako-Pakita Altz.Aloña
Zapatua. 11:15. Urnietza.

Casa Asti.Elgoibar-Aloña B

Zapatua. 12:30. Elgoibar.

ERRUGBIA

Seniorrak

Arrasate-UPV Bilbo
Zapatua. 17:00. Mojategi.

PILOTA

Eskoriatzan

Egubakoitza. 20:00. Kadete
mailan, eskuz binaka:
Eskoriatza-Txapagain
Eskoriatza-Hernani.

Arrasaten

Egubakoitza. 19:15. Kadete
eta gazte mailan, eskuz
binaka:
Arrasateko-Lagunak
Arrasateko-Erniopie
Arrasateko-Oiarpe.

Bergaran

Egubakoitza. 20:00. Gazte
mailan, eskuz binaka:
Bergara-Beloki.
Zapatua. 17:00:
Bergara-Oiarpe.




Euskaldunaren kantxan jokatu du Eskoriatzak

Hirugarren postuan dagoen Euskaldunaren kantxara joango dira Eskoriatzako mutilak (zapatua, 18:00).



> **LATZEN**
Eskoriatzako kiroldegian egingo du bihar, zapatuan, kontzertua > 45



> **LIBURUA**
Modu argian idazteko liburua egin du Mitxel Kaltzakortak > 51

> **ANDREA LARRAÑAGA**
Kiropraktikan lizentziatua dugu Andrea Larrañaga bergarra. Bidaiatzea da gehien gustatzen zaiona. Denbora librean eskalatu egiten du > 50



Bergarar amodiozko gutunen lehiaketaren aurtengo fruituak

Alaitz Sarasola ordiziarrak eta Karlos Aizpurua oiartzuarrak eskuratu dituzte sari nagusiak

Gutun originalak jaso dituzte; beste edizioetako tragikotasunari umorea gailendu zaio aurtan

A. ARANBURUZABALA > BERGARA

Bergarako Jardun elkarteak antolatutako gutunen lehiaketaren aurtengo edizioak, hamaseigarrenak, dagoeneko baditu irabazleak: Alaitz Sarasola ordiziarra (1. saria); Karlos Aizpurua oiartzuarra (2. saria); Iraitz Salegi (bergarar onenaren saria) eta Bergarako Josu Gonzalez (26 urtetik beherakoen sari onena). SMS saria, berriz, Eskoriatzako Ibon Segurak eskuratu du.

38 gutun jaso dituzte aurtan, Gipuzkoatik gehienak; jasotako mezuak berriz 14 izan dira. "Azken bi urteetan partaidetza jaitsi egin da, kalitatea ez bezala. Dena dela, beste lehiaketa batzuetako joera bera da", azaldu du jarduneko Itsaso Mendizabalek.

EPAIMAHAIEN IRITZIZ

Aurtan ere bi epaimahai izan dira: nagusia eta gazteena. Nagusia, Leire Bilbao idazleak, Iratxe Ibarra bertsolariak, Antton Uriarte kantariak eta Oihán Zubizarreta iazko irabaz-

leak osatu dute eta lehenengo, bigarren eta Bergarako onenaren sariak erabaki dituzte; idazlanen artean denetik dagoen arren, saritutako lanen maila handia nabarmendu dute. Gutun originalak ere izan direla diote. Bestalde, aurtan, beste edizioetan ohikoa izan den tragikotasunari umorea gailendu zaiola azpimarratu dute; horien artean, umore beltza eta gordina landu dutenak ere badaude.

Gutun irabazleei dagokienez, zera diote epaimahaikideek: "Gaizkak bere emazte eta bere seme-alaben ama den Anari idatzitakoa da lehen saria merezi izan duena. Oso ondo idatzitakoa, naturala, freskoa eta hitz jokoe-tan aberatsa da. Era berean, jorratu den gaiaren ikuspuntua ez da ohikoa. Bigarren sariaren gutunean, Tinak - ama izan behar den emakumea - Nikori, hau da, tabakoari idazten dion gutuna da. Oso originala da. Bergarar onenarenak, berriz, tabernari eta bezero baten arteko harremana

du oinarri. Ondo idatzi eta girotutako gutuna da".

Gazteen epaimahaia, berriz, Bergarako hainbat ikasleek osatu dute: Olatz Etxeberria, Idoia Larrañaga, Maitane Montiel eta Irati Alberdik. 26 urtetik beherakoen saria eta SMS bidezko saria erabakitzea egokitu zaie. Haien esanetan, errutina eta inkomunikazioaren erruz gainbehera doan harremana salbatzeko asmoz idatzitako gutun irabazlea polita eta sentimenduz betea da. SMS mezua, berriz -elurrak t izotzak 1 egitean ez dago giroa brotzerik; buruak t bihotzak 1 egin dutnean ez dago zugarako maitsuna hozterik-, goxoa da eta ageri diren konparaketak oso gustuko dituztela nabarmendu dute.

ESKARMENTUDUN IRABAZLEAK

Lehenengo eta bigarren sariak eskuratu dituztenek eskarmentua dute Bergarako lehiaketan. Sarasolak 2005. urtean irabazi zuen eta Aizpurua, berriz, 2006an. Idaztea gustuko dute biek, baina azkenaldian horretarako astirik dutela esan dute.

Badira hamar urte elkar er...
...jalintasuna: bi ezezagun here...
...mingain eta esku, eskean beti...
...ezagutza. Beldurrak sendatu eta haren mana sendotu g...
...gehi bat, hiru bihurtu ginen. Eta beranduago, bat gehi bat...
...izateari begira, gaur ere, mila ezaugarri aurki ditzaket Ana...
...ordea, amatasunera mugatu duzu Anatasuna, eta barr...
...niretzako lekuri aurkitu ezinda nabil.

Noizbehinka esaten didazu betiko izango zaitudala maitale, baina ale gutxi probatzen dut aspaldian. Zure garbigailutik atera eta eskegitzean bakarrik ukitzen dut, ohartzera ohera sartzen zaizkigun umeena bai, bai...

Neurekoia naizela esango duzu akaso, baina ni erab...
...tzen naiz, Ana; zurekin pentsatu, zurekin gozatu...
...naten jarraitu nahi dut. Zuk, berriz, ez didazu...
...eskaintzen. Ez erdirik, eta ez laurdenik...
...nari, Ana; zurekin pentsatu, zurekin...

Idatzi-

takoarekin...
gustura, irabaz-...
teko esperantzare-...
kin aurkeztu zituzten...
biek ala biek lanak. Gaia...
aukeratzeko orduan, bako-...
tzaren bizipenetan baino gehia-...
go, inguruan ikusi eta entzunda-...
koetan oinarritu direla diote.

SARI BANAKETA

Urtero moduan, aurtan ere, otsailaren 14an, San Valentín egunean banatuko dituzte sariak. Ekitaldian, irabazleek euren gutunak irakurriko dituzte. Hitzordua, bada, egunean, 19:00etan, Bergarako kultura etxean da.

AURTENGO LEHIAKETAKO GUTUN IRABAZLEA / ALAITZ SARASOLA

Ana maitea,

Ana eta ez ama, ama ere bazaren arren. Gaur gutun bat idatzi dut zuretzat. Emakumeak, ama izatean, eme izateari uzten diola esaten zuen batek, eta nik horren aurkako borrokan osatu nahi izan dizut eskutitz hau.

Badira hamar urte elkarrengana bildu ginenetik. Bitxia zen hasierako ezjakintasuna: bi ezezagun kezetasun bila, nondik hasi ez genekiela, mingain eta esku, eskean beti. Denborak eman zigun gure loturaren ezagutza. Beldurrak sendatu eta harremana sendotu genuen. Eta gero, bat gehi bat, hiru bihurtu ginen. Eta beranduago, bat gehi bat, lau. Baina zure izateari begira, gaur ere, mila ezaugarri aurki ditzaket Ana harenak. Zuk, ordea, amatasunera mugatu duzu Anatasuna, eta barruti horretan niretzako lekuri aurkitu ezinda nabil.

Noizbehinka esaten didazu betiko izango zaitudala emazte eta maitale, baina ale gutxi probatzen dut aspaldian. Zure lenteria garbigailutik atera eta eskegitzean bakarrik ukitzen dut, eta izarek... ohartzera ohera sartzen zaizkigun umeena bai, baina zure lurrin usainik ez.

Neurekoia naizela esango duzu akaso, baina ni erabat zeurekoia sentitzen naiz, Ana; zurekin pentsatu, zurekin gozatu, zurekin amestu... zure izaten jarraitu nahi dut. Zuk, berriz, ez didazu lehengo arretaren erdirik eskaintzen. Ez erdirik, eta ez laurdenik. Niganako desioa desarto bilakatu zaizulako irudipena daukat; beti umeen atzetik, beti ama izan behar horretan. Zenbaitetan enbarazuan ere ikusten dut nire burua. Eta beldur naiz. Ez dakit zure printze izatetik zure printza izatera igaro ez ote naizen. Harreman bat ontzetik hondartzera pauso txikiak dagoelako. Gure umeak ororen gainetik, bai. Ados nago. Baina haurrak aurren, eta ni zenbatgarren?

Ni Gaizka naiz, aita izateaz gain, eta zu Ana, ez ama bakarrik. Eskertuko nizuke beraiei segika ibiltzen zaren bezala, niri segika ibiliko bazina sarriago. Umeekin jolasten duzu, baina nik ere jolastu nahi dut zurekin. Eta ez dut konprenitzen zergatik ez duzun hori gogoan izaten, maitea. Guraso paregabe askok pareta jotzen baitu, bikote izateari utzi eta bi torpe bihurtuta.

Badakit; ahula naizela eta zerutik zorura aitaren batean erortzen naizela esango didazu beste behin. Baina kontuz ibili, bihotza: eskuak lastu zaizkizu, niri lastanak oparitzeari utzi zenionetik. Nik maizago entzun nahi ditut gure maitasun doinuak, elkarren musika, elkarri musika... Eta ez esan sentimentalegia naizenik. Arrak ere ez gara harrizkoak, eta bihotz barruko nire orruak hitz egiten dizute idatzi honetan.

Zein beharrezkoa den batzutan: marrazki bididunetatik haratago joan, eta elkarrekin filma interesgarri batean galtzea; lauko mahaian biok bakarrik afaltzea; plastikozko ahate horiak gorde, eta suzko begiradak bainerako jolasetan itzaltzea; esnatu berrikan zirriak gosaltzea; batak bestearekin besarkatuta binakako bakardadearen beroan kiskaltzea... Zein beharrezkoa den batzutan.

Besterik ez, Ana; kariño osoz idatzi dizut gutuna. Horra nire eskaera, nire aitortza. Hau bakarrik edo hau guztia adierazi nahi zizun zure umeak ez ezik, zure uneak ere behar dituen

Gaizkak.

ZINEMA > GOYA SARIAK

Goya sarien galako bizipenak, han izan zen Aitor Arregiren ahotik

Domekan egin zuten Goya sarien banaketaren galan izan zen Aitor Arregi oñatiarra. Jose Mari Goenagarekin egindako *Lucio* dokumentala (Moriarti Produzioak) hautagaien artean zegoen. Etxera sari gabe itzuli arren, pozik daude. Galan bizi izan zituenak kontatu dizkigu Aitor Arregik lehen pertsonan

Larunbat goizean zazpi pertsona abiatu ginen Madrilera furgoneta batean eta aurreko eguean beste bost joanak ziren. Goya sarien galara sartzeko bost sarrera justu geneuzkan arren, Goyarena aitzakia polita zen lagunartean Madrilen aste bukaera dibertigarria pasatzeko gogo geneukanontzat.

Gonbidapenean *de estricta etiqueta* joan behar genuela jartzen zuenez, horrelaxe joan ginen, guztiok ahaleginak eginda. Joxe Mari zuzendari kidea, Xabier eta Jon ekoizleak, Lucio eta bostok.

Sari banaketa igandean izan zen, Barajastik gertu dagoen Madrilako biltzar jauregian. Arratsaldeko zortziak pasatxo iritsi ginen taldean hara. Ez zegoen kanpoan egoteko moduko eguraldirik; beraz, kanpoan gelditzen ziren gure supporter-ei agur esan eta eraikuntzaren barneko hallera sartu ginen, gonbidatu guztiak zeuden tokira, hain zuzen ere. Aurpegi ezagun askoren desfilea hasi zen orduan, zine eta telebistako ezagunak. Isabel Coixet, Arturo Valls, Hugo Silva, Alfredo Landa, Goya Toledo, Maribel Verdu, Belen Rueda... Haiek guztiak ere jantzterakoan ahalegin galantak eginda. Noizean behin Luciori zeharka begiratzen nion, eroso zegoen ikusteko asmoz. Serio egon arren, gustura zegoe la ematen zuen. 'Nork esango zidan, kartzelan nengoenean, nik hemen bukatuko nuela'.

Gala bederatzita eta erdiak alde-ra hasi zen, baina telebistan ordu erdiko atzerapenarekin bota zuten. Ni Luciore eskuinaldean jarri nintzen. 21 sari eta gurea hamargarren tokian emango zuten. Jose Corbacho showmanak hasieratik ezarri nahi izan zuen bere zigilua eta mozorro zein jantzi celebreekin ibili zen bueltaka atzera eta aurrera. Egia esan, aretoan nahiko arrakasta



FAMATUAK *Lucio* dokumentala egin duen lantaldea Alejandro Amenabar zinema zuzendariarekin.

AITOR ARREGI



ARETOKO SARRERA Biltzar jauregian izan zen Goya sarien gala.

AITOR ARREGI



LUCIO Dokumentalaren protagonista ere galan izan zen.

AITOR ARREGI

izan zuen arren, niri tipoak ez zidan grazia handirik egin. Momenturen batean agian bai, batik bat Belen Ruedari, hark emakumezko aktore onenaren saria galdu berria zuenean, irabaziz gero zer esatea pentsatua zuen eskatu zionean. Poliki-poliki, dokumentalaren Goya saria zetorrela-eta, gure larritasuna handituaz joan zen.

Igandean zehar oso lasai nengoen, kontrarioak gogorrek zirela eta, aukera gutxi ikusten nuen eta. Baina han, areto barruan, urduri jartzen hasi nintzen. Irabaziz gero, diskurtsorako 30 segundo bakarrik ematen dizutela entzun genuen. Eta horregatik ni, badaezpada, arrapaladan, mentalki eskertu behar nituen guztiak erreparatzen hasi nintzen: aita, ama, sendia, Amaia, lagunak...

Gure momentua iritsi zen eta barnean bihotz taupadak azkar-

tzen igarri nituen. Nola egon lasai, Goya Toledo dokumental irabazlearen izena zekarren gutun-azala irekitzen ari zen bitartean? Momentu hartan, "Nork daki!", pentsatu nuen.

Azkenean, saria Javier Bardemeko ekoiztutako *Invisibles*-i eman zioten. Ez zitzaigun arraroa egin, hura baitzen gure ustez-eta, faborito nagusia. Gu lurre-ra jaitsi ginen eta galak aurrera jarraitu zuen. Anekdotak bezala, hurrengo orduan gertatu zen gauza azpimarragarriena Alfredo Landaren ohorezko saria izan zen. Gizonak ezin izan zion emozioari eutsi, eta saria eman ziotenean esaldi bakar bat artikulatu ezinik ibili zen. Zortzi bat minutu egin zituen, behintzat, zerbait esan nahian eta ezinean eszenatokian, jendearen harriduraren aurrean.

Hamabiak jota amaitu zen gala. Lau ordu egonak ginen ber-

tan jada, eta gosea ate joka zebilen. Beraz, areto nagusiaren gainean dagoen gaineko beste toki batera eraman gintuzten. Mugikorrean animo mezu ugari helzten hasi ziren.

Lehenengo 20 minutuetan nahita galdu nintzen. Taldetik separatu eta goseak jota inguruko mahai desberdinetan bueltaka ibili nintzen, jan eta jan. Hala-ko konbinazio hispano-orientala zen janaria. Arroza, fideua, haragia txanpinoiekin, txerria banbuarekin... Ez zegoen txarra, baina onartu beharra daukat horrelako glamourra dagoen leku batean beste zerbait espe-ro nuela. Edariarekin, aldiz, barra librea.

Pertsonaia famatuak ere hor-txe zebiltzan, bueltaka. Eta inguruan, jende asko eurekin argazkia ateratzen. Halako batean, emakume bat gerturatu zitzaion Luciori: "Lucio, hemen zaude

baina! Pozten naiz zu ezagutzeaz", hasi zitzaion esaka. Lucio ez zuen ezagutu emakumea. Guk bai, ordea: Emma Suarez aktorea zen eta dokumentala asko gustatu zitzaiola komentatu zion Luciori. "Bizitza izugarria bizi izan duzu". Taldean aurkezpenak egin ostean, Lucio eta Emma Suarezek hitz egiten jarraitu zuten. Gu, bitartean, Alejandro Amenabarren ondoan bueltaka aritu ginen, argazki bat ateratzeko gogoarekin. Gainean, zerbeza bat edo beste genuen arren, lotsa ezin menperaturik genbiltzan. Eskerrak neska andaluziar jator batek gure intenzioak ikusi eta Amenabarrena joan zela. "Argazki bat atera nahiko nizuke mutil hauekin", komentatuz. "A ze lotsati panda!", bota zigun andaluziarrak. Ezin ezetzik esan.

AITOR ARREGI
ZINEGILEA

MUSIKA > LATZEN ESKORIATZAN

Latzen taldeak DVDA grabatuko du Eskoriatzako kiroldegian

Kiroldegia betetzea espero dute Latzen taldekoek; gainera, oñatiarrekin batera Aby-Kem bergararrek eta Governors arrasatearrek joko dute biharko emanaldian

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Bihar, zapatua, Latzen talde oñatiarrak Governors arrasatearrek eta Aby-Kem bergararrek kontzertua egingo du Eskoriatzako kiroldegian. 20:30ean zabalduko dituzte ateak. Latzenen itzulerara eta era berean agur bira denak ibarrean egingo duen geldialdi bakarra da. Izan ere, Oñatin egitekoak ziren kontzertua bertan behera geratu zen.

ONDO ZAINDUTAKO EMANALDIA
Aby-Kem taldekoen metal doinuek Governorsekoen rock gogor melodikoarekin egingo dute bat. Latzen taldea izango da, ordea, gaueko protagonista. Taldeko gitarrista Iker Martinez de Zuazok esan digunez, "orain arteko ildo beretik joango da kontzertua. Ondo zaindutako emanaldi indartsua egin nahi dugu. Detailerik txikienak zainduz eta hainbat sorpresarekin entzuleak aseta irten daitezten".



BIRA Eskoriatzako kontzertua izango da bira honetan ibarrean egingo duten bakarra.

LATZEN

Orain arte biran egin dituzten kontzertuak oso arrakastatsuak izan dira: "Gehienetan jendea sartu ezinda geratu da eta zaleak gustura sumatu ditugu", esan digu Iker Martinez de Zuazok. Eskoriatzako kontzertuan ere kiroldegia betetzea espero dute. Dagoeneko sarrera asko salduta, leihatilarako batzuk utzi arren, agortuko direla uste dute.

DVD-A UDARAKO
Eskoriatzako emanaldiak badu beste berezitasun bat ere: kontzertua sei kamerarekin grabatuko dute eta birako beste batzuekin batera DVDA osatuko dute: "Kalitatezko lan bat kaleratu nahi dugu uda aurretik, irudi eta soinu onarekin. Jendeak oroigarri polit bat izan dezan", esan digu Iker Martinez de Zuazok.

AUTOBUSAK
Eskoriatzara joateko autobus zerbizu bereziak ipini dituzte: Oñatitik Eskoriatzara 19:00etatik 03:30era eta bueltarako 19:30etik 04:00etara ordu erdian behin, 23:30etik 01:00etara salbu. Bergararik Eskoriatzara 21:00etatik 04:00etara ordubetea behin eta bueltan 21:30etik 04:30era, 00:30etik 01:30era izan ezik.

MUSIKA

Piano ikasleek jaialdia egingo dute

I.A. > ARRASATE

Piano jaialdia egingo dute otsailaren 23an eta 24an Andoainan, hirugarren urtez. Gipuzkoako eta Bizkaiko 824 piano-jolek hartuko dute parte bertan. Bakarka hiru mailatan jardungo dute, baita pianoa lau eskutara joko dutenek ere. Ibarreko musika eskoletako piano ikasleak ere izango dira Andoaingo jaialdi horretan.

AURREZ ARRASATEN

Aurrez, jaialdirako prestatzeko asmoz, Arrasate Musika-kaleko piano kontzertua prestatu du. Emanaldia Amaia antzokian izango da otsailaren 13an, eguaztenean, 18:30ean. Kontzerturako sarrera doan izango da.

Amaia antzokiko jaialdian Arrasate Musikaleko 25 piano ikasleek hartuko dute parte. Bestalde, Eskoriatzako musika eskolatik hainbat piano jole gonbidatu dituzte eta Bergarako musika eskolatik 23 lagun joango dira. Guztira, 54 piano jole entzungo dituzte musika-zaleek.

Antolatzaileek esan digutenez, askotariko musika piezak entzun ahal izango dira. "Espero dugu musikari gazteek arratsalde zoragarria pasatzea dakitena erakusten, eta, era berean, entzuleek ere kontzertuarekin gozatea".

MUSIKA > ANJE DUHALDE

'Sorminetan' aurkeztuko du Anje Duhaldek Espaloian

Country, blues eta rock doinuak uztartu ditu azken lanean kantari lapurtarrak

I.A. > ELGETA

Zapatuan, otsailaren 9an, Anje Duhaldek eta taldekideek kontzertua eskainiko dute Elgetako Espaloia antzokian, 22:30ean.

Besteak beste, *Sorminetan* bere azken laneko kantua entzun ahal izango dituzte emanaldira joaten direnek; kantu sendoak, helduak, emozioz beteak eta indarrez jantziak.

Arrangoitzeko kantaria herriaren eta adinaren mugak gaindituz eta country, blues eta rock doinuak uztartuz entzuleengana modu zuzenean iristen saiatuko da gitarraren eta musikariaren laguntzaz.

Sorminetan laneko kantuen letrak Anje Duhaldek berak Xabier Amurizak eta Gerardo Markuletak egin dituzte. Kantari lapurtarrak ohiko duen moduan, mundu tradizionala eta garaikidea, maitasuna, herria, hizkuntza, askatasuna eta aldarrikapena ditu kanturako gai nagusi.

George Brassens kantari diskoa 2000. urtean plazaratu zutenetik abeslariaren berezko kantu berririk ez dugu jaso aspaldian, eta oraingoan berriz ere ahots iradokitzaile eta kantu berriekin dator Anje Duhalde.

SARRERAK

Anje Duhalde zuzenean entzun nahi eta aurrez sarrerak eskuratu ez dituztenek Espaloian bertan erosi ahal izango dituzte kontzertuko egunean; bazkideek zortzi euroren truke eta gainontzekoek hamar eurotan.

MUSIKA > FANGORIA

Bergarako Jam aretoan kontzertua egingo dute zapatuan Alaskak eta Nacho Canutek

Fangoriako pop doinu dantzagarriak entzun ahal izango dira 'El extraño viaje' azken laneko abestietan

I.A. > BERGARA

Bihar, zapatua, Fangoria taldearen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. *El extraño viaje* azken laneko abestiak eskainiko dizkie, besteak beste, zaleei Alaskaren eta Nacho Canuten taldeak.

Bidaiek eta hegazkinak dituzte kanturako gai. Aurrera begirako bidaia, aldaketarako bidaia da euren; iragana eta malenkonia atzean utzita egindako bidaia. Barneko gaien gaineko abestiek osatuko dute ikuskizuna.



ALASKA Nacho Canutekin batera jardungo du Jamen Alaskak.

GOIENKARIA

DANTZARAKO MUSIKA

Pop estiloko abesti laburrak dira Fangoriarenak; oso melodikoak, dantzagarriak eta gogora errazak, euren esanetan. Musika mota horrekin, Fangoriakoek dantzan eta kantuan ipini nahi

dituzte zaleak. Horretarako, Alaskak eta Nacho Canutek dantzariak izango dituzte taula gainean lagun egiten.

Zapatuan Jameko ateak 21:00etan zabalduko dituzte, eta sarrerak bertan erosi daitezke.

INMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerka 75 m². Eguzkitsua.
- Elusu baseria. Berritua.
- Bidekuruzeta 60 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berritua.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Lokala 86 m². Erdialdean.

Antzuola:

- Buzinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.

Eskeintzen:

- Baseria. Berritua.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Matxiategi, 61m², oso ondo
- Artzamendi, 80 m², oso ondo
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua
- Mugertza, 60 m², berria, aukera ona
- Zubietza 70 m², ondo
- Matxiategi, 65 m², ondo
- Arizuri, 97 m², garajearekin
- Matxiategi, 73m², berrituko
- Bidekuruzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza
- Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m², oso ondo

SORALUZE

- Balategi, 83m², berria

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MONDRAGON LINGUA

Begiraleak behar dira Euskadiko zenbait tokitan uztailean antolatzen dituen ingeleseko udalekuetarako. Interesik baduzu, bidali curriculum aetxenausia@mondragonlingua.com helbidera edo deitu 943 71 20 55 zenbakira (Ainara Etxenausia), otsailak 27a baino lehen.

DEBAGOIENA

Etxebizitza eragile batek administrari eta saltzaile lanak egiteko pertsona bat behar du. Etxebizitza salmentetan esperientzia kontutan hartuko da. Interesatuak bidali Curriculum aetxenausia@mondragonlingua.com helbidera edo deitu 943 71 61 37 fax zenbakira.

ABADIÑO

Harategia errentan ematen da. 660 89 22 57

ARRASATE

Sukaldaria behar da jatetxe baterako. 651 70 93 22

ARETXABALETA

Ile apaintzailea behar da esperientziarekin. 943 79 80 90

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Ume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. 679 27 74 53.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

Arrasate. Mutil bat prest asteburuetan lan egiteko. 667 93 85 40 edo 637 44 59 27.

Bergara. Emakume arduratsua gertu garbitasun lanak egiteko. 664 38 49 76.

Bergara. Mutila gertu tabernetan lan egiteko. 699 15 33 16.

Bergara. Neska gaztea gertu garbitasun lanak egiteko. 619 65 56 75.

Debagoiena. Emakume arduratsua sukaldaria lanak edo garbiketa lanak egiteko gertu. Goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara. 650 00 58 48.

Debagoiena. Emakumea edozein lan egiteko gertu. 686 30 67 65.

Debagoiena. Emakumea etxeko lanak egiteko prest, baita pertsona nagusiak zaintzeko ere. 686 52 15 98.

Debagoiena. Emakumea gertu arratsaldeko garbiketa lanak egiteko edo ume eta pertsona nagusiak zaintzeko. 638 89 98 60.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

DBHko ikasle bati jarraipena egiteko, klase partikularrak emateko prest dagoen norbait behar da. 688 63 68 43.

Eskeintzen. Pertsona arduratsua behar du klase partikularrak jasotzeko. Lehenengo Hezkuntzako 5. mailako irakasgaiak. 646 87 29 32.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen Saxo VTS salgai. 90 ZP. 1998koa. Zuria. 2.500 euro (prezioa ados daiteke). 660 80 67 03.

Ducati 999 motorra salgai. 2003koa. 13.000 km. Karbonozko terminonia. Biposta eta monoposta. 10.500 euro. 629 29 40 22.

Gas-gas EC 250 motorra salgai. 2006koa. 1.500 km. Oso egoera onean dago. 4.200 euro. 679 24 89 72.

Harley-Davidson motorra salgai. 1.340 cc. 2000koa. 34.000 km. Oso egoera onean. 677 83 47 29.

Nissan Almera 2.2 D 16v Sport autoa salgai. 646 03 39 45.

Opel Corsa 1.2 SRI 5p, 2002koa, kilometro gutxiarekin. Egoera onean. 636 71 14 65.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. 645 00 80 55.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Neska koadrila batek lokal bat alokatu nahi du Arrasaten. 695 74 27 95.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arebabaleta. Belorrieta auzoan. 943 79 47 04 edo 696 70 80 38.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko. 616 05 97 92.

202. EROSI

Bergara. Justo Garate plazan garajea erosi nahi du. Telefonoa: 649 88 31 70.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Zarugalde kalean bi logela, bi komun eta egongela ditu. 634 40 37 03.

Oropesa del Mar. Marina d'Oren. Hondartzan lehenengo ilarran. Bi logela, bi komun eta egongela. Bi igerileku. 4-6 pertsonentzat. 685 75 62 51.

Torremolinos. Bi logela ditu eta hondartzatik 150 metrora dago. Urte osoan, abuztuaz izan ezik. Prezio onean. 616 14 72 67.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara-Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Bi edo hiru logelakoa. Urtebeterako.

101. SALDU

Arrasate. 47 metro koadroko apartamentua, erdialdean kokatua. Berritua eta jantzita. 645 73 04 69.

Arrasate. Duplexa salgai Otilora kalean. 70 metro koadro, bi logela, bi komun, egongela eta 20 metro koadroko terraza. 696 79 43 89.

Bergara. 92 metro koadro dituen, 21 metro koadroko terrazarekin. Garajea aukeran. 679 29 39 56.

Bergara. 90 metro koadro. Igo-gailua eta garajea. Nahiko berria. 630 60 47 75.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

102. ERROSI

Bergara. Garajea salgai Masterrreka kalean. 651 70 90 12.

Oñati. 17 metro koadroko garaje itxia salgai Olakua auzoan. 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Zarugalde kalean bi logela, bi komun eta egongela ditu. 634 40 37 03.

Oñati. Duplexa salgai erdialdean. 105 m². Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldaria. 676 39 36 93.

Oñati. Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldaria, bainugela, egongela, trasteleku eta garaje itxia barne. Guztiz eraberritua. 657 72 25 70 edo 665 72 87 89.

Oñati. Zubillaga auzoan. 79 m². Hiru logela, sukaldaria, egongela, komuna eta ganbara. 39 milioi, negoziagarriak. 635 71 41 39 edo 943 08 13 25.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara-Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Bi edo hiru logelakoa. Urtebeterako.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko. 616 05 97 92.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arebabaleta. Belorrieta auzoan. 943 79 47 04 edo 696 70 80 38.

202. EROSI

Bergara. Justo Garate plazan garajea erosi nahi du. Telefonoa: 649 88 31 70.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Zarugalde kalean bi logela, bi komun eta egongela ditu. 634 40 37 03.

Oropesa del Mar. Marina d'Oren. Hondartzan lehenengo ilarran. Bi logela, bi komun eta egongela. Bi igerileku. 4-6 pertsonentzat. 685 75 62 51.

Torremolinos. Bi logela ditu eta hondartzatik 150 metrora dago. Urte osoan, abuztuaz izan ezik. Prezio onean. 616 14 72 67.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara-Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Bi edo hiru logelakoa. Urtebeterako.

101. SALDU

Arrasate. 47 metro koadroko apartamentua, erdialdean kokatua. Berritua eta jantzita. 645 73 04 69.

Arrasate. Duplexa salgai Otilora kalean. 70 metro koadro, bi logela, bi komun, egongela eta 20 metro koadroko terraza. 696 79 43 89.

Bergara. 92 metro koadro dituen, 21 metro koadroko terrazarekin. Garajea aukeran. 679 29 39 56.

Bergara. 90 metro koadro. Igo-gailua eta garajea. Nahiko berria. 630 60 47 75.

GOIZPER S. COOP.

Antzuolan (Gipuzkoa) dagoen enpresa industrial da. Ekoizpenerako baliabide modernoak ditu, eta ISO 9001 egiaztagiria. Ekoizten duenaren %65 esportatzen dute eta 50 urteko lan eskarmentua dauka hainbat erabileretako lainoztagailuak diseinatu eta egiten; baita lozagiak, balaztak eta balazta-lozagiak diseinatu eta egiten, eragingailu mekanikoak, pneumatikoak, elektromekanikoak eta hidraulikoak eta espeka-eragingailuak.

Une honetan, bere Dibisio Industrial indartzeko, ondorengo postuak bete nahi ditu:

Prozesu ingeniaria

Postuaren eginbehar nagusiak izango dira:

- Fabrikazio prozesuari dagozkion parametro guztiak definitu, kontrolatu eta hobetu.
- Mekanizazio programa guztien kudeaketa.
- Langileei lanak aurrera eramateko orduan laguntza eskaintzea.
- Orokorrean prozesuen bitartez produktibitateak eta kalitatea hobetzeko egin daitezkeen edozein neurri proposatu eta aurrera eramatea.

Kalitateko teknikaria

Postuaren eginbehar nagusiak izango dira:

- Fabrikazioa definitutako prozedurak jarraituaz egiten dela bermatu.
- Autokontrol irizpideak definitzen lagundu eta haien jarraipena bermatu.
- Kalitate gaitetan, Goizperren ordezkari izatea bezeroen aurrean.
- Hornitzaileak homologatzeko prozesuan parte hartu.
- Jasotako lehengaiei dagozkien harrera egin, eskatutako maila bermatzeko.

Ezinbestekoa izango da, behintzat, Ingeniaritza Tekniko Mekanikoan tituluduna izatea eta oso kontuan edukiko da Goi Mailako Mekanizazio Zikloa eginda edukitzea eta mekanizazio lanetan esperientzia izatea.

Lanpostua betetzeko, talde lanerako joera, ekimena, helburuak lortzeko grina, etengabe hobetzeko kezka eta konpromisoak eta ardurak hartzeko gaitasuna duten gazteen bila gabiltza.

Bi postuetan, ezinbestekoa izango da euskara erabat menperatzea, eta ingelesean maila handia edukitzea.

30 eguneko epean, aurrez aukeraturakoei bakarrik erantzungo zaie.

Interesatuok, bidali curriculum aetxenausia e-mailez Giza Baliabideko Departamentuari zuzenduta, rrrh@goizper.com, edo ondoko helbidera: 211 posta-kutxa, 20570, Bergara.

Emandako datuak, dagokien moduan, isilekoak izango dira, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, hots, Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezartzen dituen irizpideei jarraituta.

LAN ESKAINTZA

AED Euskara Elkarteak langile bat kontratatuko behar du idazkari orokor lanpostuan baja bat betetzeko

ESKATZEN DA

- Gestio lanetan esperientzia izatea
- Harremanetarako gaitasuna izatea
- Euskara ahoz eta idatziz menperatzea (EGA gutxienez)

BALORATUKO DA

- Bailarakea izatea
- Euskalgintza ezagutzea

ESKAITZEN DA

- Zortzi orduko lanaldia

Curriculumak AED elkartera bidali otsailaren 15a baino lehen (posta elektronikoz bidal daitezke)

Pablo Uranga kalea 6, behea
20500 Arrasate
Tel.: 77 12 28
aed@aedelkarteak.com



8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzariak dauzkate saltzeko. Bi mahai (egongelakoa eta txokokoa), 90 cm-ko somiera hanka eta guzti eta kanpoaldeko halogenoak. Bananduta erosi daitezke. 635 75 09 47.

sifoiak Sifoi botilak saltzen dira. 943 76 46 90.

802. EROSI

Bergara. Lursaila erosi nuke, borda bat duena. 635 70 83 47.

807. AURKITU

Bergara. Urtarriaren 24an, Euskalduna ehorzketxean jaka bat agertu zen. 943 76 61 41.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Kantautorea. Musikari bila nabil abestiak sortzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara. Telefonoa: 656 30 97 48.



Arrasateko **Natalio Flores** eta Bergarako **Nekane Cid** otsailaren 7an ezkondu ziren Bergarako epaitegian. Ospakizuna Lasa jatetxean egingo dute bihar, zapatuan. Zorionak, bikote! Maialen, Amaia eta Jonen partetik.



Gaur, otsailak 8, egubakoitza, **Juan Gualberto Gorosabel** eta **Aurora Villar** ezkondu zirela 50 urte bete dira. Urrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan, zorionak eta patxo handi bat, etxekoan partetik.

MEZA

Miren Aginagalde Arana

Aramaion hil zen 2008ko otsailaren 7an, 89 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, otsailak 8, 18:00etan, Aramaioko San Martin parrokian.

Gure bihotzetan egongo zara betirako.



Etxekoak.
Aramaion, 2008ko otsailaren 8an.

ESKELA

Antonio Altube Beitialarringoitia


Juli Arreseren alarguna

Gasteizen hil zen 2008ko otsailaren 6an, 76 urte zituela.

GOIENAK bat egiten du senideen saminarekin.



Aretxabaletan, 2008ko otsailaren 8an.



ESKER ONA

Antonio Altube Beitialarringoitia

Juli Arreseren alarguna

Gasteizen hil zen 2008ko otsailaren 6an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2008ko otsailaren 8an.



ESKER ONA

Maria Barrutia Heriz

Julio Markaideren alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko urtarrilaren 31n, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko otsailaren 8an.



ESKER ONA

Felix Maria Iturrino Uribarri

Donostian hil zen 2008ko urtarrilaren 30ean, 54 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko otsailaren 8an.



ESKER ONA

Xipri Garitaonandia Lizarralde

Arrasaten hil zen 2008ko urtarrilaren 30ean, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko otsailaren 8an.



ESKER ONA

Maria Angeles Bolibar Iribecampos

Felipe Ugarteren alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko otsailaren 5an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Angiozarren, 2008ko otsailaren 8an.



URTEURRENA

Luis Fernando Garai Ibabe

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 10ean, 11:00etan eta 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Jabier Acedo Peña

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Paulino Lasanta Otalora

Vicenta Uribarren Altunaren alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 4an, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 10ean, 12:50ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Irene Teresa Sendin Amaro

Pedro Carricajoren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 10ean, 15:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Susana Sanchez Ramirez

Victor Mugikaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 10ean, 15:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amilaga auzoa 27, 20570 Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Faxes: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak


bila-bila 7




hitz gezidunak

| | | | |
|-------------------|--------------------|-----------------|---------------|
| | Hizkuntza bat daki | Lurrina | Handinahi |
| | Bizitasunik gabea | Gasteizko auzoa | Sodioa |
| | Ekialdean, esan | | |
| | 1 | | |
| Adunako | Haran | | 500 |
| * Irudiko urtaroa | Gogoa | | Defekta-gailu |
| | | Kui | |
| | | Gabarra txikiak | |
| Haize ekaitzak | | | |
| Inbutua | | | |
| | | Ernel | |
| | | Kanpo, landa | |
| Donostiako auzoa | | | Bokala |
| Moduak | | | Oxigenoa |
| | | | Iodoa |
| | | Har ezazu! | |

soluzioak



Jeroglifikoak: Orein bat.



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 2 | 8 | 4 | 9 | 3 | 5 | 1 | 6 |
| 6 | | | | 7 | 8 | 4 | 3 | 2 |
| 9 | 4 | 6 | | 2 | 3 | 7 | 8 | 6 |
| 9 | | | | 2 | 8 | 4 | 3 | 7 |
| 8 | | | | 1 | 2 | 6 | 5 | 7 |
| 1 | 8 | 2 | 9 | 3 | 6 | 7 | 5 | 4 |
| 4 | 9 | 7 | 2 | 5 | 1 | 6 | 8 | 3 |
| 5 | 6 | 3 | 8 | 4 | 7 | 1 | 9 | 2 |

sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|--|
| 6 | | 8 | | | 1 | | | |
| | | | 5 | 1 | 6 | | | |
| | | | 3 | | 7 | | 4 | |
| 4 | | 5 | | 9 | | | | |
| 2 | | | | | | | 6 | |
| | | | 1 | | 8 | | 3 | |
| 9 | 8 | | 1 | | | | | |
| | 4 | 7 | 8 | | | | | |
| | 5 | | | 4 | | 2 | | |

hieroglifoa


Zer ehitatu zenuen ?



hizki salda

Euskal Herriko 5 hondartzen izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | O | T | L | O | G | O | D | O |
| T | A | N | A | A | Z | T | I | E |
| Z | E | G | G | A | I | P | R | T |
| U | T | A | A | T | S | D | B | T |
| R | I | D | Y | A | E | E | A | E |
| U | N | K | R | A | B | E | X | S |
| N | O | R | E | N | I | A | E | H |
| X | A | L | O | I | R | R | U | Z |
| K | N | A | M | R | E | B | O | D |



bono fotoa



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Albo atun argia
92 g-ko 3ko packa + 1 doan

3,35 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko MARIA ALTUNArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: 1335.


Oñatin oraindik jokutzen da boloetan antzina egiten zen erara. Argazkian ageri dena bolaleku horietako bat da. Non aurkitu dezakegu?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain



Maka Oinetakoak
Bergara
Ibargarai 8 - 943 08 28 68
Chie Mihara oinetakoak eta Janet & Janet poltsa

Opa ezazu San Valentin




Lirain Estetika Zentroa
Arrasate
Bixente Ferrer 1 - 943 79 52 17
Osasuna, edertasuna eta ongizatea oparitu



Txokolate Opariak
Bergara
Barrenkale 28 - 943 77 70 54
Arropa eta osagarriak



Gorosti loradenda
Bergara
Matxiategi 1 - 943 76 07 47
Nobedadea: betiko bizirik irauten duen arrosa naturala



Iratxo Mertzeria
Bergara
Telesforo Aranzadi 2 - 943 76 00 79
Barruko arropa eta osagarriak



Xarmanta Opariak
Eskoriatza
Gaztainadui 21 - 943 71 53 87
Rosa Faia by Anita barruko arropa



Kapikua Osagarriak
Arrasate
Bañez doktorea 4 - 943 79 19 94
Opariak eta osagarriak



Mayte Loradenda
Arrasate
Otalora lizentziaduna 18 - 943 77 14 65
Lore batek hamaika hitzek baino gehiago balio du

Andrea Larrañaga > Kiropraktikan lizentziatua

"Osasuna edukita, bizitzaz egunero disfrutatu nahiko nuke etorkizunean"

Kiropraktika ikasketak Kalifornian amaitu zituen Andrea Larrañagak duela 6 urte. Ordutik hona, Arrasaten zabaldu zuen kontsultan egiten du lan. Bidaiatzea oso gustuko du, eta dagoeneko hainbat lekutan egona da. Martxoan Indiara joango da. Dantzatzea eta eskalaztea oso gustuko ditu, baita irakurtzea ere. Lanaz eta zaletasunez hitz egin dugu harekin.

JASONE ZABALA > BERGARA

Bidaiari amorratua dugu Andrea Larrañaga bergararra. Kiropraktikan lizentziaduna, hainbat bidaiak egiteko aukera eman dio horrek. Denbora librean, lasai egotea gustatzen zaio. Hala eta guztiz ere, badauzka proiektuak buruan. Horiei, zaletasunei eta beste hainbat gauzari buruz hitz egin dugu harekin.

Zure familia ezaguna da auto-eskolarengatik. Zuk, berriz, bide hori jarraitu beharrean, Kiropraktika ikasketak egitea erabaki zenuen. Nolatan?

Nire lehenegusina baten ama Donostiako kiropraktiko baten gana joaten hasi zen, justu ikasketak hasi behar nituen garaian. Banekien jendeari laguntzeko eta osasunarekin zerikusia zuen zerbaitegin nahi nuela. Donostiako kiropraktiko hura ezagutzera joan nintzen eta asko gustatu zitzaidan egiten zuen lana. Hori izan zen abiapuntua. Handik aurrera, mugitzen hasi nintzen ikasketak horiei zegokien informazioa bilduz, hemen ez zegoelako halako ikasketak egiteko aukerarik eta kanpora joan behar nuelako.

Kanpoan ikasi zenuen, beraz.

Bai. Madrilerara joan nintzen ikasketak hasiera. Baina estatuan amaitzeko aukerarik ez zegoenez, Kalifornian amaitu nituen ikasketak. Guztira bost urte izan ziren.

Ikasketak amaituta Arrasaten erabaki zenuen kontsulta zabaltzea; gazte, gainera.

Hasiera gogorra izan zen, kanpoan hainbeste denbora eman eta gero, baina Arrasaten kontsulta zabaltzea erabaki nuen.

Kiropraktika ez da oso ezaguna gure artean, ezta?

Espainiako estatuan 160-170 kiropraktiko gaude eta guztiok elkarre baten barruan gaude: Espainiako Kiropraktika Elkarte. Euskal Herrian 12 bat kiropraktiko egongo gara. Joan den urria ezker, baina, bada aukera Madrilen ikasketak egiteko.

Zu gaztetan ere etxetik urrun ibilitako neska zara.

Gurasoei inoiz ez die beldurrik eman anai-arrebok kanpora ateratzek. Guretzat onena zena egitera animatu gaituzte beti. Ingelesa ikastea beti ikusi dugu garrantzitsua dela etorkizunerako. AEB etara joan nintzen



J.Z.

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Kiropraktika. **Gogoko idazle bat?** Deepak Chopra. **Une honetan irakurtzen ari zaren liburua?** *Evolve your brain*. **Bizirik baduzu:** Nire lana eta bidaiatzea. **Maniarik?** Askok. **Bidaiatzeko leku bat:** India. **Bizi**

izateko toki bat: Euskal Herriko edozein toki da ona bizi izateko. **Amets bat:** Bakea edozein herrialderentzat. **Film bat:** *El jardinero fiel*. **Mendi bat:** Aizkorri. **Musika talde bat:** Denetarik entzuten dut, ez dago gogoko dudana talde bat.

gaztetan ingelesa ikastera, eta baita beste kanpaleku batzuetara ere. Anaia Zeelanda Berrian dago orain Kiropraktika ikasten, eta ingelesa jakiteak asko laguntzen duela ikusi dugu bai hark eta baita nik ere.

Bidaiatzea ere asko gustatzen zaizu.

Bai, izugarri. Batez ere lanarekin lotutako bidaiak izan dira. Kalifornian ikasten nengoela AEBetatik bidaiatu nuen. Ikasketen azken kurtsoan, berriz, El Salvadorrera joan nintzen bertako jendeari laguntzera. Kasu hartan, gure lana dena egitera: bizkarreko zuzenketak. Izugarriko esperientzia ederra izan zen. Tobagon ere egon naiz, baita Ghana eta Indian ere, azken honetan bi aldiz. Martxoan berriz ere joango gara Indiara; izan ere, hangoa oso esperientzia berezia izan da.

Martxorako, beraz, beste bidaiak bat prest.

Kiropraktiko batzuk joango gara Indiara, zehazki Kalkutara. Japoniarrak, alemaniarrak, frantsesak, Amerikako neska bat eta ni neu. Bertako toki txiroenetan egongo gara laguntzen, 7-10 egun.

Hainbeste lekutan egon izanak zer erakusten du?


Burua pila bat zabaltzen dizu, baita espiritua ere, eta bertako jendea hobeto ulertzen ere laguntzen du. Eta behin eta berriro ikusten da guk hemen sufritzen duguna ez dela ezer, han sufritzen dutenarekin alderatuta.

Oraindik ere baduzu denborarik zure zaletasunendako?

Denbora laburra dut. Baina ahal dudanean eskalatzera joaten naiz mutil-lagunarekin. Irakurtzea ere gustuko dut, baita dantza egitea ere; salsa dut gustuko. El Salvadorrera joan nintzenean, jendea dantzan ikusten nuen, eta inbidia eman zidan. Arrasatera etorri nintzenean nire paziente batzuk animatuta, ikastaro batera apuntatu nintzen eta duela urte eta erditik hona bertan nabil.

Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Oso positiboa naiz, eta ez naiz txarrean pentsatzen jartzen. Osasuna edukita, bizitzaz egunero disfrutatu nahiko nuke. Orain Indiako proiektua daukat buruan, eta ondo ateratzen bada, aurrerantzean halako gehiago egitea espero dut.



IRAKASLEA Mitxel Kaltzakorta HUHEZIKo irakasleak idatzi duen liburua UEUren eskutik kaleratu da.

UEU

HIZKUNTZA > MITXEL KALTZAKORTAREN LIBURUA

Liburua kaleratu du UEUk, argi, garbi eta arin zelan idatzi erakusteko

Mitxel Kaltzakorta HUHEZIKo irakasleak liburu bat argitaratu du, Udako Euskal Unibertsitatearekin, euskarazko prosa komunikagarriago egiteko

TEORIA ETA PRAKTIKA

Sarreraz eta bibliografiarekin gain, liburuak bi atal nagusi ditu: lehenengoak teoria, adibideak eta ariketak jasotzen ditu, eta emaitzak daude bigarrenetan.

Lan interesgarria da kazetaritzan eta komunikazioan dabil-tzan guztientzat, eta egileak ehunka adibide erabiltzen ditu, argi, garbi eta arin zelan idatzi ikasteko.

Egileak hainbat proposamen egiten ditu liburuan euskal prosa arintzeko, komunikagarriago egiteko. Horretarako, adibideak eta ariketak jaso ditu bere lanean, erakusteko atzerakarga nola arin daitekeen.

Kaltzakortaren ustez, "edozein albo-hizkuntzarekin alderatuta, ajez eta gaitzez josita dago euskara, eta, askotan, nekez irakurtzen ditugu euskarazko testuak". Arazo hori, atzerakarga

deitzen duen ordena informatibo okerra konpontzeko, egileak aztertuko ditu artikuluetako hasiera-perpauak, lehen perpauak.

EGILEAREN PROPOSAMENA

Atzerakarga konpondu eta esaldiak irakurterazagoak egiteko, liburuaren egileak zera proposatzen du: "Informazio-gune batek (izena edo aditza) osagarri bat badauka aurrean alferrik kokatuta, testuinguruak eskatu barik, eta hori dela-eta, behar baino nekezago irakurtzen bada perpaua, zergatik ez erabili osagarri hori gune atzean, eta horrela irakurketa egin errazagoa, arinagoa? Problema hau ez da gramatikala, informatiboa baino", esaten du Kaltzakortak.

Atzerakargak arintzeko, egileak ahozko baliabideak eta jantziagoak ere erabiltzen ditu.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Udako Euskal Unibertsitateak argitaratu berri du, Hizkuntzalari-tza sailean, Mitxel Kaltzakortaren *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (1)* liburua. Kaltzakortak urte asko daramatza euskara irakasten, eta HUHEZIn ere irakasle da. Artikulu asko egin du galdegaiaren inguruan aldizkari espezializatuetan.

teknologia berriak

> DISKO GOGORRA

Esku batean sartzen den diseinuzko disko gogor eramangarri txikiak 30 eta 60 GB gorde ditzake

Hain da txikia Skwarim disko gogorra, eskuan sartzen da. Baina, txikia izan arren, 30 eta 60 GB-ko edukiera du.

Argazkiak, bideoak, musika eta bestelako artxiboak gordezeko eta batetik bestera eramateko aukera ematen du.

Karim Rashid diseinugileak kolore urdin eta arrosan diseinatu du.

USB konexioa barruan daramanez, nahikoa da ordenagailura entxufatzea funtziona dezan. 180 eurotik gora ordainduta eskura daiteke.



Karim Rashid diseinugileak kolore urdinean eta arrosan egin du poltsikoan eramateko disko gogorra.

> WEB KAMERA

Kanpoko zaratak eta irudien kliskak saihesten dituen kamera txikia Philips etxearen eskutik

Philips etxeko SPC 1300 web kamera txikia, maila gorenekoa izateaz gain, bereizmen handikoa ere bada.

Kanpoko zaratak eta soinuak saihesten ditu, baita irudiaren kliskak ere.

Pixel Plus 2 eta Digital Natural Motion teknologiak ditu 1,3 megapixeiko kamera horrek.

Segundoko 90 irudi ematen ditu eta, gainera, noranzko bi mikrofono digital ere baditu.

Salneurria: 100 euro



Kamera txikia izan arren, bereizmen handiko irudiak eskaintzen ditu.

> USB MEMORIA


Gozoki itxurako usaindun eta koloredun pendrive txikiak kaleratu ditu Memup etxeak

USB memoria eramangarri horrek usaina du. Teknologia arloko gozokia dela diote batzuek, eta menda, marrubi, laranja edo limoi usainekoa izatea, norberak aukeratzeko du. Memup etxekoa da eta *Sweet* du izena.

Ura eta tenperatura handiak jasaten ditu koloretako memoria txiki horrek.

Macintosh eta PC ordenagailuekin bateragarria da.

GB batetik zortzira arteko edukiera du eta horren arabera 12 eta 75 euro artean ordaindu beharko da.



Lau koloretan izango da eskuragarri, usainaren arabera: marrubia, menda, laranja eta limoia.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

www.goiena.net/blogak

- | | | | | |
|-----------------|------------------|--------------------|----------------|---------------|
| /aebpn | /dragon-oriental | /gorla | /maulanda | /udalatz |
| /aiastui | /dukiena | /gurea | /mayte | /udalaitz |
| /arantxa | /ego | /guztizeder | /merkeopari | /urdeki |
| /aretxargi | /eguzkigraf | /hamaikataberna | /multiopticas | /ugartearotza |
| /argi-plastik | /ekilore | /itxaseder | /ohiak | /urbieta |
| /arregi | /ekin | /irudisport | /ogizun | /urko |
| /atai | /elejalde | /ixaun | /okipark | /vitoria |
| /azkarate | /ezkutuorly | /izeder | /optico | /zainduz |
| /bastida | /galgorri | /jcracing | /otzeta | /ziripot |
| /briz-aseguruak | /gallastegi | /lamaino-etxeberri | /pando | |
| /BZ-sistemas | /ganesha | /loreian | /perpipar | |
| /bolusukaldeak | /garaia | /korozabaleta | /puerta-ingles | |
| /denetik | /gertu | /kizkur | /richimaier | |
| | /gorkataxi | /markiegi | /tabernerri | |

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.amgautoak.com
- www.baster-aldejatetxea.com
- www.ehmf.com
- www.gelatzu.com
- www.goikobenta.com
- www.haurboa.com
- www.kizkur.com
- www.klorofila.com
- www.landaluze.com
- www.lilura.com
- www.toldosiete.com
- www.uxarte.net
- www.biark.net



berriak

> ARATUSTEAK

Aratusteen gaineko saioak ikusgai datorren astean

Aratusteen gaineko saioak ikusteko aukera izango da datorren astean Goiena Telebista. GOITBko ekoiztutako Aratusteen gaineko saioa eskainiko dute; Aretxabaletan, Eskoriatzan, eta Arrasaten Inauteriek utzitakoak ikusteko bidea egongo da, beraz. Bestalde, Tolosako Aratusteen gaineko saio bat ere eskainiko dute, eta baita Bergarako Udal Bandak eskainitako kontzertua ere.

> DOKUMENTALAK

'Euskal artzainak Ameriketara' dokumental sorta

Datorren eguztenean hasita, Ttipi-Ttapa telebista ekoiztutako dokumental sorta eskainiko dute Goiena Telebista. Hain zuzen ere, datorren eguztenean dokumental sortaren lehen atala izango da; *Bakerdfield 1* deritzona. Ttipi-Ttapa telebista Ameriketara izan zen dokumentalak grabatzen, eta hango euskal artzainekin grabatutako dokumental sortaren lehen saioa eskainiko dute eguztenean.

> ARRASATE IRRATIA

Lan arazoak hainbat esparrutan, eta maiteminduen eguna

Datorren astean aurreikusitako diren hitzorduen artean, badira bi esanguratsuek: batetik, Osakidetzako langileen protesta ekitaldiek aurrera egiten duten edo ez argituko da. Eta protestan dabilen beste kolektibo baten arazoa ere aztergai izango dute irratian: gimnasia irakasleena.

Eta bestetik, maiteminduen eguna dela ere gogora ekarriko dute.

> ARRASATE IRRATIA

Musika eta musikarekin lotutako irakurgaiak opari

Oraingo honetan, musika oinarri duten opariak izango dira irratian. Batetik, Kassin + 2 izeneko taldeak (tartean, Caetano Velosoren semeak dihardu) kontzertua egingo du Amaia antzokian, otsailaren 16an. Bada, horrako sarrerak zozkatuko dituzte. Bestetik, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik, *Hotsak dantzari* bilduma eta Morrissey eta Elliott Murphiren gaineko biografia zozkatuko dituzte (943 25 05 05 edo irratia@goiena.com).

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Migel Madariaga izango da gaur 'Ilunpean' saioan

Euskaltel-Euskadiko sortzaile eta manager Migel Madariaga elkarrizketatuko dute gaur 'Ilunpean' saioan

GOIENKARIA > ARRASATE

Migel Madariaga lemoiztarra Euskaltel-Euskadiko sortzaile eta managera da. Txikitatik txirrindularitza izan du afizio, baina bizikleta gainean ez zuen luze iraun. Txirrindularitza ez du inoiz alboratu, baina bizikleta gainean ibili ordez hainbat taldetan aritu da buru-belarri, zuzendari, masajista eta bestelako lanetan. 15 urte bete ditu Euskaltel-Euskadi taldeak, eta han uzten ditu bere gogo eta ahalegin guztiak. Ohikoa da errepidean, hegaldietan eta atzerrian aurkitzea, bidaiatzen ematen du-eta denbora luzeen.



MIGEL MADARIAGA Euskaltel-Euskadiko managera da.

IKER BARANDIARAN

'ZAHARRAK BERRI' > EGUAZTENA 20:15

Txakolinaren eta ardoaren gaineko oinarriko informazioa eskainiko dute

GOIENKARIA > ARRASATE

Erreportajearen tartean, Eibarko enologo Mikel Garaizabalek txakolinaren eta ardoaren gaineko informazioa emango du. Edariok hartzeko unea, modua eta txakolina eta ardoa edateko aholkatzen diren edalontzien

gainean-eta arituko da. Horretaz gainera, Amaia Diaz de Monasterioguren dietista porruen gainean arituko da. Porruei garrantzi txikia ematen zaiela-eta, barazkiok duten onuren gainean berba egingo du Diaz de Monasterioguren.

Bestalde, tertuliaren tartean, Luis Larrañagak eta Karlos Arrondok garai bateko garizuma izango dute mintzagai. Haragia 40 egunez jateari uzten zioten momentuak ekarriko dituzte gogora, eta une haiek nola bizi izaten zituzten kontatuko dute.

Gogora ezazue astero bezala zozketaren tartea ere egongo dela *Zaharrak berri* saioan. Datorren astean, Orkestra Sinfonikoak eta Ukrainako Abesbatza Nazionalak Donostiako Kurasaalean eskainiko duen Mozarten *Requiem* obra ikusteko sarrerak zozketatuko dituzte.

telebegi

Edu Mendibil

Corbachoren maltzurkeriak

Ez da meritu makala *Goya* sarien moduko gala aspergari bat entretenigarria egitea. Rosa Maria Sardak maila altua jarri zuen eta azken bi urteotan Jesus Corbachok proba (zaila benetan) ondo gauditu duela esan daiteke. Audientziaren beherakada ez diogu berari leporatuko, ala? Domekan ia protagonismo osoa berreskuratu zuen Corbachok bere ateraldiekin, horietako zenbait lekuz kanpokokoak, *txispa* gehiegizkoarekin agian. Sari bat jaso aurretiko nerbioei, Corbachoren objektibo bihurtzeko arriskua gehitzen zaie orain. Carlos Larrañagari ederra bota zion: gehiegizkoa izango litzatekeela aste berean bi albiste on jasotzea; *Aquí hay tomate* kendu dutela eta sariak itxoingo duela...

Bestetik, astelehen gaudetan ikus daitezke Corbachoren saio berria: *Peta Zetas* (Antena 3). 1980ko hamarkada aitzakia hartuta, sasoi hartako gainbegiratu eta orduko sinboloen azterketa maltzurra eskaintzen digute Corbachok eta haren lagunek, zein baino zein graziosoagoa izateko borrokan: bideoklipak, modak (*hula-hopa* edo Rubik kuboak), ikonoak eta abar. Beharbada, publiko oso mugatu bati zuzenduta dago: Corbacho moduan, 40 urteren bueltan direnei, hain zuzen.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. *Ilunpean* saioan, Migel Madariaga, Euskaltel-Euskadi taldeko sortzaile eta managera; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepaso
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko):
943 25 05 05 (irratia@goiena.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labor.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 8

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albisteak aurrerapena. 15:15 Erreportajea. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Aratustek 08. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 9

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Asteokak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Aratustek 08. 14:00 Aratustetako kontzertua. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Udazken koloreak. 19:30 Klip@. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Dantza topaketak. 21:00 Animalia. 21:30 Erreportajea ttipi ttapa. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 10

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Dantza topaketak. 13:00 Ikusten. 13:30 Jazmina. 14:00 Animalia. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Musikantoi. 15:30 Erreportajea. 14:00 Ilunpean. 14:30 Erreportajea ttipi ttapa. 15:00 Ur eta lur. 15:30 Eltze beroa. 16:00 Gertutik. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea ttipi ttapa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Asteokak. 22:15 Gertutik. 22:45 Aratustek 08. 23:15 Aratustetako kontzertua. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipi Ttapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ikusmira. 18:15 Ikusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kiroleri. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kiroleri. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Animalia. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.


Eguaztena, 13

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal Artzainak Ameriketara. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 14

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Euskal Artzainak Ameriketara. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:17 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3. erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
• Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak...
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Ura
• Gas
• Kafekazioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar dokorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

KONPONKETAK

MULTIARREGLOS

Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefonoonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate
• Leho eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

LEIHATEK

Arrasate
• Leho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Otsailak 8-14

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Kontzertua



ELGETA

> Anje Duhaldek kontzertua egingo du bihar, zapatua, Espaloia antzokian

Anje Duhalde eta taldekideek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean. *Sorminetan* diskoko abestiak eskainiko ditu, batez ere. Sarrerak salgai daude, 8 eurotan bazkideendako eta 10ean gainerakoendako.

Ospakizuna



ARRASATE

> Santa Ageda jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Gesalibar auzoan

Hainbat ospakizun izango dira gaur hasi eta domekara arte: gaur, bertso-afaria; bihar, zapatua, umeendako jolasak, meza, Santa Agedako koplak abestea, txotxa...; eta etzi, domeka, meza, Gesalibar eta Garagartzako koruarekin.

Antzerkia



ARRASATE

> 'Pagagnini' antzezlan musikatua ikusteko aukera izango da etzi, domeka

Yllana antzerki taldeak eta Ara Malikian biolin-joleak *Pagagnini* antzezlan musikatua egingo dute Amaia antzokian, 19:30ean. Musika emanaldien gaineko ezohiko ikuspuntua eskaintzen dute, Yllanaren umoreaz eta ironiaz.

merkatuan, eta horko abestiak joko dituzte. No Humano taldekoez maketa bat daukate; *Fe inocente* delako diskoa prestatzen dabilta. Thrash-metal-hardcore estiloa egiten dute. Exum zornotzarrek metal estiloa jorratzen dute eta *Laster berandu da* diskoko abestiak joko dituzte. The Kraven-ekoez thrash-metal musika jotzen dute, Durangotik datoz, eta diskoa prestatzen ari dira; euskaraz eta ingelesez abesten dute.

Kontzerturako sarrera 5 eurotan salduko dute.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan.

ARRASATE

> '25 Hits of Mondra Underground Sounds' diskoaren aurkezpen kontzertuak

Aurreko astean kaleratu zuten diskoaren harira, hiru kontzertu izango dira aste bukaeran. Gaur, egubakoitza, DAT tabernan, The Convicts eta Anti Sozial taldeak izango dira. Bihar, zapatua, bi emanaldi izango dira: Etxoste tabernan, The Motherfuckers eta Last Rebels taldeen eskutik; gaztetxean, berriz, The 5 Twisters, Aggressive Combat, Special Crew eta Lost Souls.

Gaur, egubakoitza, DAT tabernan, 20:00etan.

Bihar, zapatua, Etxoste tabernan, 18:00etan, eta gaztetxean, 22:00etan.

ABADIÑO

> Arrasateko bi taldek Abadiño-ko gaztetxean joko dute

Arrasateko Never Surrender eta Enboskadak eta Kaskamotzak taldeek kontzertua egingo dute Abadiño-ko gaztetxean datorren aste bukaeran.

Gaur, egubakoitza, Abadiño-ko gaztetxean, gauean.

Erakusketak

ARRASATE

> 'Hondakinak: amesgaiztorik ez!' delako erakusketa dago

Mankomunitateak antolatuta, hondakinen, beraien kudeaketaren eta gaur egungo egoeraren inguruko erakusketak dago Kulturaren Helburua da hausnarketa eragitea, gaur egungo ohiturak eta egoera aldatzeko aukeraz ohartarazteko.

Martitzenetik domekara, 17:30-20:30; martxoaren 2ra arte egongo da zabalik.

OÑATI

> Lloret de Mar-eko txango zentroaren argazki erakusketa

Lloret de Mar hiriko Txango Zentroaren argazki erakusketa ipini ditu Aloña Mendi elkarteak. Zentro horren 10. urteurrenaren harira egin dute erakusketa.

Kultura etxean, astelehenetik domekara, 18:30-20:30.

Lehiaketak

BERGARA

> XIV. Txorimalo Lehiaketa deitu du Jardun elkarteak

Txorimalo lehiaketa deitu du Jardunek. Edozeinek parte har dezake, bakarka edo taldeka. Hiru adin-talde egin dituzte: 12 urtetik beherakoak, 12-60 urte artekoak eta 60 urtetik gorakoak. Lehiaketa martxoaren 15ean egingo dute. Honako sariak daude: lehenengo adin-taldean, lehenengo hirurendako, Gasteizera patinatzerara saria; bigarren taldean, irabazleendako, 90 euro dirutan edo materialetan, eta bigarrenendako, 60 euro dirutan edo materialetan; eta hirugarren taldean, 90 eta 60 euroko sariak.

Argibideak eta izenematea, Jardunen (943 76 36 61 edo 943 76 08 19), martxoaren 7a baino lehen.

DEBAGOIENA

> 'Gure landa ingurua, gure altxorra' argazki lehiaketa

Gure landa ingurua, gure altxorra argazki lehiaketa antolatu dute Debagoieneko eta Debabarreneko Landa Garapen Agentziek, ibar horietako biztanleendako. Nahi adina argazki aurkez daitezke, koloretan edo txuri-beltzean, apirilaren 30a baino lehen, Debabarreneko edo Debagoieneko landa inguruaren gainean. Honako sariak daude: bideokamera eta garaikurra; argazki kamera eta garaikurra; eta mp4a eta garaikurra.

Argibideetarako telefonoa hauxe da: 94 630 07 30.

ESKORIATZA

> Aire zabaleko margo lehiaketarako oinarriak gertu daude

Apirilaren 6an, domeka, izango da II. Eskoriatzako Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa.

600 euroko sari nagusia emango dute; 16 urtetik beherakoen kasuan, 150 eurokoa. Beste sari batzuk ere badaude.

Oinarriak, www.eskoriatza.net udal webgunean.

BERGARA

> Koldo Eleizalde Lehiaketak deitu ditu Euskara Batzordeak

Koldo Eleizalde Lehiaketen 23. edizioa deitu du Bergarako Udal Euskara Batzordeak. Bertsoetan eta komikian, hirugarren taldean, parte hartzeko aukera Debagoienera zabaldu dute aurten; gainerako kategorietan, bakarrik Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenek parte hartu ahal izango dute. Lanak entregatzeko epea apirilaren 4an bukatuko da.

Argibide gehiago, www.bergara.net webgunean.

Musika

BERGARA

> Mikel Markezek eta Pako Aristik kontzertua egingo dute bihar

Mikel Markezek eta Pako Aristik *Tabuak saltsa berdean* delako kontzertua egingo dute bihar, zapatua. Kolaborazio horretan, Euskal Herrian, euren ustez, tabu diren gai batzuen inguruan jarduten dute.

Aroztegi aretoan, 19:00etan.

ESKORIATZA

> Latzen taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua

Oñatiko Latzen taldeak kontzertua egingo du Eskoriatzako kiroldegian, *Infernuko Ateetan Tour* biraren barruan. Ikus-entzunezkoa ere grabatuko dute. Bestalde, Bergarako Aby-Kem eta Arrasateko Governors taldeek ere joko

dute gau berean. Autobus zerbitzu bereziak egongo dira: Oñatitik Eskoriatzara eta bueltan, 19:00etatik 04:00ak bitartean; eta Bergaratik Eskoriatzara eta bueltan, berriz, 21:00etatik 04:30ak bitartean. Euro eta erdi kostatuko da bidaiak.

Bihar, zapatua, kiroldegian; ateak 20:30ean zabalduko dituzte.

ARRASATE

> No Humano, Exum, The Kraven eta Alerta taldeen kontzertua

Estallido Sonoro delako biraren barruan, lau talderen kontzertua egongo da 3.60 aretoan. Durangokoak dira Alerta taldekoak. Metal eta hardcorea lantzen dituzte, baina estilo melodikoan. Hitzetan, gizarte gaiak eta gai pertsonalak lantzen dituzte, askotan, ukitu ilun batekin. *Devhil* delako diskoa dute

PROPOSAMENA

BERGARA

> Fangoria taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan

Alaskaren eta Nacho Canuten Fangoria taldeak *El extraño viaje* delako diskoa aurkeztuko du Jam aretoan. Pop estiloko abesti laburrak dira, oso melodikoak, dantzagarriak eta gogoratzeko errazak. Musika mota horrekin, Fangoriakoek dantzan eta kantuan ipini nahi dituzte zaleak kontzertuaren egunean. Sarrerak, txarteldegian erosita, 25 euro kostatuko dira.

Bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:00etan.



BERGARA

> Aitor Etxeberriaren margolan erakusketa, Aroztegin

Aitor Etxeberria mendarotarrak hainbat margolan ipini ditu erakusketan Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Geometria eta abstrakzioa da ezaugarri bere koadroetan. Lehiaketa ugari irabazi ditu, horien artean, BMW etxeak sortzen dituen sariak eta DV-Tamayo lehen saria.

Hilaren 17ra arte dago erakusketa bisitatzeko aukera.

BERGARA

> Aratusteetako kartelen erakusketa ipini dute

Aratusteetako irudia aukeratzeko, lehiaketa deitu zuen Udalak. Bertara aurkeztutako lanekin, erakusketa dago kultura etxean.

Bihar, zapatua, da bisitatzeko azken eguna.

Antzerkia

ESKORIATZA

> 'Sumatuz...' umeendako ikuskizuna egongo da gaur

Sumatuz... izenburuarekin, 0 eta 2 urte bitarteko umeei zuzendutako ikuskizuna egingo dute gaur, egubakoitza. Ordu erdi inguruko izango da. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Jose Arana ikastolan, 18:00etan.

Ospakizunak

OÑATI

> Santa Eskolastikaren omenezko jaialdia Elkar-Hezin

Santa Eskolastika dela-eta, 2 urtetik hasi eta 6. mailara arteko ikasleek ikuskizunak egingo dituzte; abestiak, dantzak, antzerkiak... Familiek ikastetxearen gonbidapena jasoko dute.

Gaur, egubakoitza, Elkar-Hezi ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikinean (Arantzazuko Ama).

Bestelakoak

ARRASATE

> '¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú' filma eta jardunaldia

Arizmendi ikastolak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako Historia eta zinema jardunaldietan, *¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú* delako filma emango dute. Ana de Zaballa irakasleak azalpenak emango ditu. Saioa gaztelaniaz izango da.

Martitzenean, hilak 12, Kulturatan, 18:00-21:00 orduetegan.

ESKORIATZA

> Santa Agedako kintoen bideoa egin du Udalak

Santa Ageda bezperan eta egunean, kantuan ibili ziren Eskoriatzako kintoak. Santa Ageda egunean, dantzaldia egin zuten. Orain, dantzaldiko bideoa sarean ipini du Udalak: www.eskoriatza.net.

Etzi, domeka, dantza emanaldia egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan.



4 meses, 3 semanas, 2 días

Zuzendaria: Cristian Mungiu.

Aktoreak: Anamaria Marinca, Laura

Vasilii, Vlad Ivanov.

Errumania, 2007.

91 min. 18 urtetik gorakoendako.

Pertsonaiei buruzko erretratu sakon eta zirrargarriak maite dituen ikusleak *4 meses, 3 semanas, 2 días*-ekin gozatzeko, bueno, gozatzeko eta kontatzen zaigun istorioaren indar dramatikoa araberara, sufritzeko aukera ezin hobea izango du. Cristian Mungiu zuzendari eta gidolariaren bitartez eta Anamaria Marinca aktore zoragarriari esker –oso gutxitan ikus dezakegu maila honetako antzezpena– ulertu eta, batez ere, sentitu dezakegu Otiliak egiten duen emozio-bidaia.

Dena den, filma ez da Otiliaren pertsonaiaren deskribapenean bakarrik geratzen. Mungiu erretratu indibidualari erretratu kolektiboa gehitzen dio. Hau da, istorioa 1987. urteko Errumaniako kokatzen da, Ceausescu diktadorearen gainean, hain zuzen ere, eta irudietan: kaleetan, hoteleko geletan, ikaslearen erresidentzian, denbora horretako errepresioa, askatasun eza eta bakardadea islatzen dira. Zuzendaria *scope*-a modu bikainean erabiltzen du: ia denbora osoan Otilia dugu pantailan, eta bere atzean ikus dezakegu garai hartako gizartearen iluntasuna.

4 meses, 3 semanas, 2 días oso planu gutxirekin egindako filma da. Muntaiak aldetik lan txikia eskatzen badu ere, hain iraupen handiko planoak erabiltzea oso zaila da, maisutasun eta kontzentrazio handia behar da erronka gainditzeko, eta hauxe gertatzen denean lortzen den errealismo sentsazioa izugarria da. Istorioren momentu latzak ebaketerik gabe ikusten ditugunez, ikusleok pertsonaien aurrean gaudela sentitzen dugu, eta denboraren pisua nabaritzen dugu. Osagai horiek filmari ematen dioten inpaktu emozionala benetan indartsua da.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

El amor en los tiempos del cólera

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30

Astelehena: 20:30.

Alvin y las ardillas

Zapatua: 17:00.

Arma fatal

Eguena: 20:30

BERGARA AGORROSIN

Ikasgela hegalaria

Zapatua eta domeka:

16:30, 19:30.

GAZTETXEA

El graduado

Domeka: 18:00.

ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Antxeta eta katua

Domeka: 17:30.

Casablanca

Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

30 días de oscuridad

Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

The horror bus

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

Ficción

Eguena: 20:00.

SANTA ANA

Irabazle & galtzaile

Eguaztena: 17:30.

EIBAR UNZAGA

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

John Rambo

17:30, 20:00, 22:30.

Mortadelo y Filemón 2

17:00, 19:45.

Los crímenes de Oxford

17:00, 19:45, 22:30.

No es país para viejos

17:30, 20:00, 22:30.

Astérix en los Juegos Olímpicos

17:00, 19:45, 22:30.

Hacia rutas salvajes

22:00.

30 días de oscuridad

17:30, 20:00, 22:30.

Expiación

17:00, 19:45, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

La escafandra y la mariposa

18:00, 20:15, 22:30.

Juno

17:30, 20:00, 22:30.

Caramel

18:00, 20:15, 22:30.

4 meses, 3 semanas y 2 días

18:00, 20:15, 22:30.

Ahora o nunca

17:30, 20:00, 22:30.

Conociendo a Jane Austen

17:30, 20:00, 22:30.

En el valle de Elah

17:30, 20:00, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

No es país para viejos

12:15, 15:30, 17:45, 20:05,

22:25, 00:45.

Los crímenes de Oxford

16:00, 18:05, 20:10, 22:15,

00:20.

John Rambo

12:15, 16:10, 18:10, 20:10,

22:10, 00:10.

American gangster

Egubakoitza eta zapatua:

17:30, 20:30, 23:30.

Domeka: 12:15, 15:45,

18:45, 21:45.

Mortadelo y Filemón 2

12:15, 15:30, 16:30, 17:30,

18:30, 19:30, 20:30, 21:30,

23:30.

Monstruoso

12:15, 16:35, 18:30, 20:25,

22:20, 00:15.

Astérix en los Juegos Olímpicos

12:15, 15:45, 18:00, 20:15,

22:30, 00:45.

El amor en los tiempos del cólera

18:40, 21:30, 00:30.

Alvin y las ardillas

12:15, 15:50, 17:50.

La brújula dorada

12:15.

Ahora o nunca

12:15, 16:15, 18:15, 20:15,

22:15, 00:15.

Promesas del este

12:15, 16:40.

Michael Clayton

19:45, 22:00, 00:15.

El orfanato

22:30, 00:40.

Encantada

12:15.

30 días de oscuridad

12:15, 15:50, 18:05, 20:20,

22:35, 00:50.

Juno

12:15, 16:00, 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

XXY

12:15, 16:25, 18:25, 20:25,

22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.

Eguerdiko saioak, domeka.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

nire aukera



Tuppersex: jostailu erotikokoak

BILERAK Cristina Varela Arrasaten duen etxean antolatzen ditu bilerak; han, erosleekin biltzen da

AUKERA ZABALA Internet bidez erositako produktuak ditu Varela; aukera zabala eskaintzen du

EMAKUMEZKOAK Produktu gehienak emakumezkoek zuzendutakoak diren arren, bikotean jolastekoak ere baditu

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
 Tuppersex izenaz ezagutzen dira bilerok; garai batean, tupperrak saltzeko egiten zirenen antzekoak dira; baina modernoagoak, beroagoak, agian. Tuppersex bilera horietan jostailu erotikokoak saltzen dira.

Orain bi hilabete hasi zen Cristina Varela arrasatearra jostailu erotikoen kontuarekin. "Gure ibarrean eskaintzarik ez dagoela konturatu nintzen; ez dago sex-shopik. Bestalde, denda bat zabaltzeak zailtasunak ditu. Era berean, jendeak ez du gura aldamenekoak norbera ikustea jostailu erotikokoak erosten", azaldu digu Varela.

HIRI HANDIETAN

Bilbon egiten dira horrelako bilerak, "baita Bartzelona eta Madril bezalako hiri handietan ere", gaineratu du Varela. Gurean, baina, ez dira ezagunak. Orain dela zortzi urte inguru entzun zituen lehenengoz Varela Tuppersex delakoaren ingurukoak: "Crónicas marcianas" saioan, hain zuzen.

Orduan nobedadea zen!", gaineratu digu. Orain, berak erabaki du horrelakoak saltzen ibiltzea.

Varela emakumeek zuzendutako produktuak ditu; baina baita bikote jolasak ere. "Gehien saltzen dudana bibragailua da. Baita, ukenduak eta bestelako olioak ere. Bikote harremanaz gozatzeko asko laguntzen duten produktuak dira horiek", azaldu du Varela.

HIGIENE ALDETIK, ARAZORIK EZ

Produktu guztiak hipoalergenikoak dira eta ez dute inongo higie-ne arazorik ematen. "Ur eta xaboiarekin garbi daitezkeen produktuak dira. Bestalde, ukendu eta olioak jan daitezkeen produktuak dira; ez dute arazorik ematen", gaineratu du.

Prezioari dagokionez, denetarik dago: 70 euro inguru balio duen bibragailua, 16 euro balio duen txokolatetzko ukendua... Varela etxean egiten ditu bilera gehienak; hala ere, deituz gero (677 40 79 98), bestelako jai edo bileratarako joateko prest dago.



TUPPERSEX Cristinaren etxean egindako bilera; produktuak bertatik bertara ikusteko aukera dago.

A.E.

ahobero

"Goenkale' utzi dut aspertu eta nekatu egin naizelako; askotan, kalitateari ez zaio behar adinako garrantzia eman, eta horrek ukitu egin nau"

Kontxu Odriozola > Aktorea

14 urte behar izan ditu Kontxu Odriozolak kalitateari behar adina garrantzia eman ez zaioal konturatze-ko. Etxe askotan faltan igarriko dute.

iturri onetik

Datorren martxoaren 15ean egingo dute Oñatiko duatloia, 300 bat partaiderekin

Oñatiko duatloia VII. edizioa datorren martxoaren 15ean izango da. Oñatiko Triatloi Taldekoak lasterketako azken ukituak egiten ari dira. Partaideek betiko ibilbidea egin beharko dutela esan digute: zortzi kilometro antxintxika, 40 bizikletan eta azken lau kilometroak berriro ere antxintxika. Guztira 300 bat lagunek parte hartuko dute. Izena emateko epea oraindik ez dute jakinarazi.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Patxikontra

Oraindik hilabete falta da botoa emateko. Baina dagoeneko badakigu: ez dira aukera guztiak eskura egongo. Estatuaren makinak oso ahaltsuak dira eta, behin norabidea hartuta, samur zapaltzen dute parean tokatzen den oro. Polizia eta epaileak elkar hartuta jartzen direnean, legeak, agintea eta iritzia publikoa alde dituztela, ez dago ez arrazoi eta ez eskubide. Iñigo Iruini entzun diot asteon: 'Erabakiak hartuta daude, formalidadeak betetzea besterik ez da gelditzen'. Tenplez jokatu zalea naiz, gogoko dut gaien alde biak kontuan hartzea, saiatzen naiz begibakar ez izaten. Baina egoera honetan Patxikontra hasi zait esnatzen barruan, haserrea argi erakusteko gomendioarekin, aukera dagoenean. Eta ez dakit, hilabete falta da botoa emateko...

ai, ene!



Munduko estolda zulo handiena, Kalifornian

Kaliforniako iparraldean dago, Monticello urtegiaren inguruan. Perimetroak 22 metro ditu; ur asko dagoenean, gainezka egiten du.

<http://fagonazos.blogspot.com>



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu.

Zubillaga auzoa 1
 OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxa: 943 78 15 51